



•eus
Jakin 241

herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2020

Euskal kultura 2020

Hekatonbearnen urtea: kultura,
automaitasuna eta polimaitasuna

KATIXA AGIRRE

ALBERTO BARANDIARAN
OLATZ OSA
XABIER LANDABIDEA

DANI FANO
EIDER EIBAR
JOSEVISKY
NEREA UNANUA

Mahai ingurua:
Edurne Azkarate, Igor Elortza, Xabier Gantzarain,
Katti Pochelu eta Castillo Suarez

ITZIAR UGARTE

LIBURUAK

Euskal liburugintza 2018
XABIER EIZAGIRRE

Jakin^{•eus}**241**
herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2020



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Euskal kultura 2020

- 11** Hekatonbearnen urtea: kultura, automaitasuna eta polimaitasuna

Katixa Agirre Miguelez

Pandemiak kultur mundua astindu du, atzetik zetozen ahuldadeak areagotuz. Hala ere, optimismorako arrazoiak ere badaude, sortzen ari den mundu berri baten zantzuak. Artikulu-
luan bi ardatz planteatzen dira euskal kultura berpentsatzeko eta indartzeko: automaitasuna eta polimaitasuna.

- 29** Sortuz ta sortuz bizitzen gera
Alberto Barandiaran Amillano

Urtean zehar kulturaren alorrean izandako hainbat gertakari-
ren inguruan gogoetetzen da: besteak beste, Oskar Alegriaren
ekarpena, Nafarroako gazteen artean sustatutako *Sormen di-
gitala* egitasmoa, pandemiak eragotzitako ekitaldiak, emaku-
meak literaturan lortzen ari diren hegemonia aldaketa...

- 37** Ezpata dantzatik soka dantzara
Olatz Osa Zubia

Izurriteak guztia baldintzatu duen urtean, euskal liburugin-
tzan lehendik ere identifikatutako hutsune eta erronkak go-
gorarazteaz gain, testuinguru berrian horiei nondik eta nola
erantzun asmatzeko gako batzuk proposatzen dira.

47 2020ko Durangoko Azoka Immateriala
Xabier Landabidea Urresti

Inork espero ez zuen forma hartu du 55. Durangoko Azokak. 50. edizioan balio immaterialaren inguruan egindako ikerketa gogoan, aurtengoaren inplikazioez hausnartzen da Azokaren aurreko, bitarteko eta ondorengo egunak oinarri hartuta.

57 Kulturaren urtea marrazkitan
Dani Fano • Eider Eibar Zugazabeitia
Josevisky • Nerea Unanua Otxoantezana

61 Pandemiaren urtea kulturgintzan

Edurne Azkarate, Igor Elortza, Xabier Gantzarain, Katti Pochelu eta Castillo Suarez

Itziar Ugarte Irizar

Pandemia bat ekarri du 2020ak, aurretik eramanez ahal izan duen dena eta begi-bistara ekarriz azpian aurretik ere bazegoena. Baita kulturgintzaren lurretan ere. Denbora ohi baino bizkorrago pasatu dela dirudi, eta urtearen gaineko zeharkaldia berregiten dute, modu gurutzatuan, Edurne Azkarate aktoreak, Igor Elortza bertsolariak, Xabier Gantzarain idazle eta Dinamo Sormen Guneko koordinatzaileak, Katti Pochelu Gastibeltza Films ekoiztetxeko kideak eta Castillo Suarez idazleak.

LIBURUAK

97 Euskal liburugintza 2018
Xabier Eizagirre Gesalaga

2018an euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten da: ohar metodologikoak; liburu produkzioaren zifren iturriak; argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, argitaletxe emankorrenen aipamena eta kanpoko eta bertako argitaletxeen ekoizpenaren konparaketa; argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluaren zifra eta nobedadeak eta berrargitalpenak; azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa.

KONTRAZALA Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

BASQUE CULTURE 2020

The year of the hecatomb: culture, self-love and polyamory

The writer Katixa Agirre Miguelez thinks the pandemic has shaken the world of culture, accentuating those weaknesses that were around before. Despite this, she is of the view that there are reasons for optimism, with signs of a new world emerging. She thus suggests two keys to re-thinking and strengthening Basque culture: self-love and polyamory.
Katixa Agirre Miguelez

We live by keeping on creating

The journalist and writer, Alberto Barandiaran Amillano, reflects on several cultural events that have taken place during 2020: the creative world of Oskar Alegria, the *Sormen digitala* (Digital creation) project promoted among young people in Navarre, events that were not able to take place due to the pandemic, the change in hegemony being spearheaded by women in literature... **Alberto Barandiaran Amillano**

From sword dance to rope dance

In addition to recalling the shortcomings and challenges pinpointed previously in editorial production in the Basque language, Olatz Osa Zubia, director of the Elkar publishing house, proposes some keys to responding to them within the new context conditioned by the pandemic.
Olatz Osa Zubia

The 2020 Immaterial Durango Fair

Xabier Landabidea Urresti, researcher and lecturer at the Institute of Basque Studies at the University of Deusto, highlights the fact that the 55th Durango Fair has this year taken on a form that no one expected. Recalling the research into its immaterial value undertaken at the 50th Fair, he reflects on the implications of this year's fair based on both the days on which the fair takes place and previous and subsequent ones.
Xabier Landabidea Urresti

The year of the pandemic in culture. Edurne Azkarate, Igor Elortza, Xabier Gantzarain, Katti Pochelu and Castillo Suarez

2020 has brought us a pandemic that has affected all walks of society, and also, of course, the world of culture. The actress Edurne Azkarate, the bertsolari (verse improviser) Igor Elortza, the writer and coordinator of Dinamoia Sormen Gunea from Azpeitia, Xabier Gantzarain, the member of the Gastibeltza Films production team Katti Pochelu and the writer Castillo Suarez provide an overview of the year in culture at a round table moderated by the journalist Itziar Ugarte Irizar. **Itziar Ugarte Irizar**

Basque bibliography 2018

Xabier Eizagirre Gesalaga, a graduate in Philosophy and editor-in-chief of JAKIN, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2018. In this year, 2.138 books were published in the Basque language, 156 less than in 2017. Most of these publications are children's and young people's literature (34,7%), followed by school books (29,3%), literature for adults (14,7%) and books on human and social sciences (13%). The author continues with the work involving the classification and study of Basque bibliography that Joan Mari Torrealdai first embarked on in 1976. **Xabier Eizagirre Gesalaga**

Hekatonbearen urtea, pandemiaren urtea, izurriteak guztia baldintzatu duen urtea, ziurgabetasuna nagusi eta inoiz baino zaugarriago geratu garen urtea. Horra zenbaki honetako hainbat esaldi. Eta hala ere: kultura, automaitasuna eta poli-maitasuna; sortu ta sortuz bizitzen gera –eta deuseztuz hil, gehitu beharko genuke–; krisi guztietan irekitzen da aldaketarako aukera bat; ezpata dantza baino soka dantza eraginkorragoa izango dugu... Zenbaki honetan ageri diren hainbat ‘hala ere’. Izan ere beti dago baina bat, esaten da, baina baita ‘hala ere’ bat ere, Lourdes Iriondok kantatu bezala. Hala ere. Zorionez.

Katixa Agirrek urteari egin dion errepasoan, geure zilborretik harago pentsatzeko imajinazio gaitasunaren beharra aldarrikatu du: «Harreman berri bat geure kulturarekiko: afektuen sare zabal eta irekiagoa, podiumeko figurarik gabe, aurreiritzietan iltzatuta geratu gabe beti esna eta beti adi egotera bultzatuko gaituena. Boterea banatuz eta gozamina biderkatuz». Ez da formula txarra. Txarrenari onena bilatzen Alberto Barandiaranek hainbat harribitxi ekarri dizkigu, eta Olatz Osak inoiz baino gehiago saretzearen beharra azpimarratu du. Durangoko Azoka digitalaren inaugurazio ofiziala gertatu den honetan, Xabier Landabideak iritzi dio aro berri bat zabaldu dela. Zaharraren eta berriaren artean, Dani Fanok, Eider Eibarrek, Joseviskyk eta Nerea Unanuak kulturaren egoeraren gaineko lau marrazki esanguratsu egin dituzte.

Ohikoaz kanpoko urte bereziak eskatzen zuen halako notario lana egitea, zer izan den, zer sentitu dugun, zer egin dugun eta zer ez dugun egin eta zer dugun aurrean egingarri, berrigarri eta hobegarri. Horregatik, bost sortzaile bildu ditugu mahai ingurura: Edurne Azkarate antzerkilaria, Igor Elortza bertsolaria, Xabier Gantzarain kultur ekintzailea, Katti Pochelu ekoizlea eta Castillo Suarez idazlea. Nor bere diziplinatik, nor bere geografiatik, nor bere bizi-penetik luze aritu da Itziar Ugarteren gidaritzapean, gorago aipatutako kulturarekiko harreman berri baten ideia mamiz janzten, «eta orain zer?» galdera totalari erantzunak begitantzeko. Imajinazioa baita harago pentsatu ahal izateko bidea. «Eta orain zer?» galde-

tzen digu, baita ere, bizi-indarrak ahitzear, ohean, gaixo, kontra-
leko bere txokoan Unai Iturriagak irudikatu duen kulturak.

Kultura baten osasunaz eta bizi-indarraz hitz egiten digula libu-
rugintzak frogatu digu Joan Mari Torrealdaik 42 urtez segidan, ur-
tero-urtero, egin dituen ikerketekin. Langintza horretan, erreleboa
hartu dio Xabier Eizagirre erredakzio buruak, Torrealdaik hala eraba-
kita utzi eta gero, eta biek elkarrekin abiatutako 2018ko liburugin-
tzaren ikerketa Eizagirrek bukatu du, Jakinek liburuen katalogoaren
corpusa osatu ondotik. Liburugintzaren ikerketak ixten du zenbaki
hau, Torrealdai zendu izanagatik ere, hala ere hemen ere, jarraipe-
na eman baitzaio liburugintzaren ikerketa soziologikoaren lerroari.

EUSKAL KULTURA 2020

- 11** Hekatonbearen urtea: kultura, automaitasuna eta polimaitasuna
Katixa Agirre Miguelez
- 29** Sortuz ta sortuz bizitzen gera
Alberto Barandiaran Amillano
- 37** Ezpata dantzatik soka dantzara
Olatz Osa Zubia
- 47** 2020ko Durangoko Azoka
Immateriala
Xabier Landabidea Urresti
- 57** Kulturaren urtea marrazkitan
Dani Fano • Eider Eibar Zugazabeitia
Josevisky • Nerea Unanua Otxoantezana
- 61** Pandemiaren urtea kulturgintzan
Edurne Azkarate, Igor Elortza, Xabier
Gantzarain, Katti Pochelu eta Castillo Suarez
Itziar Ugarte Irizar

Katixa Agirre Miguelez

Hekatonbearen urtea: kultura, automaitasuna eta polimaitasuna

Imajinazio pixka bat, arren

Esaiozu zerbait duela urtebeteko zure ni-ari.
Twitterreko memea (2020ko udazkena)

Eta inork espero ez zuena gertatu zen.

Okertuta nabil, jakina: batzuek espero zuten. Hemeroteketan arakatzea besterik ez dago zientzialari zintzoen abisuekin topo egiteko. Ekaitz perfektuaren baldintza guztiak hor zeuden, begi bistan: ekosistema guztiengan eragiten ari garen presioa, populazio dentsitatea, mobilitate frenetikoa. Bizitzeko gure modu hau, finean. Bai, batzuek argi ikusten zuten: birus bat salto egiteko moduan zegoen, pandemiarako bataila-eremua prest zen. Eta, alajaina, salto egin zuen. Eta bataila hasi zen.

Eta ez hori bakarrik, ez dakit zenbatgarren olatua surfeatzen ari garen honetan, zientzialari zintzoek diote hau hasi besterik ez dela egin. Beste birus batzuk beroketa lanetan omen dabiltzala hau irakurtzen ari zaren bitartean. Akaso 19 abizena jaso duen hau baino birus hilkorragoak, kutsakorragoak, suntsitzaileagoak.

Eta orduan zer?

Barkatu, ez da alarmismo kontua. Imajinazioa da. Geure zilborretik harago begiratzeko eta pentsatzeko gaitasuna.

Horregatik zioen norbaitek Twitterren, bera, zientzia-fikzio irakurle porrokatu gisa, koronabirusaren krisiak ez zuela bereziki harritu. Beste hamaika mehatxu ekologiko, biriko, ekonomiko, teknologikoren itzaletan bizi zen irakurle hura, bere irakurketei esker (edo bere irakurketen erruz, akaso). Prest zegoen. Sikiera mentalki. Imajinazioa ondo berotuta ordurako.

Horretarako ere balio duelako literaturak, sorkuntzak, kulturak orokorrean. Geure zilborretik harago begiratzeko eta pentsatzeko gaitasuna trebatzeko. Geure burua, adibidez, 2021eko urte amaieran proiektatu ahal izateko, eta 2020ko amaierako geure ni-arekin elkarrizketa zintzo bat edukitzen imajinatzeko.

Ea ba, irakurle, zer esango lioke 2021 urteko amaierako zure ni-ak zure gaur egungo ni-ari? Ze esperientzia berri etor daitezke urte berri honetan? Zenbat olatu ditugu aurretik surfeatzeko? Zenbat min eta zenbat gozamen?

Epigrafeak

*Ez dut uste kulturak erantzun berezirik
behar duenik krisiaren aurrean.*
Bingen Zupiria, EAEko Kultura sailburua

Eta inork (zientzialariak eta zientzia-fikzio irakurleak salbu) espero ez zuena gertatu zen eta oraindik kolpea nondik etorri zaigun ere ez dakigu. Hekatonbeak atzean utzi dituen hondakinetara begira geratu gaitezke, hori bai, desastrearen arkeologoarena eginez.

Badaude txostenak desastrea zifretara itzultzen dutenak. Soilik EAEn eta soilik martxotik maiatzera doan tarte ilun horretan kultur ekitaldien %82,6 bertan behera geratu dira, kaltetutako enplegua %43,2koa da (eta hori, itzulita, 11.299 enplegu omen dira), eta urteko galerak COVID-19aren aurretik aurreikusitako diru-sarreraren %40,8 izan dira. 786.226.200 euro lapurtu omen dizkio birusaren krisiak kultur sektoreari udaberriari.¹ Eta sarraskia, ordutik, ez da gelditu.

Dena eten da, eta berriz jarri da martxan, eta egutegiak berrantolatu dira, eta kultur ekitaldia egin denean aforo txikiagoarekin egin da, eta orduan boloak bikoiztu edo hiru-koiiztu behar izan dira (diru berdintsuaren truke, jakina), eta berriz eten da dena, eta berriz zabalduko omen da baina ez dakigu nola, ez dakigu noiz, ez dakigu zenbaterako eta A, B, C eta D planarekin ari dira jolas-ten kultur programatzaileak, kudeatzaileak, jaialdietako zuzendariak. Izaro kantariaren Instagram kontua jarraitzea besterik ez dago musikariak egoera zoro hau nola bizitzen ari diren jakiteko. Filtroak eta GIF sinpatikoak erabiliko ditu Izarok bere argitalpenetan, baina higadura hor dago, in-

potentzia, tristura. Bitartean, durduza honen erdian, areto batzuek oraindik ez dituzte beren ateak birzabaldtu 2020ko martxotik (Kafe Antzokia, kasu), eta beste batzuek ez dituzte berriz zabalduko (Plateruena, mirari bat gertatu ezean).

Dena gaizki, finean. Eta Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak iragarri ditu, Kultura sailburuak kultura beste edozein sektore gisa tratatzeko joera azaldu duenez gero. Itxaropenez irakurri genuen berria udaberri amaieran. Kontua da diru laguntza horien bideak askoz malkarragoak direla sektore honetan beste edozein sektoretan baino. Hasieran iragarri zen ezohiko diru laguntza azkenean ez zen hain ezohikoa izan: ordurako existitzen ziren diru laguntzen adaptazioa baino ez zen. Gero zozketa (!) bidez esleituko zirela azaldu zen, eskaera guztiak asetzeko aurrekontua iritsiko ez zela aurreikusita. Gero zozketaren prozedura ezeztatu zuten ahots ofizialek.² Azkenik jakin dugu banatzeko zituzten 4.500.000 eurotik soilik 843.000 banatu direla urte amaieran. Zergatik? Sektore desartikulatu

Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak iragarri ditu, Kultura sailburuak kultura beste edozein sektore gisa tratatzeko joera azaldu duenez gero. Kontua da diru laguntza horien bideak askoz malkarragoak direla sektore honetan

bat eta aurreikuspen falta, labur esanda. Izan ere, nor da sortzailea? Zer da kultura? Gizarte segurantzako epigrafe zuzeanean dagoena baino ez da artista? Hamaika gauzatan ibiltzen banaiz hil amaierara iristeko, hamaika epigrafetan eman behar ote dut izena? Zer kristo da epigrafe bat? Epigrafeak... ez al zen hori Anariren azken diskoaren izena?

Nekagarria egin zait aurrekoa idaztea. Pentsa zer izan behar duen zure lanbide prekarioa horrelako oihan burokratikoan zehar aurrera atera nahi izatea.

Musikarrien, idazleen, antzerki-jendearen profesionaltasun osorako oraindik falta zaigun bide horretan, sailburuak beste zerbait iragarri du: artistaren estatutua, sektoreak berak aspaldi eskatu duen legeria. Oraindik ez dago argi zertan gauzatuko den. Madrilen zerbait onartu behar omen da aurrena, eta, gainera, gizarte segurantzaren eskumenik gabe, ezin mugimendu handirik espero. Baina tira, behintzat bada zerbait. Beharizan bat aitortzen da, artistaren estatutuak beharizan hori asetuko duen argi ez badago ere.

Agian arrazoia du Bingen Zupiriak eta kulturak ez du erantzun berezirik behar. Agian besteek behar dutena baino ez du behar. Lanbidearen aitortza, amateurismo orokorraren errefusatzea, ezinbesteko jardura estatusa, liburu-dendak (adibidez) ez daitezen berriro itxi gehien behar ditugunean. Hori besterik ez. Hori lortuta, ados egongo naiz Zupiria jaunarekin. Baina ze urrun gauden erantzun berezirik behar ez izatetik.

Sinestea edo ez sinestea

*Barkatu, Katixa, diru-saririk ez dugu aurreikusi eta
zu izan zara horretaz galdetu duen bakarra.*
Email pribatua, liburu baterako kolaborazioa eskatu eta gero

Ez dugu aurreikusita egileei ordaintzea.
Email pribatua, liburu baterako kolaborazioa eskatu eta gero

*Ezin dugu hitzaldia ordaindu
baina nire etxean geratu zaitzke lotan.*
Email pribatua

Baina, egon momentu batean. Sailburu jaunak esan badu kulturak ez duela neurri berezirik behar, izango da norbait, esplizituki edo ez, neurri bereziak eskatu dituelako, edo ideia hori –kultura berezia, desberdina dela, aparteko gauza– airean dagoelako.

Hala al da?

Baietz esango nuke. Baduela, nola esan, aura bat. Tipula bat zuritzen den moduan zuritu dezaket nik kultura, mesede baino kalte egiten dion bere ustezko aura hori kentzeko asmoz.

Adibidez.

Esaten zaigu kultura beharrezkoa dela gizarte batek aurrera egin dezan. Kulturarik gabe ez dago etorkizunik. Kulturarik gabe ez dago askatasunik. Kulturarik gabe ez dago [utzi teklatu aurreikusleak esaldia osatu dezan]. Eta hala da, noski. Baina gizarteak ere beharrezkoa du, zer dakit nik, ura potabilizatuko duen partzuergo bat, beste hainbat gauzaren artean. Edateko moduko urik gabe ere, etorkizuna beltz. Askatasunik ez egarriz edo koleraz hiltzen den herrian. Zer esan nahi dut horrekin? Hamaikatxo gauza ezinbesteko zaizkigula. Kultura ez da, beraz, hain berezia horretan.

Esaten zaigu kultura jardun bitxia dela; izan ere, itxuraz ezer egiten ez zaudenean duzu momenturik produktiboena berez: irakurtzen, pentsatzen, paseatzen, ikertzen, inori erakutsiko ez diozuna probatzen, esperimintatzen. Gerora, batzuetan askoz beranduago egiaz, etorriko dira kontzertuak, erakusketak, argitalpenak, film errodaje eta emanaldiak, itzulpenak nazioarteko aldizkari prestigiotsuetan, antzerki saioak, hitzaldiak, performance biralak, YouTubeko ikustaldiak eta zifretara itzul daitezkeen gauza horiek guztiak. Edo ez. Agian garai itxuraz ez-produktiboa ezereza bihurtuko da. Pentsatukoak ez duela balio erabakiko du sortzaileak, esperimintua gaizki atera dela, kontrako bidean eman dituela paseo horiek guztiak, eta hobe duela buelta erdia ematea. Eta bai ondo hori horrela izan ahal izatea ere. Pauso guztiei probetxu kuantitatiboa ez ateratzea. Beti produktiboa ez izatea, hau luxua. Orduak ematea inora eramango ez gaituen jardun batean.

Ez al da hori sistemaren aurkako matxinadarik behinena. Aldarrikatu dezagun ez-produktiboak izatea, tarteka bada ere.

Sortze prozesua, berez, organikoa da, ez mekanikoa, eta izaki bizidun bat bezala garatuko da, batzuetan handi eta osasuntsu, besteetan makal eta oker. Beste modu batean esanda: aurreikusezina da. Erein beharra dago, baina inork ezin du ziurtatu ereindakoak fruituak emango dituenik, edo nola-koak izango diren fruitu horiek. Horregatik da hain berezia kultura? Ez dut uste; izan ere, antzeko gauza esan daiteke hezkuntzaz ere. Urte asko dedikatuko dute ume eta gazteek ikastera, eta gizarteak baliabide asko jarriko ditu hori hala izan dadin. Batzuetan inbertsioa ondo aterako da, eta gizartean ekarpenak egiteko prest dauden pertsonak aterako dira hezkuntza sistematik. Beste batzuetan, eta hamaika dira zirkunstantziak eta arrazoiak, gauzak ez dira hain ondo ateratzen. Baina ez diogu horregatik hezkuntzan inbertitzeari uzten, ahots aurrerakoiek behintzat beti eskatuko dute inbertsio

Zenbat erreparatu oraindik ere kultur jarduna lana dela aitortzeko! Kultur jardunean dabilen jendeak faktura mordoa ordaindu behar duela eta beren lanagatik kobratzeko eskubide osoa dutela. Beste edozein langilek bezala

handiagoa justu hor, kanpoan inor utziko ez duen hezkuntza sistema indartsu bat aldarrikatuko dute. Inbertsioaren gaitetik pertsona ororen eskubidea delako hezkuntza. Baldintzarik gabekoa. Ez litzateke kultura berdin ulertu beharko?

Esaten zaigu sortzaileek ez dutela berez lanbide bat, bokazioari jarraitzen diotela, bizi-tza materialaz harago dagoen bulkada bati jarraituz. Egiari zor, sortzaile batzuek ere indartzen dute ideia hori. «Idaz-

keta ez da lanbidea, bizitzeko modu bat baizik» eta antzekoak irakurri behar ditugu tarteka. Baina zer nahi duzue esatea, beste lanbide bokazional mordoa dugu inguruan, medikuak eta erizainak, kasu, edo DBHko irakasleak (nor

sartuko litzateke DBHko ikasgela batean bokazio argi bat gabe?). Eta zer diozue suhiltzaileei buruz? Ez al da suhiltzaile izatea 'bizitzeko modu' bat? Beren gimnasio orduekin, erruz bidaiatzeko erabiltzen dituzten egun libre horiekin guztiekin. Eta tabernariak ez al dute 'bizitzeko modu' partikular samar bat ere? Hala ere, inoiz ez da erabili bokazioaren edo bizitza estiloaren aitzakia medikuei, erizainei, DBHko irakasleei edota suhiltzaileei ez ordaintzeko, tabernariari gutxiago ordaintzeko edo ikusgarritasun eta ego masajeekin ordaintzeko, diruarekin ordaindu beharrean.

Zenbat erreparo oraindik ere kultur jarduna lana dela aitortzeko! Kultur jardunean dabilen jendeak faktura mordoa ordaindu behar duela eta beren lanagatik kobratzeko eskubide osoa dutela. Beste edozein langilek bezala.

Ea. Biluzik dago tipula jada. Hauxe duzue kultura. Ez da hain berezia, ikusten? Zergatik salbuespen egoera hainbeste, kulturari buruz ari garenean, hain salbuespenezko jarduna ez denean?

Aurreratuko dizuet nire susmoa.

Lehenengo premisa sinesten ez dugulako. Alegia, ez dugu-lako uste benetan *hain* inportantea denik. Kulturarik gabe ez dago etorkizunik (edo teklatuak iradokitzen duen beste edozein formula) eslogan hutsa delako. Ez dugu sinesten ez gizarte bezala, ezta sortzaile bezala ere. Autoestimu maila oso altua behar du gizarte batek kultura seriotan hartzen hasteko. Eta sentitzen dut hala esatea, baina ez dugu autoestimua sobran. Ez gizarteak ezta gizarte horren produktu diren sortzaileek ere. Agian artista bati edo besteari entzunez pentsatu duzue baietz, autoestimuz ondo hornituta dagoela hura; baina ez, hori ez da normalean autoestimua, banitatea izan daiteke, ahulguneak hitz pretentziosoekin estaltzeko ahalegina. Eta hori autoestimua kontrakoa da.

Bitartean, eta automaitasun dosi handi hori gabe, zer da kultura? Gure gizartearentzako dena egun: denbora-pasa, entretenimendua, dekorazioa, postureoa, iruzurra, saldukeria.

Esan dut ba: dena gaizki.

Ostalaritza ere kultura da

Gure apartamentua hotz zegoenez Café de Flore-n pasatzen genuen egun osoa, kafe bakar batekin.
Ulrike Ottinger, *Paris Calligrammes* pelikulan

Baina agian ez, itxoin, agian bada esperantzarik. Atsedean hartzeko atera naiz kalera (ez, barkatu, dagoeneko esan dezaket ideiak ordenan jartzera atera naizela kalera, neure pausoen erritmoak idazketaren erritmoa diktatu dezan, paseo produktibo bat ematera atera naizela, beraz) eta auzoko ostalarien manifestazio batekin egin dut topo. Itxialdiagatik egiten dute protesta. Paskina luzatu dit neska gazte batek, konplizitate keinu bat egin diot erreflexu hutsez. Hala dio paskinak:

Auzoa eta kultura ere bagarelako!

Tabernetan komunitatea egituratzen delako eta babesa, atepa, komun publikoak, wifi konexioa, iragarkientzako taula eta informazio turistikoa eskaintzen delako. Esposaketak, kontzertuak eta antzerkia eskaintzen dira, liburu eta zinema gidioak idatzi, akordioak itxi eta proiektu berriak sortzen dira.

Finean, tabernak, jatetxeak eta gau-giroa *bizitza gara*.

Bihotzak salto txiki bat eman dit. Egia da irakurtzen ari naizena? Eta ez nabil esplizituki aldarrikatzen denaz ari. Kultura hitza, badakit, malgua da oso. Gainera esanahi anglosaxoia indarrez sartu da gurean (hortik, adibidez, *bor txaketaren kultura* sintagma mingarriaren onarpena), eta edozer gauza kabitzen da bertan egun: komun publikoak zein antzezlanak. Luze eztabaidatu genezake kontuaz, ados. Baina zerbait bitxia gertatzen da semantikatik harago. Ondo interpretatzen ari banaiz paskina, tabernek kulturaren aura lagungarria zaiela uste dute, kultura omen diren heinean nahi dute hobeto tratatuak izan. Tabernek, aizue. Non eta txikiteroen erresuman. Afari erritualen herrialdean. Baxoerdi eta katxien paradisuan. Sukaldariak idazleak baino askoz ospetsuagoak diren aberrian. Kulturara gerturatu nahi dute, kultura direla erreibindikatu. Prestigioa emango (omen) die horrek. To eta no.

Zuek ere sentitzen duzue dardara sismiko hau? Historiaren orratza beste puntu kardinal batera seinalatzen hasita den intuizioa? Gauzak aldatzen ari ote dira orduan? Fatalistegia geratu ote zait aurreko puntua?

Demagun baietz.

Norena da *Patria* hau?

*Ikus-entzunezko industria propiorik ez izatea
kultura propiorik ez izatea da.*

Enric Marín Otto

Beraz, ez, dena gaizki, ez. Honetan ere imajinazioa behar dugu. Landatzen ari garenak eman dezakeena imajinatzeke gaitasuna. Etorkizuna ez dago idatzita, geure imajinazioaren menpe dago hein handi batean.

Negarrez eman ditugu azken urteak gutako batzuek, euskarazko telebistako fikziorik ez genuela eta. Euskal zinema, nolabait, ari zela aurrera egiten, tarteka arrakasta sonatuekin eta guzti, baina *literatura berria* deitzen duten horretan, alegia, telesailetan, oso atzean geratzen ari ginela gaztigatzen genuen. Bada, 2019ko amaieran ETBren lehenengo saiakera heldu zen, *Ihesaldia* telesaila, hiltzat ematen genuen gorpu baten ustekabeko espasmoa. 2020ko udazkenean heldu da berpizkundea, osasun krisiak inposatutako mugak muga: *Alardea* aurrena, *Hondar ahoak* gero, *Altsasu* urtea ixteko. Hiru telesail labur oso ezberdin, baina esanguratsuak hirurak, fundamentuz egindakoak eta aktore lan bikainarekin.

Egia esanda, nonbaiten dir-dir egiteko parada izan badute euskal aktoreek, hori HBO Españaren *Patria* telesailean izan da, Fernando Aranbururen eleberri ospetsuaren adaptazioan. Zoragarri daude denak, bereziki Elena Irureta eta Ane Gabarain, baina baita Eneko Sagardoy gazte kontsokratua eta Jon Olivares gazte ia kontsokratua ere. Honetaz ere hitz egin daiteke? Gaztelerara pasatu beharraz dir-dir egiteko? Kanpo-ko txaloak jaso beharraz etxean duguna estimatzen hasteko?

Edo modaz pasatutako eztabaida da? Edo onartu eta barneratu dugu herri akonplexatua garela eta gauzek horrela izan behar dutela?

Momentuz, errepika dezadan soilik egia hau: kontaktzen ez bazara, kontaktzen zaituzte. Horregatik geure burua kontaktzen

Kontaktzen ez bazara,
kontaktzen zaituzte.
Horregatik geure burua
kontaktzen jarraitu behar
dugu, edozein bide
erabilita, baina bereziki
ikus-entzunezkoan
arreta estrategikoa jarritz

jarraitu behar dugu, edozein bide erabilita, baina bereziki gaur egungo espresibide hegemonikoan arreta estrategikoa jarritz. Ikus-entzunezkoaz ari naiz, noski. Geure istorioak irudiz eta euskaraz, garai batean Eneko Olasagastik esan bezala. Eta ez hori bakarrik: ahalik eta toki gehiagotik ere kontatu behar gara, polifoniarren xerkan beti, horrek esan

nahiko baitu boterea ondo banatuta dagoela. ETBk du gaur euskaraz fikzioa ekoizteko gihar indartsuena, baina bide polita ari dira egiten websailen ekoizpenaren oihanean sartu direnak ere. Durangoko Azokako azken sormen beka Nafarroa Beherean pentsatutako telesail parte-hartzaile batek eraman du: *Bañolet* du izena, ea 2021eko amaieran ikusteko aukera dugun. Aurretik, Tabakalera baitako 2de0 Ikus-entzunezko Laborategia ere ari da websail berritzaileei bultzada galanta ematen. Ekimen apalak dira, baina erabat beharrezkoak.

Eta boterea aipatu dudanez, datu bat: ETBk estreinatutako azken telesailen artean asmo artistiko handiena duena *Hondar ahoak* izango da akaso.³ Bere sortzaileak, Koldo Almandozek, datu argigarri hau eman zuen *Irutxuloko Hitza*-n: «Guk egin ditugu lau atal berrogeita hamabost minutukoak, *Patria*-ren kapitulu batek balio duenaren erdiarekin». Eneko Sagardoyk, *Hondar ahoak*-en ere protagonista denak, zehaztu nahi izan du *Gara*-n datu hori: «Nik esango nuke *Patria*-ren bosten batekin egin ditugula lau kapitulu».

Datu inportantea. Baina ez inportanteena.

Ituñer power

Higaduraren ostean bilakatu ginen hondartza.
Dupla & Itziar Ituño

Alardea estreinatu zen gauean, lehenengo kapitulua Twitter bidez ere jarraitzeko ariketa egin nuen. Gau hartan gertatu zenak ahoa bete hartz utzi ninduen. Nik banekien Itziar Ituñok, *Alardea*-ko protagonistak, bost milioi jarraitzaile zituela Instagramen, *La casa de papel* teleailean lortutako nazioarteko arrakasta zela eta; baina hori, bost milioi, entitate-terik gabeko zenbaki bat baino ez zen estreinaldiaren gauean *#alardea* traolan sartu nintzen arte. Argiztapen pobreagatik kexatzen ziren euskaldun pipertuen artean horrelako gauzak ere irakur zitezkeen:

Obrigada pela atuação incrível, pela entrega, por trazer algo *tão* necessário! Te levaremos pra sempre conosco Amaia! *#alardea*
Itzi, te amo demais *#alardea*
Acabou o primeiro ep de *#alardea* Não entendi nadaaaaaaa mas a Itzi tava maravilhosa. É isso <3
A intensidade que ela coloca em tudo o que faz... itziar, você é *incrível* e merece o mundo! eskerrik asko *#alardea*
Mas deixava a Amaia descer a mão nesses macho escroto carai!!!!
*#alardea*⁴

Horrelako gauzak idazten zituzten Ituñoren fan brasildarrek, gaztelerazko eta ingelesezko antzeko txioen (baina agian ez hain sutsuen) artean. Brasilgo *trending topic* edo *assunto do momento*-en artean *Alardea* eta *Amaia* (Ituñok teleailean egiten zuen pertsonaiaren izena) egon ziren estreinaldiaren egunean. Lau astez kontua errepikatu egin zen; asteazkena noiz helduko sufritzen zuten fan horiek, behingoz azpitoluak jarriko ote zituzten galdetzen zioten ziberespazioari, eta, gero, atala sarean ikusteaz gain, Twitterren beren entusiasmoa partekatzen zuten. Inongo azpitolurik gabe korritu zuen mundua *Alardea* telesailak. Euskara hutsean zabaldu zen *streaming* bitartez. Aukera galdu horrek fan

megasutsuei bakarrik ahalbidetu die saila tutik ulertu gabe jarraitzea. Baina icebergaren punta baino ez da hori. Uste dut ez dudala esajeratzen esaten badut milioiak (bai, milioiak) daudela munduan *Alardea* bezalako telesaila ikusteko prest, erraz jartzen badiegu.

Konturatzen gara zelako aktiboa dugun esku artean? Edo jarraituko dugu pipertuta aurrekontu minimoarekin egingako telesail batean argiztapenarekin edo ahots sinkronizazioarekin ez dakit zer gertatzen zelako?

Berriki *Ttap* aldizkariak *ituñer* fenomenoari dedikatu dion erreportaje jorian, Raquel Herrera ikertzaile katalanak zera esan du, fenomenoa ikertzerakoan arreta gehien deitu diona Euskal Herrian bertan Itziar Ituñoren ospe internazionalaren inguruan dagoen ezjakintasuna dela. Gogoan duzue nola automaitasun eza aipatu dudan? Ba horretaz ari nintzen, esate baterako.

Kasuak Rosalía abeslariak, bere nazioarteko osparean gorenear, katalanezko kanta bat atera zuenean gertatu zena gogorarazten du. *Que jo sé que he nascut per ser milionària* abesten zuen Bartzelonako artistak billeteak airera botatzen zituen bitartean. Kantuak 35 milioi ikustaldi baino gehiago ditu YouTubean, eta *fandom*-ak ondo hartu zuen, katalanezko kanta batekin hornitu genuen askok 2019ko gure playlista. Baina gogoan duzue zertaz aritu zen txiolari katalan mordoa kantua atera zenean? Bada Rosalíak *cumpleany*s esaten zuela *aniversari* jatorragoa erabili beharrean. Halakorik!

Badago zerbait hizkuntza gutxituetan mugitzen garenok galdu duguna, kendu digutena: ilusioa. Hainbestetan esan digute gureak ez duela balio, bestea hobeagoa dela, lehenengoak izan nahi dugula beti hori seinalatzen, hiperkritikotasun horrek arlote izatetik salbatuko bagintu bezala.

Ezjakintasuna, konplexuak, kexaren erosotasuna, kritikaren nagusitasun morala. Horrekin konformatuko gara benetan?

Orokortzen ari naiz, bai, jakina. Esan dut Itziar Ituñok bost milioi jarraitzaile dituela Instagramen. Ez dut esan beti (beti!) idazten duela euskaraz aurrena sare sozial horretan.

Inongo konplexurik gabe eta automaitasun handiarekin. Bere esfortzuak badu fruiturik. Euskarazko gutunak eta mezuak jasotzen ditu etengabe, Indiatik, Iranetik, Georgiatik. Euskara ikasten ari da orain dela bi urte euskara existitzen zela ere ez zekien jendea. *Goenkale-k revival* bat bizi du sarean, Ituñok antzezten zuen Nekane Beitia pertsonaia dela-eta; eta entzutearen entzutez, asko dira hitzak, esaldiak, elkarrizketa osoak ikasten ari direnak.

Etxepare Megainstitutu bat da Itziar Ituño. Bejondeiola. Ea kanpo eragin horrek barrurantz izaten duen efekturen bat, ilusio ziztada bat, autoestimua dosia. Hori geure esku.

Arabar *perreoa* eta oharkabean pasatzen ari diren beste gauza batzuk

Plazer bat da niretzat honen parte izatea.

Behingoz Arabako rapa mapan kokatzea.

Hemen dagoela kriston kalitatea

Patata, friestaila ta jai ezinhobeak.

Haizea

Pantailetatik aldendu gabe, 2020ko udazkenean gertatutako fenomeno batez ohartarazi nahiko nuke. Agian konturatuko zinen, irakurle. Zine aretotara joan eta hainbat euskal filmen artean aukeratzea egon da. Kasu batzuetan, eta historian lehenengo aldiz, lau euskarazko filmek konpartitu dute kartelera. *Erlauntza, Ane, Bi urte lau hilabete eta egun bat, Akelarre, Hil kanpaiak...* Euskal buffeta! Musukoarekin ere disfrutatzeke modukoa.

Nola da hau posible? Koronabirusaren krisialdiak atzeratu egin ditu hainbat estreinaldi, galdutzat eman dute hainbatek denboraldia. Eta Hollywoodeko *blockbuster*-ek estrategikoki atzera egin zutenean euskal zinema han zegoen, bere momentuaren zain. Uzta ederra izan da pandemiaren urtekoa gainera, laster iritsiko dira sariak barra-barra, ziur naiz.

Kasuak, aldeak alde, telesail nordikoen eztanda ekartzen du gogora. 2008ko krisialdi finantzieroaren ostean BBCk ez

zeukan dirurik AEBetako azken *quality* telesaila erosteko, eta beste nonbaitera begira jarri zen: Europako iparraldera. *Forbrydelsen* saioak (*The Killing* bezala ere ezagutua) sekulako arrakasta izan zuen Erresuma Batuan, eta handik mundu osora egin zuen salto, Estatu Batuetan *remake* bat egiteraino. Ordutik herrialde eskandinaviarren ikus-entzunezko nazioarteko jariora ez da eten, eta *nordic noir* etiketa kalitate-berme bat bihurtu da mundu osoan. Ziurrenik haiek ere esan dezakete: «Guk egin dugu denboraldi oso bat *Mad Men*-eko kapitulu batek balio duenarekin». Eta bada datu inportante bat, bai, kontuan izatekoa. Baina ez inportanteena.

2008ko finantza krisialdiak bakarrik azaltzen du eskandinaviarren arrakasta hori? Ez ba. Hamarkadetako lana zegoen atzean, zine industria indartsu eta lagundua (bereziki Dani-markan), talentuaren mimatze bat, eskandinaviar herrialde guztien arteko lotura eta koprodukzio ahaleginak, hizkuntza dibertsitateari geroz eta beldur gutxiago zion audientzia globala, eta, batez ere: barne ezagutza eta estimua. Eskandinaviarrek beraiek beren fikzioak maite dituzte, berdin literaturan zein ikus-entzunezkoetan, zeinek eskutik helduta egiten duten bidea maiz. Eta oinarri sendo horretatik abiatuta konkistatzen dute mundua. Beste modu batean esanda: beren burua maitatuz.

Guk ze ezagutza dugu, eta zer-nolako estimua geure sormen lanekiko? Zertan ari gara gu arabar *perreoaren* iraultza muntatzen ari den bitartean, Dupla edo Kai Nakai artisten bitartez? Unai Elorriagak geroz eta liburu hobegoak idazten dituen bitartean, nora begira gaude? Ixiar Rozasen pieza sonoroari belarria jarri diegu? Konturatzen gara Gartxot Un-sainen *cover*-ek (horrela esaten zaie orain kantuen bertsioei) erakusten dutena kultura birziklapenez eta *homemade* musika produkzio profesionalaz? Euskal zinegileek aurrekontu barregarriekin mirariak egiten dituztenean, zergatik begiratzen dugu atzamarra, ilargia mespretxatuz?

Has gaitezen hortik, bada.

Kolosoaren teoriaren kontra

Vicente Ameztoik, Jose Luis Zumetak eta Carlos Zabalak 1980an elkarlanean sortutako 'Lemoiz gelditu' mural erraldoiari eta haren tes-tuinguruari areto bat eskaini dio Bilboko Arte Ederren Museoa.
Iñigo Astiz (Berria, 2020-11-10)

2020ko apirilaren 23an, Zumetaren heriotza zela-eta, aztoratu egin ninduen txio hau idatzi zuen Irati Jimenez idazleak:

Badoaz xx. mendeko kolosoak eta, momentuz, ez dugu haien antzekorik, ez ordezkorik. Aresti, Oteiza, Krutwig, Monzon, Etxebarrieta, Artze, Laboa, Txillardegi, zenbat mirari, zenbat zor iraganarekin, amildegian geundenean sortu ziren titanekin. Zumeta hil da, bere koloreak ez.

Nik oso kontuan hartzen dut Iratiren buru pribilegiatutik ateratzen den gauza oro, eta hainbat egunez txioari darion fatalismoaz blaitu nintzen ni ere. Hortxe gure dekadentziaren hamaikagarren zeinua, pentsatu nuen, ez esan ezetz, ez esan ezetz... Euskal kultura pikutara doa epe ertainean, xx. mendeko koloso horiek erreleborik ez badute.

Baina gero kolpea eman behar izan nuen mahai gainean. Ez! xx. mendearekiko gure duelu luze honi amaiera eman behar diogu behingoz. xx. mendea esan dut? Are XIX. mendea ere esan nezakeen! Nahikoa da. Begiratu diezaiogun gauzei beste modu batez, uler dezagun behingoz mundua aldatu dela.

XIX. mendearen lehen erdian famatu zen, hain zuzen ere, 'Gizon Handiaren Teoria'. Horren arabera, historiak aurrera egingo luke aparteko gizon gutxi batzuen jardunagatik: Perikles, Kristobal Kolon, Napoleon, Karl Marx... Horiei esker mugitzen zen mundua, beren talentu, ausardia,

Ze ezagutza dugu, eta zer-nolako estimua geure sormen lanekiko? Zertan ari gara gu arabar *perreoaren* iraultza muntatzen ari den bitartean, Dupla edo Kai Nakai artisten bitartez?

inteligentzia apartagatik. Teoria famatu arren, berehala iritsi zitzaizkion kritikak: gizon horien jarduna ezin da ulertu jaino, hazi eta bizi duten gizarteari begiratu gabe. Aparteko talentu, ausardia eta inteligentzia izango zuten gizon horiek, ados, baina haiek garatzeko bidea eman zien gizarte batean jaino ziren, ozeanoaren alde egokian, historiako garai zehatzean, azal kolore onargarri eta hankarte aproposarekin. Badakizue zergatik iritsi zen Bill Gates munduko gizonik aberatsena izatera? Bere talentu, ausardia eta inteligentzia apartagatik? Ez, ozeanoaren alde egokian, historiako garai zehatzean, azal kolore onargarri eta hankarte aproposarekin jaiotzeaz gain, bilera batera iristen lehenengoa izan zelako.⁵

Gizon Handiaren Teoria guztiz azientifikoa den arren, apur bat itsututa gaitu oraindik, eta horrela gabiltza, salbatuko gaituzten heroien esperoan. Sentitzen dut hau horrela esan beharra: ez da heroirik etorriko. Podiuma hutsik dago, ados, baina orain podium hori eraitsi beharko genuke betiko. Podiumaren ideia bera errefusatu.

Podiumak baztertzailak dira. Gutxi batzuk sartzen dira hor goian, eta beren itzalek behean geratzen diren hamaika-txo izaki ilunpetara kondentzen dituzte betiko.

Podiumak inestableak dira. Garaian garaiko sorkuntzak, itsutu egiten gaituztenak eta agian etorkizunetik atzera begiratzen dugunean lotsaraziko gaituztenak. Ikusi bestela ze azkar erori den Plácido Domingo bere podiumetik gizonen jarrera jazarleak modaz pasatzen hasi diren honetan.

Podiumek bizitzaren ikuspegi binarioa bultzatzen dute: zu bai, zu ez.

Podiumak alferrentzako dira. Kontsokratu artista gutxi horiei jaramon egin eta ez dut inoiz gauza berrietan fijatu beharko.

Podiumak pertsonentzat diseinatuta daude, eta ez pelikula, ipuin, antzezlan, bideoklip edo kantuentzat. Eta zer da interesgarriagoa? Obra edo sortzailea? Nik argi daukat, sortzaile asko ezagutu eta gero.

Podiumak, finean, ez daude eginda nik nahi dudana mundurako.

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

*Bere ohera nahi badezu joan
Jarraitu jolasten eta nik jokoan
Kalean hirurok ikusterakoan
Hirukian nor dago erdian eta nor zokoan?
Kai Nakai, Ez dakit*

Askotan esan da, idazlearen figurak prestigioa galdu zuenean, orduan izan zutela emakumeek sarbidea mundu horretara. Eta nik diot: zorionez! Ba al dago idazle prestigiotsuaren figura baino gauza aspergarriagorik? Bere ile urdinuarekin gela batean sartu eta isiltasuna sorrarazten duen horietako bat, tribunara igo eta bere homiliari ekiten diona. Ez, ez eta ez, xx. mendeko gauzak dira horiek. Pikutara prestigiozko figurak.

Orduan zer? Denak balio du? Kalitateak ez du inporta? Ezin da esan zer dagoen gaizki eta zer ondo? Zerk merezi duen eta zerk ez?

Ez diot hori. Mirets ditzagun merezi duten gure sortzaileen lanak, bai. Goza ditzagun, zabal ditzagun, harro hitz egin dezagun, inspira gaitezen. Eta har ditzagun kritikarien iritziak aintzat, hori ere bai. Gehiago esango dut: kritika sendo eta profesional bat sostengatzeko moduko gizartea bihur gaitezen behingoz. Baina ez dezagun inor podium batean igo. Jar ditzagun baldintzak, gizarte bezala, sortzaileek ahalik eta baldintza hoberenetan egin dezaten lan, aukera izan dezaten beren potentzial guztia garatzeko. Hala egiten badugu, konturatu gara ez direla koloso gutxi batzuk loratuko, iluntasun orokor batean ustekabeko txinpartak, edo Iratik zioen moduan «amildegian geundenean» salbatu gintuztenak, aitzitik, hamaika izango direla gure maitasuna mereziko dutenak, han eta hemen, jarraitutasunarekin, transmisio egokiarekin, eta ez garelako egongo amildegian orduan.

Brigitte Vasallo idazle eta aktibistak monogamiaren muina zein den erakutsi digu: ez da sexu-esklusibitatea, hierarkia da. Harreman mota bat –monogamoa eta heterosexuala, ugalketara bideratua– beste guztiaren gainera jartzea. Sistema

horretan, beste edozein hartu-eman edo afektu sare bigarren mailakoa suertatuko da, momentua iritsiz gero sakrifikatu beharrekoa harreman nagusiaren mesedetan.

Automaitasuna aldarrikatu dut aurreko puntu batean. Po-
limaitasuna ere gehitu nahiko nioke aldarri horri orain. Ha-
rreman berri bat geure kulturarekiko: afektuen sare zabal eta
irekiagoa, podiumeko figurarik gabe, aurreiritzietan iltzatuta
geratu gabe beti esna eta beti adi egotera bultzatuko gaitue-
na. Boterea banatuz eta gozamina biderkatuz.

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan. 🍷

Oharrak

1. *Kulturaren Euskal Behatokia: COVID-19aren eragina EAeko kultur sekto-
rean*([www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_covid_era-
gina_kutursektore/eu_def/adjuntos/covid-19arean-eragina-eaeko-
kultur-sektorean.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_covid_era-
gina_kutursektore/eu_def/adjuntos/covid-19arean-eragina-eaeko-
kultur-sektorean.pdf)).
2. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitu nahi
izan du Lanbideren kulturako profesionalentzako laguntzak irizpide
zehatzetan oinarrituta esleituko direla, eta ez zozketa bidez ([www.irekia.
euskadi.eus/eu/news/61703](http://www.irekia.
euskadi.eus/eu/news/61703)).
3. Artikulu hau amaitzen ari naizen egunean estreinatzen da *Altsasu*. Ez
dut ikusteko aukera izan, beraz, eta baliteke asmo artistiko altuko tele-
saila izatea hori ere. Barkatu.
4. Azken txio hau ez dut guztiz ulertu, baina grazia handia egin dit.
5. Ez da broma, ezta esajerazioa ere. Begiratu Linda McQuaig eta Neil
Brooksen *The Trouble with Billionaires. How The Super-Rich Hijacked
The World (and How We Can Take It Back)* liburuaren 5. kapitulua.

Alberto Barandiaran Amillano

Sortuz ta sortuz bizitzen gera

Artea minuskulaz

Esku artean daukat Oskar Alegriaren *Artearen historia minuskuluaz* karta jokoa. Kutxatxo txiki bat da, azalean hirusta zuri bat daukana hondo gorriaren gainean. Barruan berrogeita hamar karta daude, lehen begiradan argazki solte lotura gabeak: leiho baten atzetik, erreze-la; soineko baten detailea, kale erdian; argi jokoa zeru ilunean; koxka pareta hutsean; laino artean zaldia. Egileak han eta hemen pausatutako begirada pertsonalak direla ondoriozta liteke, baina berehala ohartzen da bat irudiak lotuta daudela karten atzealdean ageri diren eskultorearen, pintorearen, margolariaren, arkitektoaren, jostunaren obrarekin.

Autore ezagunak dira, gutxi asko, gehienak, baina ariketa estilistikoki polita da antzematea Oskarrek zer nola lotu dituen artistak eta argazkiak. Kandinskiren koloretasuna errelatzen da harlauzetan barreiatutako konfetieta; Marcel Duchamp da, nola ez, pareta batean norbaitek abandonatutako txirrikaren atzean dagoen egilea; Jorge Oteiza sujeritzen digute Iruñeko Parte Zaharreko karrika ezagunean utzitako kartoizko kutxa horiek; Esther Ferrerren ikonoklasia irudikatzen du errepideari begira geratu den aulki hondorik gabeak. Ezagunak dira egileetako asko, bai, baina argazkiekiko lotura ez da beti ebidentea. Joko bat da, eta Alegriaren begirada ulertzea exijitzen digu erantzunak. Asmatzen denean, irri

bat ateratzen digu karta bakoitzak. Labirinto estetikoaren pasahitz sekretua deskubritu bagenu bezala. Argazki huts eta sotilak esanahiez betetzen dituzte, orduan, Victor Ericcek, Eduardo Txillidak, Juan Luis Morazak, Andrei Tarkovskik, William Turnerrek. Alegriak dioen bezala:

Gakoa beti keinua harrapatzean dago, eternitatearen aztarna txiki horiekin artearen historia minuskuluaz idazteko, nork bere begiradarekin. Vermeer! Courbet! Proust! Denak bere harridura markarekin utzita paisaian, eta guztien hondarrean, Brancusi!, harrapatzeko zailena, txori baten hegaldia bezain libre.

Askatasun hori da miresgarria Oskar Alegriarengan. Konfort eremutik atera –eraikitzen ari den eta erreferente izatera iritsiko den zinema jaialdi aitzindari bat, esaterako– eta eremu berriak esploratzeari itxuraz beldurrik ez izatea –bi hilabetez dena utzi eta erreka bazter batean bizitzen jartzea dokumental ero bat grabatzeko–. Ez du hori bakarrik miresgarria, ezpada hori ere bai.

Kitatze intimoak

Oskar Alegriak erreka bazter batean txabola jarri eta bi hilabetez mundu paralelo eta bazterreko baten bizitza grabatzen jarri zeneko dokumentala estreinatu zuenean Iruñean, oraindik ez zen COVIDik gure artean. Birusak ez zuen oraindik gure mundua erabat irauli, ez zen artean gure barreneraino sartu.

Egun oso bat iraun zuen *Zumiriki* dokumentalaren estreinaldiak. Eguerdian hasi zen, ehundik gora lagun autobus geltoki zaharrean elkartu zirenean, eta gaua despeditu zenean amaitu zen, tartean bazkari luze eta jendetsua; dokumentalaren proiektzioa bera; ilundu aurreko berriketak; afari lagunartekoa eta taberna arteko trago luzeak. Munduak mundu izaten jarraitzen zuen oraindik filma Iruñeko Baluartean estreinatu zenean, Ikuspuntu dokumental jaialdiaren barruan. Argazkiak daude eta lekukoak ditugu: gu han ginen.

Ia premonizio bat izan zen Oskar Alegriaren lan hori, aurkeztu baitzigun irauteko eta bizitzeko modu utopiko eta irreal, esperimentu baten errelatua. Jende askorentzat horixe izan omen da pandemia: amestu ere egiten ez genuen egoera baten erdian espazio ahaztuak deskubritzeko modu bat, zirrikitu zaharretatik begirada berriak pausatzeko aukera bat. Batzuek aprobe txatu omen dute kontu zahar batzuk behingoz kitatzeko: liburutegiarekin, musikatekarekin, norbere buruarekin. Baina kitatze guztiek epe bat dute. Ezin da asko luzatu, bestela bortitza izan daitekeelako kontu eskea.

Sormen digitala

Horixe, mundu intimoaren barrenean murgildu eta esploratzea da Nafarroan martxan jarri den sormena lantzeko proiektu berriaren oinarria. Ez dakit aitzindaria esan behar den, aurreko askok egindako gogoeten ondorioa delako *Sormen digitala* egitasmoa, baina egia da bide orain arte esploratu gabe samarra zabaldu duela euskarazko irakaskuntzan.

Zer egin euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko? Horixe abiapuntuko galdera. Buelta asko eman dio jende askok urte askoan, baina horixe geuk ere pausatu nahi izan genuen galdera. Eta pentsatu genuen: nola iritsiko dira Nafarroako gazteak, euskaraz ikasten ari diren 14-18 urteko neska-mutiko horiek, euskal kulturara, hainbat ebaluaziotan derrigorrez irakurri behar dituzten liburu kanonikoen edo, behintzat, zerrendatuen istorioen bidez ez ezik? Zerekin lotuko ditugu gazteak eta euskal sortzaileen ekoizpenak? Nola ziurtatuko dugu euskal musika,

Mundu intimoaren barrenean murgildu eta esploratzea da Nafarroan martxan jarri den sormena lantzeko *Sormen digitala* proiektu berriaren oinarria. Bide orain arte esploratu gabe samarra zabaldu du euskarazko irakaskuntzan

dantza, literatura edo arte plastikoak ezagutu ez ezik, estimatuko dituztela, ulertuko dutela hor atzean dagoen motibazioa eta asmo estetikoa?

Pedagogo askok azpimarratutako bidetik jotzea erabaki genuen: jar ditzagun sortzen, pentsatu genuen. Baina, lehendabizi, entzun ditzagun. Galde diezaiegun zerekin esperimentatuko luketen, zer irauliko luketen, zer oihukatuko zuten, nola erakutsiko luketen haserrea edo poza. Diseinatu genituen lau tailer, beti euskal kulturatik abiatuta, eta tailer horien esperimentazio lan askeak asmatu genituen: kanta ezagun batetik abiatuta, egin ezazue bertsi bat, esan genien; inguruko artista baten lan plastikoa oinarri hartuta, obra ezazue poema bat, proposatu genien; testu horrek sortzen dizuen emozioa langai, osa ezazue koreografia bat, poema bat, instalazio bat, egin ezazue flash bat eta grabatu dena, esan genien. Grabatu dena, eta grabazio horiekin egingo dugu gero aldizkari digital bat, zuen artean konpartitzeko, sakelakoan ikusteko eta lagunei erakusteko. Zuek izango zarete protagonista, zuena izango da emaitza. Zuen sormen lana izango da baloratuko eta erakutsiko dena.

Pedagogo askok azpimarratu duten sormenaren balio pedagogiko horretantxe jarri genuen begirada, eta begirada hori baietsi zigun Oskarrek berak, galdetu genionean: «Zuk nola landuko zenuke sormena ikasgelan, nerabeen artean?». Galdera motz horri 27 orriko txosten zirtolari, haizetsu, burrunbatsu eta distiratsu batekin erantzun zigun, hamaika proposamen, iradokizun eta keinu zoragarriekin. Berdin Oier Zuñigak, Leire Urbeltzek edo Ines Osinagak ere. Denak gogo biziz sartu ziren proiektuan eta, horiei esker, Nafarroako zazpi ikastetxetan, hilabete hauetan, ia 400 ikasle euskal kulturarekin eta euskal sortzaileekin esperimentatzen ari dira, haien begiradaren iragazkitik pasa eta esan nahi duten horixe esan ahal izateko. Ideia eta intuizio batetik abiatu zenari neurria jartzeko baliagarria izan zen Hezkuntza Departamentuko arduradun erdaldun bati aurkeztu eta hark, inbidia puntu batez, itzuli zigun galdera: «Eta hau, bakarrik euskaraz?».

Beharko da baloratu, beharko da hobetu, beharko da zabaldu, beharko da orokortu eta zeharkako egin; baina, Lekarozko Institutuan irakasle batek esan zigunarekin bakarrik, jada ondo merezia da egindako inbertsio guztia. Esan zigun:

Proposamen berri honen inguruan bildu dira ohiko irakasgaiekin moldakaitz ibiltzen diren neska-mutiko batzuk, hezkuntza arautuak batzuetan jartzen dituen inbutuetatik pasatzeko zailtasunak dituztenak. Eta aske sentitu direnean, zer egin nahi duten galdetu diegunean, beste pertsona batzuk agertu dira, beste gogo eta ikasteko intentziorekin. Ustekabe ederra izan da.

Bakarrik horregatik, berez beste diziplinetan estu eta kartaturik sentitzen diren gazteak gogotsu eta ekimenez beteta euskaratik eta euskaraz pizteagatik, merezi izan du.

Beharko dugu gazteak erakarri eta limurtu. Beharko dugu dena, inork ez dakielako oso ondo nola aterako garen hemendik. Nolako kalteekin, esan nahi baita. Kulturalki, diot. Hori tokatzen da orain, hemen.

Pla, Manel eta Anari

Sormena gazteen artean pizteko proiektua Oskarrekin konpartitu eta bere entusiasmoak beste bultzada bat eman zigunean –«gustura parte hartuko nuke nik ez irakasle, baizik ikasle!!»–, *Zumiriki* estreinatu zen egun hartan bertan, birusa bazen gure artean. Aurrerago jakin genuen, laster etorri zelako deskalabrua. Huskeria irudituko zaio bati baino gehiagori, fribolitatea ere bai akaso, baina, niretzat, larritasuna iritsi zen bi kontzertu bata bestearen atzetik bertan behera geratuko zirela iragarri zigutenean. Albert Pla eta Manel, Manel eta Albert Pla, biak elkarren segidan hurbiltzekoak ziren Iruñera, eta, agertokiak berreskuratzeko asmo sendoa genuenez –«goazen agenda kulturala berreskuratzera, denbora gehiegi pasa dugu-eta taberna zuloetan, edo etxeko mantapean ha maikagarren seriearekin aspertzen, edo ordenagailu aurrean inoiz iritsiko ez den testu bikainaren bila eta bila etsi arte»–, ebento handien aiduru ginen.

Irudi luke musikak galdu duen protagonismo eta ikusgarritasuna antzerkiak eta zinemak irabazi dutela. Konfinamendu/ez-konfinamendu garai gogorretan ere, neurrian nahiko beteta egon dira antzokiak eta zinema aretoak

Manel eta Albert Pla. Ilusioa genuen pop atseginarekin belarriak gozatzeko. Ikusmina genuen Plaren irreberentziak berriro harrituko gintuen konprobatzeko.

Baina aste berean iritsi zen bi kontzertuak bertan behera geratzen zirelako abisua. Dena bata bestearen atzetik eroriko zela ohartu ginen.

Zirrara bera baina hain zuzen ere alderantzizkoa sentitu genuen Anarik Iruñeko Takoneran kontzertua eman zuen egunean, udazkenaren hasieran. Orduan iruditu zitzaigun dena bata bestearen atzetik jai-kiko zela berriro, hasiera bes-

terik ez zela. Giro hotza zen egun hartan, baina argi. Lorategi erromantikoaren zuhaitz garaien arteko erdiko pasealekuan, plastikozko aulki txurietan eserita ginela, Ezkabaren soslaia marrazten zen agertokiaren atzetik, eta eguzkia jartzen ari zen Anariren gitarra lehorrak lehen akordeak jo zituenean. Bazirudien eten bat zegoela, hasiko ginela berriz plazak okupatzen... Baina ez. Ez zen dena bata bestearen atzetik berriz martxan jarri. Ez zen, egiazki, ezer irauli, ez genion buelta eman. Makurtuta jarraitzen dugu, eta ez dakigu noiz arte.

Baina, gauzak zer diren, irudi luke musikak galdu duen protagonismo eta ikusgarritasuna antzerkiak eta zinemak irabazi dutela. Konfinamendu/ez-konfinamendu garai gogorretan ere, neurrian nahiko beteta egon dira antzokiak eta zinema aretoak, baita taberna guztiak eta areto nagusiak itxita zeudenean ere. Ikusgarriago bilakatu dira agertokiak. Esanguratsua litzateke COVIDik ez balego ere. Jauzia bereziki azpimarragarria da hain zuzen ere COVIDa dagoelako. Isiltasunean gozatzen diren diziplinen buru altxatze horren atzean esango nuke badagoela geure baitara itzultzeko kontu horretatik zerbait.

Bernardine eta Antony

Aurten irakurritakoaren artean, liburu bat: Bernardine Evaristoren *Niña, mujer, otras* (*Girl, Woman, Other* jatorrizkoan), narrazio koral, arrazial, burrunbatsu eta ortzadar kolorekoa. Eta entzundakoaren artean, Antony and the Johnsonsen diskografia. Seguru nago denok izango ditugula itzaltze garai honekin lotuko ditugun ahotsak eta musikak, gazte garaiko ikasle etxeetan behin eta berriz biratzen genuen kasetearen ahotsak eta musikak garai hartara eramaten gaituzten bezala (oroit The Pretenders edo Stiff Little Fingers).

Agian emakumeek idatzi ahalko genuke munduaz

Ikusgarria da literaturan gertatzen ari den hegemonia aldaketa. Eta hegemonia aldaketak ez dira beti ez errazak, ez zauririk gabekoak. Sumatzen dut idazle gizonezkoengan errezelo isil bat Eider Rodriguez, Uxue Alberdi, Katixa Agirre, Karmele Jaio eta beste batzuen arrakasta dela eta. Alberdik esan berri du feminismoaz hitz egin duenean edo euskal gatazkaz hitz egin duenean onartutzat sentitu dela, baina, *Dendaostekoak* lanarekin, ordea, berriro sumatu duela «mesfidantza maskulinoa». Eta, horren frogagarri, entzun behar izan dituen kalifikatiboak, mesfidantza hori adierazten omen dutenak: «kronika sentimentala», «literatura intimista», «omenaldi pertsonala». Euskadi Sarien emanaldian esaldi terriblea bota zuen: «Gizonak honi buruz [emakumeen kontrako bortizkeriari buruz] idazten jarriko balira, agian emakumeek idatzi ahalko genuke munduaz».

Gehiago eta arreta handiagoz entzun beharko genuke emakumeek, hitz egiten dutenean, esateko dutena. Gehiago entzun eta gehiago ulertzen saiatu beharko genuke. Egiten ari diren memoria harilkatze saiakera azken urteotako mugimendurik interesgarriena iruditzen zait, mugimendu indartsuena eta biziena. Kulturaren ikuspegitik ere bai.

Gustura ikusiko nuke egoera berriaren kontaduria eta no-taritzat lanak egiten Joan Mari Torrealdai. 🍷

Ezpata dantzatik soka dantzara

Gogoan dut, urte batzuk pasatu diren arren, Juan Antonio Urbeltz luze eta zabal, pasioz, bere azken ikerketen azalpen zehatzak ematen jardun zitzaigunekoa. Ezpata dantzen sinbologiaz ziharduen, eta jatorrian nekazaritza gizarteak izurriteak aldentzeko egiten zituen errituak direla azpimarratu. Txunditu ninduten azalpenek, berrikuntzak eta ausardiak. Hausnarrean nabil egunotan, gure dantza jardunaz, ezpatez, bestelako dantza soinuez...

2020 urtea. Ez dago kulturaz, aeronautikaz, nekazaritzaz, burtsaz, osasunaz edota hezkuntzaz hitz egiterik, COVID-19aren eragina eta ondorioak aipatu gabe. Dena blaitu baitu izurriteak. Urteroko azterketa eta diagnosietan inor gutxik espero zezakeen aldagaia gurutzatu zaigu eta hankaz gora jarri ditu, neurri batean behintzat, gure kasuan, liburugintzaz egin genitzakeen irakurketa eta proiektzioak.

Pandemiak zenbateraino eragingo gaituen ikuskizun dago; momentuz, ziurgabetasuna da nagusi, inoiz baino zaurgarriago sentiarazi gaitu, erabakiak zaildu dizkigu eta, batez ere, lehendik ezagunak genituen ezinak eta ahultasunak areagotu baizik ez ditu egin, beste hainbat arlotan gertatu den bezala.

Martxoko konfinamenduak hankaz gora jarri zituen udaberriko argitalpen planak, di-da batean ohitu behar izan genuen bilera eta aurkezpen telematikoetara, ohi eta nahi baino

beranduago iritsi ziren liburu berriak liburu dendetara, baina iritsi ziren, eta euskarazkoak, tantaka, baita erakusleihoetara ere. Zailtasunak zailtasun, lanean jarraitu dugu sortzaile, ilustratzaile, editore, diseinatzaile, sustatzaile eta, oro har, lantaldeak bere osotasunean.

Udaberriko esperientzia baliagarria izan da udazkenari heltzeko, eta egokitzapenak egokitzapen, intuizioa da urte hasierako ekoizpen aurreikuspenak neurri handi batean bete egin direla; sortzaileek zein argitaletxeek ia orobat eutsi diote urteko ekoizpen emariari. Aurrerago, azterketak eskuan, besteren artean Jakinek urtero egin ohi duen euskal liburugintzaren azterketa xehea eta zehatza, analisisetan sakontzeko heldulekuak izango ditugu, baina edizio-planei eusteak zerbait esan nahi du. Hego Euskal Herrian, kasurik onenean, liburu dendetara iristen diren liburu berrietatik euskarazkoak ehunetik bi baino ez diren garaiotan (ehuneko txikiagoan oraindik Ipar Euskal Herrian), bada, atzera ez egiteko, kulturazaleari uzta emateko determinazioa ikusi eta ondorioztatu liteke sortzaile eta argitaletxeen aldetik. Aitortza merezi du ahaleginak, nahiz eta badakigun, jakin, aspalditik, euskal liburugintzaren ahuleziak eta beharrak betetzeko (euskal kulturarenak berdin), batzuen arrisku eta ekinaz harago, bestelako neurriak behar direla.

Krisi guztietan irekitzen da aldaketarako aukera bat. Mundu mailakoa, globala den krisi honek, zeinak gizarte eredu honen desorekak eta alderdi zaugarrienak agerian utzi dituen, auzi ezberdinen gaineko eztabaidak ireki eta irekiko ditu bai mundu mailan, bai hurbileko komunitateetan. Kulturatik eta, kasu, liburugintzatik ere, abagunea baliatu behar genuke, orain arteko jarduna berrikusteko eta etorkizuneko erronkei erantzunak emateko.

Berrikuste horretan, irudi du orain arteko diagnosiek eta azken urteotan identifikatuta ditugun hutsuneek bere horretan dirautela. Gakoa, beraz, emango diegun erantzunean dago; hor beharko ditugu berrikuntzak eta norabide aldaketak, eta nago ezpata dantzaren soinuak jada ez digula askorako balio.

Saretzeaz

Aspaldi hitz egin zigun Joan Mari Torrealdaik argitaldarien atomizazioaz euskal liburugintzari buruzko urteroko azterketan. 330 argialetxe inguru, bertako argialetxe pribatuak, kanpoko argialetxeak, argitalpen publikoa eta askotariko elkarteak kontuan hartuta. Aniztasuna berez aberatsa izan badaiteke ere, kontua da argazki horren atzean euskal kulturarekiko kezka duten argitaldari gehienak egituraz txikiak eta baliabidez mugatuak direla guztiz. Liburugintzaren (eta kulturagintzaren) beste ertz batzuetan dihardutenei halatsu gertatzen zaie: sortzaileak, itzultzaileak, irakurzaletasuna sustatzea helburu duten erakunde/elkartek, aisialdiko elkarteak, ikastetxeak, liburu dendak... Nahikoa du bakoitzak egunerokotasunari eusten. Kontua da, urteak joan eta urteak etorri eusten eta indarge dagoen sektorea izurrite batek jotzen duenean, goitik behera eror litekeela urtetan ez neke gutxirekin eraikitakoa. Horretarako behar dugu elkarren arteko saretze iraunkor bat. Energia gehiegi xahutzen dugu frankotiratzaile gisara jardunda. Norabide bateratu bat adostu eta ekimenak josiko bagenitu, ezagutzak partekatu eta baliabideak optimizatu, beste gihar batekin harrapatuko gintuzke enbatak.

Izurritearen eraginez, etxealditik atera berritan ezagutu genuen, EEEk, Galtzagorri Elkarteak, EIZIEk, Euskal Idazleen Elkarteak eta Editargik sinatuta, egoeraren diagnosis eta sektorea berpizteko neurri pizgarriak proposatzen zituen dokumentua. Urrats interesgarria, zalantzarik gabe, eragile-tzan ez ezik saretze bidean aurrera egiteko.

Krisi guztietan irekitzen da aldaketarako aukera bat. Kulturatik eta liburugintzatik ere, abagunea baliatu behar genuke, orain arteko jarduna berrikusteko eta etorkizuneko erronkei erantzunak emateko

Baina ez gaitzen engaina, norabidea adostu eta saretze estrategia eraikitzeke ezinbestekoak diren buru-argirik, denborarik eta baliabiderik gabe nekez emango dugu bestelako urratsik. Ez da nahikoa *egin behar da* esatea; sarea artikulatzeko bisiorik eta baliabiderik ez badago, borondate hutsetik konturatu orduko urtzen dira ekimenak.

Saretzea zabalduko bagenu?

Liburugintza sektorea, ezagutzen ditugun gainerako sektoreak bezala, ez da sistema beregain bat; horrexegatik, ezinbestean bilatu eta josi behar ditu beste sistema batzuekiko konplizitateak eta aliantzak. Komunikabideak eta hezkuntza (adierarik zabalenean) dira unibertso horretan hurbileneakoak. Elkar elikatzen duten sistemak direla ulertuta, funtsezkoa da, arestian liburugintzaz esan dugun bezala, horiek ere gihartsuak izatea. Euskal komunikazio sistema sendo baten premiaz hitz egin digu behin baino gehiagotan Josu Amezagak. Eta bai, euskal liburugintzak eta kulturak ere behar du euskal komunikazio sistema osasuntsu eta gaurkotu bat gertu, bidelagun eta konplize. Halatsu, euskal komunikazio sistemak ere, bere funtzioa beteko badu, behar du kulturatik elikatu, kultura definitu, iragazi eta zabaldu. Osotasun baten parte garelako ulertzeak lagunduko liguke osagarritasuna bilatzen, zerbitzura egoteak berez dakarren menpekotasun logikatik atera eta berdinen arteko harremanak eraikitzen, baliabideak optimizatzen, eta, horrela, urrutirago eta ozenago iristen. Baina lehenago ere esan dugu: bisioa ez ezik, baliabideak ere beharko ditugu horretarako.

Hurbileko sistema bat baino askoz gehiago da liburugintza-erentzat hezkuntza sistema, eta zer esanik ez hezkuntza bere adierarik zabalenean ulertzen badugu: aisialdian eta familia eremuan egiten den eta egin beharko litzatekeen kultur jarduna eta transmisioa ere hezkuntza sistemaren parte direla ulertuz. Baina zer saretze dago horien artean, zein dira lokarriak? Eta korapiloak?

Eusko Jaurlaritzak laurogeiko hamarkadan abian jarritako EIMA programaren diru laguntzak erabakigarriak izan ziren irakaskuntzaren euskalduntze prozesuan ezinbestekoak ziren ikasmaterialak eta metodologiak sortu, ekoitzi eta zabaltzeko. Hala ekin zioten bertako argitaletxeek ezerezetik funtzio estrategikoa betetzeari; lantaldeak osatu, arriskuak hartu eta ekin. Ia lau hamarkada ondoren, oso bestelakoa da argazkia, ikasmaterialen ekoizpenaren hiru laurden kanpoko argitaletxeek ekoizten baitute, euskal curriculuma ez diren beste curriculum batzuei jarraiki. Eta, hala, gero eta meharragoak diren EIMA programaren laguntzak ere estatu mailako argitaletxeen esku geratzen dira hein handi batean. Euskal curriculumaren garapenerako beharrezkoak diren edukiak eta tresnak bertako argitaletxeen eskutik soilik etorriko dira, etortzekotan. Izurritea baino lehenago ere argi gorriak piztuta geneuzkan arlo horretan, eta orain ez gaude hobeto, hezkuntzaren digitalizazioa itsumustuan ezarri den garaiotan, ekoizle multinazionalak sartu baitzaizkigu atoan, eskola eta etxeetako sistemetan.

Iazko urrian, *Sormenean hezi, kulturaren bizi* jardunaldien barruan, Iratxe Retolaza irakasle eta ikertzaileak hezkuntza arautuan kultur transmisioak duen pisuari eta lekuari buruzko diagnosia azaldu zigun. Aintzat hartzeko indarguneak agertu zituen, teorian egon badirelako, baina praktikan ezartzeko orduan, ahulguneak nagusi:

Ez da euskal kulturaren curriculuma zehaztu, garatu eta gauzatu. Lekuan lekuko herri-ekimen esanguratsu eta arrakastatsuak badaude ere, ez dago egitasmo orokor iraunkorrik; euskal kultura irakasteko material didaktiko eta baliabide adosturik ez da; Unibertsitateak irakaskuntzako profesionalak trebatzeko orduan, ez dago euskal kulturaren transmisioa bermaturik; hezkuntzako kultur eragileen arteko sare sendorik ez dago.

Argazki horrekin bat datorren errealitatea bizi dugu egunerokotasunean liburugintzatik hezkuntzarekiko harremanean: eskola liburutegiak ez dira kasik hornitzen, eta, sarritan, beste zereginetarako gela bilakatu dira, inondik ere ez

erreferentziazko eta asebetegarri den gune; ikastetxe askotan irakurketa planik ez dago, edo planak egin ahal izateko ba-

Beren jarduna herri baten identitatean eta garapenean ezinbestekoa delako, sortzaileei estatus berezi bat aitortzea eta abantaila fiskalak eta bestelakoak ematea, liburugintzako sektoretik bertatik eskatutako neurriak izan dira

liabideak eskas dira, eta sarriegitan irakurketa erreferentzia zaharkituak erabiltzen dira. Finean, ikasleak ez dira irakurketan ez trebatzen eta ezta zaletzen ere. Sistemak berak erantzun beharko dio auziari, arazoa ez baita urliaren edo berendiaren erantzukizun falta. Ezagutza metatua duten eta baliabidez hornituta dauden hezkuntza komunitateak izatean dago gakoa. Komunitate saretuak, aisialdiko eragile eta familia eremuekin osagarri di-

renak. Orobat, elkarren arteko lokarriak eta beste sistemekoak ondo estutuak. Baina nork egingo dio tenk sokari?

Ahalduntzea

Beren jarduna herri baten identitatean eta garapenean ezinbestekoa delako, sortzaileei estatus berezi bat aitortzea eta abantaila fiskalak eta bestelakoak ematea, liburugintzako sektoretik bertatik eskatutako neurriak izan dira. Aspaldiko aldarria, izurritearen eraginez ozenagotu dena. Kultur profesioen inguruko estatutu bat sortzeko asmoa adierazi du berriki Eusko Jaurlaritzak, sortzaileen lan baldintzetan eta profesionalizazioan sakontzeko. Eskaria eta eskaintza bat etorrita, luze gabe gorpuztu beharko litzateke, behin borondatea adierazita, presazko tramitazio administratiboa aplikatuz. Herren jarraituko dugu, ordea, Euskal Autonomia Erkidegora mugatutako estatusa bada; Euskal Herri osoko sortzaileak bere baitan bilduko dituen estatutuak soilik asebeteko gaitu.

Profesionalizazioan sakontzeak estatus juridiko aitortua eta gutxieneko lan-baldintzak behar lituzke oinarrian, baina premiak harago doaz. Liburugintzan diharduten askotariko profesionalei, afizioa ez ezik ofizioa garatu dezaten, eskarmentudunen transmisioa eta etengabe janzteko eta formatzeko aukera eskaini behar zaie. Badira, aitor dezagun, maila akademikoan sorkuntza eta transmisioari lotutako jardun bakan batzuk, baina akademiak ez dio modu sistematizatu batean askotariko premiari erantzuten; hala, liburugintzaren katebegi batzuetan, umezurtz gaude guztiz, edizio gintzan, ekoizpenean, sustapenean..., ezen hizkuntzaren aldagaia aintzat hartzen ez duten formazio-lerroak eta ikerketak erdiak ustel dira guretzat.

Ikerketa aplikatua

Azken hamarkadetan hitzetik hortzera erabili den I+G+B delakoak (Ikerketa zientifikoa, Garapen teknologikoa, Berrikuntza), kurioski, oso leku txikia hartu du euskal liburugintzaren baitako debateetan, eta zer esanik ez praktiketan (berdin kultur gintzan). Urruti gelditu zaizkigu garapen teknologikoa, ekonomikoa eta enpresariala lehenesten zituzten politikak, eta apenas bultzatu da gizarte zientziei lotutako ikerketarik, eta are gutxiago ikerketa hori garapen eta berrikuntza sozialetara aplikaturiko lan-lerrorik.

Digitalizaziora mugatu da sarriegitan garapena eta berrikuntza; herri-administrazioek ere hor kokatu dituzte etorkizuneko erronkak, baita kultur gintzan ere. XXI. mendean ez dago bide horri uko egiterik, eta ez diogu izkin egin nahi, gainera. Jabetu gaitezen, ordea, digitalizazioa PDF bat egitetik haragoko praktika gisara ulertzen badugu, eta hala ulertzen dugu, inbertsio publiko oso esanguratsuak beharko ditugula, inbertsio pribatuak ezin diolako aurre egin garapen jasoak eta iraunkorrak eskatzen dituen finantzaketari. Presazko auzia da, egunez egun ikusten ari garelako, hezkuntza arloan bereziki baina ez bakarrik, euskal curriculumaren garapenetik

oso urruti dauden eta horrekiko inolako kezkarik ez duten eragile teknologiko-editorialak ari direla merkatu globalizatu eta homogeneousatuaren logikak eta edukiak gurean txertatzen.

Eta hori bezain presazkoa da, arestian esan dugunez, ikerketa gizarte zientziei lotutako esparruetara zabaltzea. Ikerketa eta, eskuz esku, egungo hutsuneei erantzungo dien berrikuntza eta garapen praktikak. Literaturaren didaktika, kritika, teknologia baliabideen erabileraren ondorioak, irakurzale-tasun planen nolakotasuna, kultura eta komunitatea/norbanakoaren ongizatearen arteko loturak... Askok luza liteke zerrenda. Auzi garrantzitsuegiak ahanzturan betiketzeko.

Finantzaketa

Liburugintzaren finantziazioan, inbertsio publikoaren (eta pribatuaren) zenbatekoa eta zertarakoa aztertzeko baliatu behar dugu une historikoa. Izurrite honek utziko duen testuinguru berrian, erronkei aurre egiteko beharko ditugun finantziario irizpideak eta politikak zehazteko une aproposa da.

Liburugintza sektoreak beharko dituen partikularitateak, baina, eztabaida zabalago batean kokatu behar ditugu, kulturak herri erakundeen aurrekontuetan izan behar duen pisuari buruzko eztabaidan, hain zuzen. Kulturaren inbertitzea ongizatean eta justizia sozialean inbertitzea da. Azken hilabeteetan ikusi dugunez, norbanako eta komunitate bezala, artean eta kulturaren hartu dugu babesa unerik zaurgarrietan; arteak elikatu, lasaitu eta piztu gaitu. Areago, gizarte justu eta osasuntsu baten eraikuntzan ezinbestekoak diren norbanako kritikoei eta jantziek kulturatik edaten dutela ikusi dugu. Hartara, ez dago norbanako eta entitate batzuen biziraupena soilik jokoan, askoz sakonagoa da auzia.

Hari horretatik tiraka berrartu behar dugu liburugintza sektorearen finantziario eztabaida. Nori eta zein estrategiari jarraiki banatzen diren baliabide publikoak, nola eta zenbatean laguntzen eta bultzatzen den sorkuntza, ekoizpena, ondarea, zabalkundea, sustapena, zaletasuna eta saretzea.

Badago non eta zeri hautsa kendu, eta behin irizpideak gaurkotuta, sektorearen eta herri-administrazioen arteko misio konpartitua adosteko eta horri bide emango dion baliabideak zehazteko unea da, ausart eta arduraz.

Plaza

Urteko uzta bere osotasunean erakutsi eta saltzeko plaza nagusia, Durangoko Azoka, ezinbestean eraldatu zaigu aurten. Ondorioak ondorio, eutsi izana bera txalogarria da; baina denok desio dugu, zinez, aurtengoa salbuespena izatea eta datorren urtean bertan lehengoratzea. Desio ez ezik, askok eta askok behar dugu bost egun horiek suposatzen duten agertokia, finantziazio iturria, lagunartean beroa, komunitate dosia.

Aurtengo Azoka berrasmatze horretan, *Zu non, han DA!* egitasmoak azpimarra berezia merezi du. Lekuan lekuko plazak, lekuan lekuko liburu dendak dira liburugintzaren birrikak, horietan hartzen du liburuak arnasa urte guztian zehar. Iritsi ziren gainazal handiak eta Internet bidezko plataforma erraldoiak, eta min egin zieten auzoko, herriko, hiriko saltoki eta bilguneei. Ez dezagun ahaztu. Han, hemen, hor DAuden liburu denden eguneroko lana aitortzeko eta babesteko balio behar du Azokaren egitasmoak, eta, akaso, lehengoratzen garenean ere, geure egin eta segida emateko baliatu behar dugu. Hor dauka liburugintzak erronka handietako bat, lekuan lekuko liburu dendei bizirik eusteaz gain, tokiko eragileekin saretu eta plaza biziak bilakatzen. Itsu-mustuan antolatu behar izan da aurtengoa, lekuan lekuko liburu denda eta bestelako kultur/hezkuntza eragileen arteko ekimen osagarriak josteko aukera tarterik gabe. Zirrikitu bat ireki da, egin dezagun bidea.

XXI. mendeko izurriteei erantzuteko, ezpata dantza baino soka dantza eraginkorragoa delakoan nago. Plazei eutsi, borobilean elkarri eskua eman eta, soka dantzaren soinura, ehundu, saretu eta muturretako korapiloak gogor estutu, inork eta ezerk soka apurtu eta eten ez dezan. 🍷

Xabier Landabidea Urresti

2020ko Durangoko Azoka Immateriala

Sarrera: banbuak bezala

Durangoko Azokaren 55. edizioa nolakoa izango zen inork ezin izango zuen igarri edo iragarri ziurrenez. Digitaltasunak garrantzia hazkorra hartuko zuela pentsatzeko modukoa zen; bazeuden zeinu, seinale, zantzu eta arrastoak pantaila bidezko eta bat eta hutsezko bide 'berri' horiei etorkizuna iragarri ziezaieketenak... Baina 2020koa inork ez zuen espero. Ez nik behintzat.

Ia-ia bat-batean (urtearen zatirik handiena hartu digun *bat-bat* luze, gorabeheratsu eta agoniko samarra, hori ere esan beharra dago) ia erabat digitala bilakatu da Durangoko Azoka. Han-hemenka egon dira gutxi batzuentzako (kopuru absolutuekin harremanetan jarrita *oso gutxi* batzuentzako) ekitaldi 'analogikoak', baina gehien-gehienon aurtengo esperientzia digitala izan da erabat. Nork esango zigun. Nori esango genion.

Pentsatzekoa da giza historian eremu ezberdinetan eta sarri samar gertatu direla aldaketa handiak: denbora luzez astiro, eta, gero, itxura batean behintzat, bat-batean. Banbuak hazteko egiten omen duen bezala.

Egia da, noski, aurtengo egoera ez dela errepikatuko, hala espero dugu gehienok behintzat (egon egongo baita beharbada egungo egoerarekin pozik dagoenik). Baina pentsatzen dut 2020ak inauguratu egin duela Azokarentzat aro berri bat,

Azokaren modu berri bat, merezi duena patxada pixka bat gertatu denari erreparatzeko. Aurten hartu duen forma zehatzaz harago gertatu zaiguna eta gertatzen ari garena pixka bat hobeto ulertzeko eta hemendik aurrera egingo ditugunei buruz eztabaidatzen hasteko, besterik ez bada ere.

JAKIN aldizkariari gaiari buruz pentsatzeko eskainitako aukera hau eskertu nahi nioke, honelako gertakariak horixe egiten baitira, gertatu; eta, sarri, aitzakia edo helburu zehatzik ezean, ez dugu horien esanahiaz edo garrantziaz hausnartzeko tarterik hartzen. Hein horretan, hiru une bereizi nahi nituzke: aurtengo Azokaren aurrekoa, bitartekoa eta ondorengoa, beti ere idazten duen honen perspektibatik kontatuta eta eztabaidarako erregai bezala funtzionatu dezaketelakoan.

Azoka aurretik: hutsunea, azoka, plaza

Azaro hasiera.¹ Ez zen erraza aurtengo Durangoko Azokak hartuko zuen forma (edo forma eza) aurreikustea, eta ez da erraza ezta ere jakitea zer gertatuko den aurtengo Durangoko Azokarekin, egitarau eta antolaketari buruzko elementu gehiago argitzen doazen heinean galderak ere biderkatu egiten baitira. Edozelan ere, iruditzen zait badaudela hiru kontzeptu elkarrekin harremanean jarri beharrekoak Durangoko Azoka (bir)pentsatzeko: plaza, azoka eta hutsunea.

Hasieratik, oinarrizkoenetik hasita, iruditzen zait plaza badela ezer izatekotan hutsune. Definizioz, gainera. Ezingo luke bere plaza funtzioa bete, plaza izan, hutsunerik ez balu, hutsune ere ez balitz. Hutsik ez balego, guztiz beteta balego, ezingo ginateke bertan elkartu, ezingo genuke bertan ezer antolatu, mugimendua ere ez litzateke posible bertan. Hutsunerik gabe, ezingo genuke guk bete, ez luke lekurik izango guretzat. Eta, noski, guk bete ezean, gu gabe, ez litzateke plaza.

Hutsunearen gaiak hartu du bere garrantzia autoek eta terrazek gure herri eta hirietan hartzen duten espazioaz kontzienteago bihurtu garen garai hauetan. Pertsonen arteko distantziak klabe bilakatu diren honetan herri izateko, herria

egiteko teilatudun eta teillatu gabeko espazio hutsen garrantziaz ere neurri batean konturatu garela esango nuke. Baina badakigu baita ere plaza izan ezean hutsunea ez litzatekeela espazio eta denbora hutsa besterik. Hutsune. Hutsgune. Etendura, etenaldi, parentesi bat bi zerbaiten artekoa. Ezer eza. Ezerezaldia. Presentziarik gabeko espazioa, unerik gabeko denbora.

Itxialdi, etxealdi, etenaldi hauetaz ere denok jabetu gara garai arrarootan, konfinamenduek nor berera gordetzera bultzatu gaituztelarik non gorde badaukagunok. Hustu zaizkigu kaleak, plazak, parkeak, gauak... eta hustu ditugu taberna, jatetxe eta kulturaguneak, errepideak, autobusak, trenak, lantokiak beteta ikusi ditugun artean. Kontrasteak are ikusgarriagoa egin du hutsaren eta betearen arteko alde. Nabarmenagoa hutsunearen tamaina. Eta denok harrapatu gaitu ahal dugun bezala hurbileko eta urruneko hutsune horiei zentzua eman, erantzunak aurkitu, esanahiak eraiki nahian.

Aristotelesi egotzi diogu latinez *horror vacui* eta euskaraz hutsari izua deritzogun printzipioa. Naturak hustasuna gorroto duelako printzipio fisikoa, artera ere eramana izan dena, eta akaso kulturaren eta are euskal kulturaren esparrura ere eraman genezakeena. Plenismo delakoaren jarraitzaileen arabera, naturak hutsuneak gorroto ditu, edo, hobe esanda, berehala hutsuneak betetzeko joera agertzen du. Beharbada horregatik marrazten ditugu zirriborroak orrialdeen izkinetan, orriaren huts zuriari izua diogulako. Agian horregatik ematen dute pena «Salgai» kartela erakusten duten lokalek.

Edozelan, azokak plazetan antolatu ohi ditugu, eta plazak hutsuneen inguruan eraiki. Bestela esanda: hutsune batzuk azoka bihurtzen asmatzen amaitzen dugu. *Dugu*, diot, plaza

Iruditzen zait badaudela hiru kontzeptu elkarrekin harremanean jarri beharrekoak Durangoko Azoka (bir)pentsatzeko: plaza, azoka eta hutsunea

jenderik gabe plaza ez den bezala, inork antolatu ezean nekez sortzen baita azokarik. Bestalde, antola genitzakeen arren fabriketan, autopistetan edo trenbideetan, adibidez, horiek bestelako funtzio inportanteagoz beteago egon ohi direnez eta problemak sortzen dituztenez, plaza bihurtutako hutsuneetan eraikitzen ditugu. Hutsuneak errazagoak baitira azken finean betetzen, beste zerbaitekin beteta dagoen zer-bait baino.

Halakoetan, edozelan ere, hutsunea plaza bihur liteke eta plaza akaso azoka. Eta gertatzen denean esango nuke gordezten duela azokak zer-bait plazarena, eta plazak hutsunearena. Gordetzen du esanahiren bat baino gehiago. Dimentsio material eta immaterialak, ezaugarri zahar eta berriak nahasten ditu jaiotzeko prozesuan bertan eta hortik aurrera ere.

2015eko abenduaren 3tik 6ra Durangoko Azokaren 50. edizioa egin zen, askorentzat Euskarazko Liburu eta Disko Azoka zenaren izena daraman herrian. Edizio berezia izan zen niretzat 2015ekoa, Gerediaga elkartearen Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren eta Siadeco kooperatibak bideratutako Azokaren dimentsio material eta immateriali buruzko ikerketan parte hartzeko aukera izan nuelako. Orduetik bost urte igaro dira, eta honezkero badakigu 55. edizioa aurrekoetatik guztiz bestelakoa izango dela. Irudikaezina ia. COVID-19aren ondorioz, Azokaren plazatasuna, muin-muinekoa zuen presentzialtasuna, jendar-tekotasuna, aurrez aurrekotasuna, zuzenekotasun materiala ez dira izango. Ezingo dira izan.

Aurreikusita zegoen aurrez aurreko guneen jarduera minimoa ere zalantzan dago, eta ez dirudi hemendik eta abendura bitartean gauzak onera aldatuko direnik. Une honetan, Durangoko Azokaren 55. edizioa zalantzas eta posibilitatez ereindako inkognita handi bat da. Egin egingo den arren, ez baita egingo. Eta egin egingo ez den arren, egingo baita.

Nire hipotesia da 2020ko Azoka Digital honek *Euskal Kulturaren Lehen Hutsune Digitala* irekitzen digula. Momentuz, hutsunea daukagu aurrean. Urtearen amaieraren hasieran

zabalduko zaigun hutsune berria. Etenaldia. Itxialdia. Etxealdia. Parentesia. Inkognita hori.

Beharbada, hutsune horretara amilduko gara kolektiboki. Edo, agian, zerbait berria eraikiko dugu. Plaza, azken batean, hutsunea ere baita, definizioz.

Azoka egunak: log egin kume

Azaroko azken astea. Hurbiltzen ari dira urteroko Durangoko egunak, eta aurkeztu dute Gerediaga elkartetik 2020ko azoka edo denda digitala izango den webgunea: *durangokoazoka.eus*. Oraindik ez dago ezer erosterik, baina bilatzeko, aurkitzeko eta 'desioen saskira' gehitzeko aukera dago. Inkognita handiena nolabait argituta gelditu da: ezagutzen dugu jada 55. Durangoko Azokak izango duen itxura, hartuko duen forma (eza).

Webgune zuri, soil, garbi eta minimalistaren atzetik halako proiektu digital batek izan ohi dituen estres, buruko min, antsietate eta iskanbilak imajinatu ditzaket, ikusi ezin ditudan arren: informatikari eta diseinatzaileen arteko azken orduko gatazkak, argitaletxe eta argitaratu historikoen aldarrikapen eta exijentziak, katalogoa osatzeko informazioa epez kanpo betetzera ohitutako kultur sortzaile eta autoekoizleen indiziplina militantea, Azoka Azoka egiten duten eragile, erakunde, laguntzaile eta abarren arteko liskar eta ezinikusiak... Logoak zein ordenatan eta zein tamainatan joango diren zorionez alde zuzenetik erabakita egongo zela ere pentsatu dut.

Agian gertatu diren eta agian gertatu ez diren krisi, sute eta leherketa horiek guztiak irudikatu egin ditzaket, baina ez dira ageri, webgune soil, txukun, garbi eta ordenatu horren estalkia txukuna bezain opakua baita. Denda fisikoen erakusleihoan nola, dendaosteko digitalak ez dira kaletik ikusten. Krisi politiko, teknologiko, kultural, pertsonal, ideologiko eta emozional oro estalita gelditzen da, jaso gabe, historiaren atzealdean, agian inoiz norbaitek kontatuko zain.

Abenduak 4. Heldu dira Durangoko egunak. Aurten, gehienok bezala –eta ohi ez bezala–, ez naiz Durangora joan.

Denda zabalik dago baina arazoren bat egon da, ez baitut ezer erosterik izan. Desioen saskia osatzen joatea beste aukerarik ez dut. Gerora jakin dut ‘arazo teknikoak’ egon direla, eta irribarrea berez marraztu zait ezpainetan, Murphyren lege aldaezinak gogoan. Erosle/erabiltzaile/kontsumitzaile/par-te-hartzaile bezala desesperatu egin naiz nire desioen saskia

Euskal kultur sorkuntza
txikia omen dela
entzutera ohituta gaude,
baina txikitaskun hori
erlatiboa da, mataza
horretan zerbait aurkitu
nahi duzunean.
2.319 produktu
edo 852 nobedade ez
da kopuru txikia

lau aldiz galdu ostean eta nire garunean iltzatu zaidan Itoizen abestiko *lo egin hori log egin* berriagoarekin aldatuta.

Tartean, astiro baina etenik gabe, emankizunen katalogoa ere osatuz doa. Zuzeneko hitzaldiak, kontzertuak, aurkezpenak, estreinaldiak. Astiro baina arinegi dena ikusteko, dena entzuteko, dena prozesatzeko. Behingoagatik, antsietate estetikoa pixka bat baretu zait hau dena gordeta geldituko dela gogoratzean. Laster

itzuli zait, ordea, gordeta geldituko den hori guztia ikusi, entzun, digeritzeko ere denbora beharko dudala gogoratu dudanean. Onena, ohi bezala, denetara heldu ezin dela eta aukeratu egin behar dela gogoratu eta onartzea izango da. Azoka beti Azoka, baita 2020an ere. *Azoka longa, vita brevis*.

Abenduak 6. Desioen saskia abandonatuta, Ahotseneako zuzeneko errandom bat soinu banda bezala jarri eta ordubeteko osteratxoa egiteko erabaki irmoa hartu dut. Ez naiz inorekin etorri eta ez naiz inorekin geratu (horretarako *AtopiaRPG*-ren Zentro Palentino digitala, *atopia.eus/palentino*, erabil nezakeen arren), eta inorekin topo ez egiteak ere Durangoko Azokako eroslearen ohiko deriba situazionistaren esperientzia aldatu egin dit zeharo. Hemen frankotiratzaile gaizki informatu bat sentitzen naiz: argialetxkeen lamia kantak entzutera ohituta, hemen proposamen batzuk, tag edo

etiketa batzuk eta bilatzaile bat baino ez dauzkat. Ez naiz moldatzen.

Euskal kultur sorkuntza txikia omen dela entzutera ohituta gaude, baina txikitasun hori erlatiboa da, mataza horretan zerbait aurkitu nahi duzunean. 2.319 produktu edo 852 no-bedade asko edo gutxi izan daiteke grafiko batean edo txosten baten paperean jarrita, baina, ugaztun batek prozesatu dezan, ez da kopuru txikia. Nire buruari aitortu behar diot: galduta nago, eskaintzari neurria hartu ezinik, eta benetan nahi ditudan gauzak ikusi ere egingo ez ditudan beldurra gorputzean sartuta.

Edozelan ere, ordubeteko osteratxo digitalaren ostean, osatu dut nire aurtengo eskaria izango dena. Komikia, eleberria, entziklopedia imajinario bat, poesia... Berriro ere pentsatzen jarri naiz ze zaila egiten zaidan euskal musikariei ordaintzea kontzerturik apenas dagoen eta etxean musika objektu fisikoak erreproduzitzeko gailu gero eta gutxiago ditudan honetan.

Ordaindu dut. Hemen ere atzealdeko triapak, dendaosteko eztabaidak, negoziazioak, komisioak, kontratuak eta baldintzak ezagutu gabe. Algoritmoak lanean hasi dira. Adostu dute adostu beharrekoa nire bankuarekin. Ez dut dirurik atara behar izan. Prozesua higienikoa, minik gabekoa, desproblematikoa izan da berriro ere, atzealdean dagoenaz ez dut kezkatu behar izan.

Urteroko erosketa eginda, webgune nagusira itzuli, Aho-tseneako soinu banda itzali eta Joseba Gabilondo eta Garazi Arrularen *Babel aurretik* liburuaren itzulpenaren aurkezpena jarri dut, etxeko epeletan.

Hemendik aurrera: gelditu denaz, gelditzen zaigunaz

Abenduak 9. Itxi da Azoka. Izan behar zuen baina izan ezin zen, izan ezin zen baina izan egin zen 55. Azoka. Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentea imajinatu dut egun

hauetan oso gutxi lo eginda hedabideen aurrean «zer moduz?» eta «nola joan da?» eta «funtzionatu al du?» galderei erantzuteko prestatuta, beste urte batez. Gauza batzuk ez baitira aldatzen, batez ere dena aldatzen denean.

Hasi naiz irakurtzen erreakzioak. Lehen zenbakiak, lehen emaitzak, balorazioak. Gerra kultural baten urteroko errekuentoak, kontaktak eta kontakizunak, eta gogora etorri zait nola euskal kulturaren posizio gerra amaiezin horrek hartzen duen nolabaiteko izaera erritual bat, euskal 'gertakizun' zentral guztiek nola halako hiperinflazio batek jotakoa, non soilik norabide bat den posible, goranzkoa, eta soilik norantza bat, aurreranzkoa.

Hein horretan, aurtengoak arnasa numerikoa eman digula iruditu zait. Numerikoa, Iparraldean ematen zaion zentzuan, digitalitateak salbatu baitu Azoka, haragiaren planoak hain murriztuta aurkitu ditugun garaiotan; baina baita numerikoa Hegoaldeko zentzuan ere, 'beti gora' horren absurdoa une batez, urtebetez, eteteko aukera ere eman zaigulako, eman diegulako. Emaitzak oso onak izan dira, bistan da. Are, espero zirenak baino hobekak izan dira. Baina ez dira 2019koak baino hobekak izan. Eta bi baieztapen horiek elkarren ondoan jarri ahal izatea oso garrantzitsua iruditzen zait. Ez naiz sartuko salmenten bolumenen eta eragin ekonomiko eratorrien kalkuluetan, ez baitagokit niri. Aldiz, funtsezkoa iruditzen zait azpimarratzea Durangoko Azokak 2020an funtzionatu izanaren klabea erabat immateriala izan dela.

Ez zegoen arrazoi objektiborik abenduko lehen astean euskal herritarrak webgune zehatz batean masiboki sartu eta ikus-entzunezko eduki askotarikoak 'kontsumitzeaz' gain milioi erdi euro liburu, disko, egutegi, mahai joko eta bestelako sorkuntza produktutan gastatzeko. Ez zegoen ez *Black Friday* deskonturik ez *Azokabonorik*, ez Googlek ondo kokatutako iragarki pertsonalizaturik ez eta Amazonen gomendio algoritmo teknologikoki finik ere. Baleko webgune bat baino ez, bertaratzeko aukerarik izan ez dugun hamarka mila herritarrentzat.

Eta hala ere funtzionatu egin du. Posible izan da. Egoerarik arraroenean, mugikortasun, elkartze eta fisikotasunaren murrizketen bete-betean eta Gabonei begira gauzak distantziara erosteko alternatibak inoiz baino gehiago direnean, zerbaitek eragin du Durangoko Azokak erreferentzialtasunik ez galtzea. Bere plazatasunak eta bere azokatasunak irautea 55. urtean sortu den itzelezko hutsune honen muinean.

Ez zegoen ezer bermatuta. Benetan uste dut inork ez zekiela zer gertatuko zen, zerk funtzionatuko zuen, zerk ez, eta zenbateraino. Uste dut oraindik ere ez dakigula. Historia eta istorio anitzen gurutzaketa konplexu eta zoragarria –bi zentzutan zoragarria– dela Azoka posible egiten duena, eta argitaletxe, autoekoizle, disko, liburu, kazetari, antolatzaile, kudeatzaile, programatzaile, argitzaile, teknikari, garbitzaile, garraiolari, erosle, ikusle eta entzule horien guztien historia ikusezin horiek guztiek zerikusi gutxi dutela webgune txukun eta minimalistaren garbitasunarekin.

Anabasak funtzionatu egin du. Bihotzak beste taupada bat eman du, itzalitik piztura, zerotik batera, ezetzetik baietzerara. Eta taupada berri horrek datozen materialtasun berrien tankera iragarri digulakoan nago: digitaltasunak zeharkatutako haragitasunarena.

Goizegi da honek izango dituen ondorio guztiez hitz egiteko. Berriro ere inkognita batzuk argitu diren arren, askoz gehiago dira mahaigaineratu direnak. Baina esango nuke salbuespenezko Azoka honek norma bihurtuko zaizkigun zenbait elementu ekarri dizkigula: produktuak digitalean erosi ahal izatea eta ekitaldietara gerora sarbidea izatea, adibidez. Behin probatuta, zaila izango da aurreko egoerara itzultzea, eta horren froga iruditzen zait jada gauza ebidentek

Esango nuke salbuespenezko Azoka honek norma bihurtuko zaizkigun zenbait elementu ekarri dizkigula: produktuak digitalean erosi ahal izatea eta ekitaldietara gerora sarbidea izatea, adibidez




iruditzen zaizkigula biak ala biak. Azokaren presentzialtasuna aldatu egin da.

Hemendik aurrerako Azoka ez da orain arteko Azoka izango. Durangoko Azoka inoiz ez da ordura arteko Azoka izan, egia esatera; baina aurrean inauguratuta gelditu dena Durangoko Azoka Digitala izan da. Bere hezur-haragizko langile eta bisitarien eta paper, kartoi, binilo, stand, zerbitzari eta zirkuituzko materialtasunen artean taupa egiten duen eta aurrean ere isildu ez den bihotz immaterial hori duena barruan gordeta, bizi-bizirik taupaka.


Ondo pentsatuta, 2020a urte borobila zen halako zerbait inauguratzeko. 🍷

Oharrak

1. Atal hau azaroaren 14ko *Berria* egunkarirako argitaratutako 'Hutsunea eta plaza' artikuluan oinarrituta dago, eta Durango aurreko egunen ziurgabetasun eta posibilitateak irudikatu nahi ditu.







- BERTAN GOXO -



Pandemiaren urtea kulturgintzan

**Edurne Azkarate, Igor Elortza, Xabier Gantzarain,
Katti Pochelu eta Castillo Suarez**

Itziar Ugarte Irizar
Kazetaria

Hamaraldi berria hasiko zela bai, baina inork ez zuen asmatuko orduan etortzear zena 2020arekin. Pandemia bat, aurretik eramanez ahal izan duen dena, eta begi-bistara ekarriz azpian aurretik ere bazegoena. Baita kulturgintzaren lurretan ere.

Denbora ohi baino bizkorrago pasatu dela dirudi, eta urte hasieran non ginen, hilabeteak igaro ahala nondik nora ari-tu garen eta azkenetara nola heldu garen pentsatzeko tartea hartu dute, modu gurutzatuan, Edurne Azkarate aktoreak (Oion, 1993), Igor Elortza bertsolariak (Durango, 1975), Xabier Gantzarain idazle eta Azpeitiko Dinamo Sormen Guneko koordinatzaileak (Azkoitia, 1975), Katti Pochelu Gastibeltza Films ekoiztetxeko kideak (Hazparne, 1981) eta Castillo Suarez idazleak (Altsasu, 1976). Abenduaren 4a da, Martin Ugalde Kultur Parkean. Ezohiko Durangoko Azoka hasiko da gaur, eta Elortzak eman du irudia: «Andoain Durangon elkartu beharrean, badirudi Durango etorri dela aurten Andoainera».

BIZI-INPAKTUA

Aurtengoak utzitako bizipenei tenperatura hartzen haste-ko: nola joan zaizue urtea? Nola bizi izan zenuten hasierako bakartze erradikala eta nola ondorengo hilabeteak?

Castillo Suarez: Niretzat katastrofikoak izan da. Gogoan dut justu martxoaren 12an, dena erortzen hasi bezperan, Igor Estankonaren liburuaren aurkezpena joan behar nuela. Baina ospitalean nengoen, operazio baten zain, eta hitzordu guztiak akabo. Agian horregatik, baina nik ez dut ez idatzi ez irakurri. Gerora askotan pentsatu izan dut Igorrengan, ze faena izan den beretzat. Egin dizkiote elkarrizketak-eta, baina oharkabean pasatu da liburua kulturazaleon artean ere.

Xabier Gantzarain: Igor Estankonaren adibideak erakusten du nola gu ez garen egon horretarako. Guk lankideon artean komentatzen jardun duguna da hasieran gure arteko mezua zela ea honek balio digun gelditzeko, pentsatzeko, irakurtzeko..., baina ez dugula egin horrelako ezer. Egin duguna da edan eta egon. Eta garaiaz beraz hitz egin, eta buruari bueltak eman, kezkatu eta berriz kezkatu. Eta, aldi berean, gustura jakingo nuke zenbat igo den Netflix, HBO eta bestelako plataformen mugimendua.

Igor Elortza: Niri une honetan kontrajarrian datozkit bizipenak. Okerren alde kolektiboa eraman dut, kulturaren zein bizitzaren ikuspegitik. Estankonaren liburua erdi estraperloan erosi nuen, pertsianapetik, adibidez. Konfinamendu betean etxean sartuta lau lagun ginen gu, 80 metro karratutan. Nik telelana egin nuen logelako komodaren gainean taula bat ipinita, bi hilabetez, ez dakit zenbat bideo-bilera han. Bertsolari kolektiboagatik ere sufritzen. Eta aitari egin beharreko bihotzeko operazio batekin ere ibili gara, tentsio guztiarekin. Baina alde onak aipatzera, pertsonalki, behar nuen eten baterako urte ederra izan da. 70 bat saio egin izango nituen urte normal batean, eta heren bat-edo egingo ditut. Eta behar nuen, geratzea. 15-16 urterekin hasi nintzen plazaz plaza, eta nire

ударик onena izan da. Jasotzeko ere, gainera, ez da urte erraza izan. Nik ere hasieran esan nuen irakurri gabe nituen liburu-rik potoloenak irakurriko nituela. Roberto Bolañoren 2666 hartu nuen [denek barre]. Baina azkenean zer egin nuen? Alabei ikasketekin lagundu pixka bat, eta lehenengoz Netflix ipini. Askoz errazagoa Bolaño irakurtzea baino.

Katti Pochelu: Nik udarentzat ez nuke gauza bera erranen. Aski bestazalea naiz, eta partekatzeko momentu inportantea iruditzen zait sozialki, burua libratu eta beste hainbat gauzarentzat, baina konfinamendua bera ongi etorri zait. Banuen formakuntza bat Parisen eta ari nintzen begira nola antolatu. Azkenean *online* izan zen, eta, gogorra izan arren, zortzi orduz egunero formakuntza gehi lana, eskerrak etxean nintzela. Frustraziorik ez dut izan, ezer egitekorik ez zegoelako. Komunitatetik kanpo egotea bai aski gogorra izan da, lagunekin ez biltzea eta hain hurbileko ez ditugun baina kultur ekitaldietan, bestetan eta abar gurutzatzen ditugunak urtebetez ez ikustea. Jende bat ez duzuna deitzen, baina gustura elkartzeko zarena, pixka bat ateratzen zaituena zure usaietatik.

Edurne Azkarate: Konfinamendu betean ateratako kantu batean, Sara Zozayak esaten zuen: «Behar dugu etzan eta ixo». Eta etzan agian etzan gara, baina ez gara isildu. Niretzat hori izan zen arazoa. Nik

ez nuen ez serie bat ez pelikula bat ikusi. Eta banuen denbora, behingoagatik. Libururen bat irakurri nuen, baina sentsazioa da ez dakidala zer egin dudan konfinamendu bitartean. Sentitzen nuen bonbardaketa eta ez nuen kontsumitu nahi, ezta sortu ere. Benetan ez dakit zer egin dudan. Egin nituen nire erritualak, asko hitz egin nuen bizilagunekin, ikasi nituen

«Komunitatetik kanpo egotea aski gogorra izan da, lagunekin ez biltzea eta hain hurbileko ez ditugun baina kultur ekitaldietan, bestetan eta abar gurutzatzen ditugunak urtebetez ez ikustea»

Katti Pochelu

señora guztien izenak, estraperloan ibili nintzen laguntzen, batek zituelako oihalak eta besteak zituelako gomak eta ni han batetik bestera. Baina ez nuen nahi kontsumitu kultura, eta ezin nuen eman.

Konfinamendua hasi eta berehala pantailak bihurtu ziren kasik kultur esperientziarako agertoki bakar. Nola jaso zenuten mugimendu hura? Nola topatu zenuten euskarazko kultur eskaintza sarean kalitatez zein kantitatez?

Gantzarain: Mundu guztia hasi zen hori lantzen: *Berria*-k egin zuen, Bertsozale Elkarteak... Etxean egon behar dugunez, eduki dezagun kultura martxan. Baina, aldi berean, bazegoen halako paradoxa bat: ze kultura ez da bakarrik gauzak irakurtzea, entzutea edo ikustea, askotan konpartitzeko modua inportanteagoa da *produktua* bera baino. Eta ni hor sentitu naiz galduta. Gu justu urtearen hasieran Madrilerara joan ginen Amets Arzallusekin Dapa bat egitera, eta horrelako lanetan, eta edozein kultur adierazpidetan, ederrena lankideekin hitz egitea da, komentatzea liburua, elkarrizketa, irudiak... Hori bota dut faltan. Iruditu zait denok sartu garelako etxean, baina, aparte, baita oskol batean ere.

Pochelu: Nik ez nuen denborarik. Ikusi dut bazirela eskaintzak, baina itogarria egin zait. Lehen egunetatik hasi ziren galdetzen sortzaileei gauzak eskaintzea dohainik, eta iruditu zait, batetik, ongi zela, segitzen dugulako komunitate birtual batean, baina, bestetik, kontsumismora lerratu dela. Netflixek eta beste hainbatek eskaintzen duten bezala: edukiak eta edukiak. Eta iruditu zait oharkabean pasatu direla hainbat eskaintza agian interesgarriak zirenak. Ez dut ikusi eta ezin dut esan kalitate aldetik, baina kantitate aldetik itogarria iruditu zait.

Suarez: Hor Iker Laurobak aipatu zuen doakotasunaren kontua. «Ikaragarri kostatzen zait kontzertu bat antolatzea, programatzaileen atzetik ibiltzen naiz, eta orain ez dakit zenbatek eskatu didaten kolpetik jotzeko han-hemen, doan». *Berria*-k egin zuen, ETBk egin zuen... Baina egin behar da? Ez dakit.

Kulturaren zentzua, izan, beste bat da: elkarrekin eta aurrez aurre gozatzea.

Azkarate: Sortzaile bezala, gizartearekin hartutako konpromiso bat daukazu, baina ogibidea ere hor dago, aldez aurretik ez dagoena oso txertatuta sisteman. Halakoetan gehiago eta gehiago eskatzen dizute, eta, dikotomia hori jakinda, oso zaila da zer egin jakitea.

Elortza: Deskonfinamenduaren hasieran, Bertsozale Elkartetik egin genituen saio *online* batzuk, eta, plazara atera ahal izan genuenean, Villabonan egin zen saio berezi bat, beste antolatzaile batzuk ere bultzatzeko. Baina konfinamendu beteko girora bueltatuta, nik, batetik, bai ikusi nuen halako produktibismo esajeratu bat; ez dakit hainbeste *kontsumismo*, ze ez zen lan ordaindua, ez artistari ordaindua, ez hartzaileei kobratua. Bazirudien egin eta egin egin behar zela. Eta, bestetik, kalitate aldera jota, eta gure *online* saioetatik hasita, gero irakurketako bat hori izan da: non dauden kalitatearen minimoak. Bertsotan publiko gabe egitea zelairik gabe baloiarekin aritzea bezala da, eta emaitzan eragina du. Halako egoera batean ere kalitate maila bat ziurtatuko duten moduak erabili beharko genituzke; bestela, beharbada, hobe da ez egitea. Zeren, produktibismoa bezala, nik boluntarismo handia ikusi nuen. Handiegia. Apur bat zen balkoira txalo jotzera ateratzea bezala. Ondo dago, behar genuen, baina horrekin ez genituen osasun sistemak indartu. Gero elementu interesgarriak ere bazeuden, demokratizazioa-edo, eta kulturaren funtzio ludikoa.

Suarez: Horri lotuta uste dut aipatu behar dela zenbat igo zen *Berria*-ren audientzia, esaterako. Izugarri igo zen. Gero jaitsi da, baina asko gelditu dira, eta uste dut baloratu behar dela hori ere.

Gantzarain: Alde onen artean, eta alde on hau ez da oso ona, honek denoi balio izan digu ikusteko gizarteak zeuzkan zutabe sendo horiek zein ahulak ziren. Nola orain arte ia-ia baztergarri ziren garbitzaile, jostun, zaintza lan eta abarren gainean eraikitzen den dena. Baina,aldi berean, aurrekoan

irakurtzen nion Pedro Costa zinemagileari, pandemia, oro har, kapitalismoarentzat azeleragailu perfektua izan dela. Konfinamendua izan da primerako esperimendu bat ikusteko egin dezakezula lana etxetik, erosi etxetik, eta, gutxi gora-behera, berdin funtzionatzen duela gurpilak. Horrek kulturaren ere eragin du, jakina. Azkenean gauzak bizitzeko beste modu bat ari da sortzen: bai, orain badago sekulako eskaria, baina ez dakit kontsumoa bera ez ote den helburu. Hau

«Lanerako oso desberdina izaten ari da dena. Antzezle bezala, pisu bat sumatzen da aretoetan. Baina hartzaile bezala ere gogorra egin zait. Ez daukazu norekin konpartitu»

Edurne Azkarate

da, Durangoko Azokari zer gertatu zaio? Lehen, nahiz eta azoka bat izan eta saltzea izan helburu, bazegoen elkartzeko plaza bat. Orain, ez. Orain sartu zaitez zure etxeko zure ordenagailutik eta eros ezazu. Arrisku handi bat dago hor: pentsatzea zerbait kontsumituta laguntzen duzula kultura.

Suarez: Galtzen da preskriptore lana egiten duenaren figura ere. Durangoko Azokara zozazenean, baten batek aholkatzuten dizu libururen bat, liburu dendetara zozazenean bezala; Hedoik [Etxarte] Katakraken, zuk Susako standean..., hori da galtzen ari garena.

Gantzarain: Eta hori da, hain justu, aldatzen ari dena ere. Amazoneko algoritmo batek ezagutu zaitzake orain zuk zure burua baino hobeto.

Suarez: Jardun duzunaren arabera, bai, baina bide berriak beti beste batek irekiko dizkizu.

Egon da egoerari arduraz erantzun beharraren eta pentsamendu kritikotik eragin nahiaren arteko tentsio bat, bigarrena kulturaren egitekoen artean ulertuta. Sentitu duzue bien artean kokatzeko zailtasunik?

Elortza: Nik bai, eta neurri handian. Bertsozale Elkarteko zuzendaritzan egonda, niretzat konfinamenduko beste irudietako bat izan da Jitsi pantailan 30 lagun gauza hauetaz hitz egiten egotea. Kezka handiak dira, proiektu soziokultural bat delako, jende dezenteren bizibidea, eta, aldi berean, zaleen osasuna. *Kultura segurua da* nik ez nuke sinatuko. *Kultura erantzukizunez* bai. Uste dut hori dela bidea. Egin behar dira gauzak, neurritsu, eta herritar bakoitzak arduraz jokatuta. Beste belaunaldi batzuei tokatu zaizkie goseteak, gerrak eta beste, eta bizi izan dira, kantatu dute, bildu dira... Guri pandemia tokatu zaigu, eta, erantzukizunez, baina bizi behar da kulturalki ere.

Gantzarain: Nik tentsioa ez dakit, baina Edurnek aipatu duena bai. Denbora izatea irakurtzeko, pelikulak ikusteko, eta ezer ez egitea. Oso modu arrotzean akaso gehiegi esatea da, baina nahiko distantziarekin bizi izan nuen hasierako zera guztia, produktibismo eta boluntarismo hori, greba digitalarena... Gerora gertatu zaidana, eta une honetan hor nago, da: ados, pandemia bat, baina egunen batean bukatzen bada, orduan zer? Kultur mundutik ari naiz. Kontua zer da, bueltatzea pandemia aurreko garaietara? Joseba Azkarragaren artikulua irakurtzen dituzu *Berria*-n eta apokalipsiaren ideiak hartzen zaitu. Baina, aldi berean, apokalipsiak *errebelazioa* esan nahi du. Garai honek bere zoroan hori behintzat badauka: ziurtasunik eduki ezin horretan, *maremagnum* horretan, desastrearen tamaina ikusten da.

Azkarate: Lanerako oso ezberdina izaten ari da dena. Antzezle bezala, pisu bat sumatzen da aretoetan. Ezin dituzu aurpegiak ikusi, ez dago euren arteko txutxu-mutxurik... Nola eseri jendea, baldintzatzen du gure ikuskizuna. Baina hartzaile bezala ere gogorra egin zait. Estimulu asko dira: argia, soinua, mugimendua, mezua, emozioak, eta ez daukazu nondik askatu, zaudelako iltzatuta. Ez daukazu norekin konpartitu, ezin duzu dantzatu, ez dago jario horren joera biribiltzailea. Ez da hartu-eman bat, da hartu-hartu-hartu-hartu, eta zoaz zaplastekoarekin etxera. Gertatu zait irtetea pentsatuz: «Joe,

zelako gola sartu diguten, antzoki batetik atera eta etxera joateko gogoia dudala».

Suarez: Zer ikusteko aukera daukagun ere bada. Plateruena itxi behar dutela-eta, Beñat Gaztelurrutiak egin zuen gogoeta bat, huts egin duela ostalaritzarekin batera kultura programatzearenak. Bada, nork programa dezake orain? Erakunde publikoek. Beraiek dira asumitu dezaketenak sarreraren galera, eta horrek ondorio zuzena du programatzen den horretan ere. Gauza estandarrik bai, baina bestelako ekitaldiak, amateuragoak, esperimentalagoak...

Gantzarain: Konfinamenduaren garaian, kultura aldetik sortu nahi den gauza interesgarri bat aipatu nahi dut. Jon Ander Agirrek-eta martxan jarritako Covid Study Houses. Jendeari eskatu zioten beraien etxeko planoak bidaltzeko, baina norberak marraztuta. Eta, bere sinplean, gauza asko azaleratu zituen proiektuak. Gure beharren arabera daude eraikita gure etxeak ala gu gaude eraikita egiten diren etxeen beharretara? Horrekin lotuta, nire irudipena bai izan da kulturak ere ezin zuela pandemia ez zen beste gai bati buruz hitz egin. Hasten zinen zerbait idazten, eta horrek betetzen zizun burua. Ematen du beste ezertarako lekurik ez dela geratu, oraindik ere.

Pochelu: Nik ez dut batere ikuskizunik ikusi azken hila-beteetan. Baina konfinamenduan bizi izan dudana gauzarik politena izan zen bikote bat gure kalean egunero ordu erdiko kontzertua egiten. Ez dakigu non ziren ez genituelako ikusten, baina, nola ez zen autorik, biziki ongi entzuten zen. Zortzietako txaloak baino lehen, elkartzen ginen gure leiho eta balkoietan, garagarno batekin haiek entzuteko. Ikusi gabe, soilik soinua. Zerbait partekatzen zuten auzoarekin, eta biziki polita zen. Txalotzen genituen jakin gabe nor ziren, eta desagertzen ziren.

Gantzarain: Horrek ematen du kulturaren zentzuaren berri ere. Baina, aldi berean, konfinamenduan kulturak hartu duen funtzioa erabat izan da entretenimenduarena. Lehengoan, arteari buruzko artikulua batean irakurtzen nuen zergatik

arteak, kulturak, ezin gaituen aldatu. Eta esaten zuen: «Ezin gaitu aldatu kultura ez delako gure bizitzaren parte, ez delako gure lanaren eta gure egunerokoaren parte; gure aisialdiaren parte da». Eta horri bueltaka nabil aspaldian, uste dudalako hori ere ikusi dugula garbi urte honetan.

KOLPE BAT, MILA BISAIA

Arloz arlo joanda, nola izan da kolpea bakoitzaren arloan? 2020an aurreikusita zenutenetik zeri eutsi ahal izan diozue?

Azkarate: Aktoreon bizitzan aurreikuspena oso txikia da, eta ez da lehen aldia halako zerbait gertatzen zaiguna. Hori ez dut bizi izan gaizki. Behin baino gehiagotan egon naiz egutegia garbi nire funeralaren egunera arte. Bai aipatu nahiko nuke honek azaleratuko duela sistema ez dagoela prest gure bizimoduak asumitzeko, ez dago jasoa nola bizi garen. Noski, gero halako zaplasteko bat datorrenean, ez dago baliabiderik kulturgileon bizitzak sostengatzeko. Gure artean oso ezberdinak gara, baina hiru gauzetan ados egon bagaitezke, eta azkarrak bagara, hiru gauza horiek eskatu behar ditugu.

Zure kasuan, Edurne, bi proiektu oso ezberdinekin zenbiltzan: Formol konpainia abiatzen belaunaldiko beste aktore batzuekin, eta Axut, Dejabu eta Artedramak elkarlanean ekoiztutako *Zaldi urdina* obran lanean. Nola izan zen bietan egutegia zuritzen joate hori?

Azkarate: Bi proiektu erabat ezberdin dira, bai. Bata koprodukzio bat da, eta sekulako taldea du atzean. Udaberriko emanaldi guztiak galdu genituen, baina orain lotu ditugu horiek gehi besteren bat. Aktore bezala, nire ogibidekide eta lagunei tokatu ez zaiena tokatu zait: enpresa batean nengoela alta emanda, ez dena batera ohikoa, eta aldi baterako erregulazioa hartu ahal izan dudala. Aktore modura! Guk lan egin ohi dugu alta, baja, alta, baja, aste guztia kotizatu gabe, eta

bat-batean superpribilegiatua sentitu naiz nire bizimoduari eutsi ahal izan diodalako.

Formolekin justu kontrakoa da. Artedramak estreinatuko du *Lurra garratz* martxoan, eta guk aurreikuspen bera geneukan gure obra estreintzeko. Baina egonaldi bakarra egin ahal izan dugu, Oretetako Eztena jaialdian. Beste bost-sei izan behar ziren, baina ezin izan dugu. Hau atzeratuta doa, hauek ez dira bildu, laguntzak ez dira heldu... Kate horren azken erpina gara gu. Talde berri bat da, inork ez daki zertan ari garen, eta hori bai geratu da, momentuz, *stand-by*-ean. Energia kudeaketa oso ezberdina da bietan. *Zaldi urdina* bezalako proiektu batean, dagoen indarrak aurrera egiten duela sentitzen duzu. Formolen beti da orain itxaron, orain abiatu berriz, eta jakin gabe jarraituko dugun. Sorkuntza prozesu batean kudeatu beharrekoa da hori ere: ez badakit helmugarik baden, ezin dut aurreikuspenik egin, non, nola, zertarako.

Gantzarain: Beti errepikatzen da kultura oso garrantzitsua dela, baina praktikan inork ez du sinesten hori. Ikusten duzunean albistegia, kulturako albistea da bukaera-bukaera-bukaeran ematen dizutena, normalean gauza polit batekin bukatzeko. Eta inork ez duenez sinesten, horregatik da kulturagileen bizimodua den bezalakoa, oraindik ere toreroen epigrafe berean.

Zuei nola eragin dizue pandemiak Dinamoko martxan, sortzaileengandik hain gertu lan egin nahi duen espazio bat izanda?

Gantzarain: Hasieran gure burua kokatu behar handia ekarri zigun: zer egiten dugun, zertarako, zeini laguntzeko den gure lana, zein baldintza eskaintzen ditugun... Lehenago Castillok esan du erakunde publikoak direla bakarrak programatzen dutenak, eta leku batzuetan horrela da eta joera bat da; baina, aldi berean, badakit badaudela beste leku batzuk saiatzen direnak beste leku batetik egiten. Lehengoan irakurri nuen kontzeptu bat asko gustatu zitzaidana: «erresistentziaren jardina». Izen hori ematen zion landareak asko programatu gabe hazten

joaten diren leku bati, eta esaten zuen ez dagoela belar txarrik, bakoitzak bere funtzioa daukala. Uste dut kulturaren ere aintzat hartu beharko genukeela hori, eta ikusi beharko genukeela ekosistema osoak bizi behar duela. Badago esaldi bat batere gustatzen ez zaidana eta da «inor ez da ezinbestekoa». Uste dut alderantziz dela: «Denok gara ezinbestekoak». Kulturaren ere bai. Kalitatea esaten diogun hori batzuetan hobea izan daiteke eta beste batzuetan ez hain ona, baina ekosistema horretan bizitzeak ematen dio bizitzeko aukera bera, batak besteari. Pixka bat hori planteatzen jardun dugu denbora honetan Dinamoan, eta saiatu gara, guk programatzen ditugun gauzetatik aparte, etortzen ziren proposamenei lekua egiten. Nahiz eta guri ere urtea goitik behera erori zaigun, joan behar izan dugun egutegia aldatzen, Hitzaren Eskola moztu, berriz heldu ekainean... Joan gara gauzak egiten, baina batez ere hartu dugu tarte bat ikusteko nola egin behar dugun lan aurrera begira.

«Beti errepikatzen da kultura oso garrantzitsua dela, baina praktikan inork ez du sinesten hori. Horregatik da kulturgileen bizimodua den bezalakoa, oraindik ere toreroen epigrafe berean»
Xabier Gantzarain

Bertsozale Elkartearantz, Igor?

Elortza: Gustatu zait erresistentziaren jardinarera, baina uste dut egituratuta egotearen garrantzia ere ikusten ari garela. Geure baitatik egituratuta egotearen garrantzia. Bertso mundua Bertsozale Elkartearen bidez dago antolatuta; bertsolariak eta bertsozaleak batzen dituen 30 urtetik gorako elkarte bat, egitura sendo bat daukana. Filosofiagatik ez da profesionalak lehenesten dituen proiektu bat, baina egoera honetan, adibidez, horrek ere hartu du garrantzia, eta egin da lanketa bat. Hezkuntzan ere, esaterako, bagabiltza, eta egituratuta egoteak ahalbidetu zigun ikasgelaz ikasgela zebiltzan bertso-irakasleak

Internetera egokitzea. Beste kanal batzuek, dokumentazio-koak-eta, antzera jarraitu dute. Baina zer erori zen batez ere? Plaza. Gure DNA. Eta plaza ere ez gara bertsolariak bakarrik. Antolatzaileak dira, zaleak dira, eta plazan sortzen denetik ematen da hedapena ere, *Bertsoa.eus*-en zein beste hedabide batzuetan. Badakigu hamarretik sei saio galduko direla 2020an: 2019an 1.121 saio dokumentatu ziren, eta aurten 435 bat egingo dira. Horrek 740.000 euroko diru mugimendu bat eten dela ere esan nahi du. Zer antolakuntza mota geldituko da hau dena erdi txukuntzen denean? Horrekin badugu kezka handia. Herrietako eta herri ekimeneko antolakuntzaz ari naiz. Ez bakarrik gure plazaren oinarri kuantitatiboki segururik inportanteena delako, baita kualitatiboki ere hori delako guretzako esentziala, sustatu eta babestu gura duguna. Hor ikusten dugu lehenetsuna 2021erako.

Aipatu duzulanketa bat egin dela bertsolari profesionalekin.

Elortza: Bai. Paradoxikoki, bertsolari zaugarrienak gehien dabiltzanak dira. Horiek direlako nagusiki horretara dedikatu daitezkeen bertsolari apurrak. *Sormen Kutxa* deitu genion tresna bat abiatu zen, bi lan ildorekin: *online* saioak egiteaz gain, aurreko urteko ibili kopuruaren arabera bertsolariari eskaini zitzaizen babes ekonomikoa. Plazaren erortze horretan, bestetik, zer saio mota egin diren ere begiratu dugu, horrek dakarrelako zein bertsolari mota ibili den eta zein ez ere. Formatu formalekoak egin dira, baina saio informalak, otordutakoak, soziedade zein gaztetxeetakoak, horiek erori egin dira. Eta hori oso adi gabiltza jarraitzen, zehar-lerroen estrategia kontuengatik: belaunaldiartekotasuna, parekidetasuna, lurraldetasuna...

Gastibeltzan zer gertatu da aurten, Katti?

Pochelu: Guk baditugu bi arlo, ekoizpena eta hedapena, gure filmak eta besteenak hedatzeko. Ekoizpenean ez dugu lan anitz ukan, gure proiektua aski berria da eta ari gara oraindik borrokatzen gure lekua egiteko. Datorren urtetik aurrera izango da eragina hor; jende gehiago ibili da proiektuak idazten,

eta konpetentzia handiagoa izanen da finantzaketentzat. Ez dakigu laguntzak mantenduko diren ere. Film labur bat egin dugu ekoizpenean, atzeratu eta azkenean egin ahal izan duguna bi itxialdien artean. Filmaketa bat erdian geratzeak esan nahi du inbertitutako parte bat zuzenean galtzea. Gainkos-tuak ere eragin ditu COVID-19ak, baina, gutxi gorabehera, ekoizpenean pentsatutakoa egin ahal izan dugu. Hedapena, berriz, katastrofe bat izan da. Film batzuk aurreikusiak gennituen zinema geletan erakusteko, eta ezin izan da. Guretzat inportantea da Iparraldearen eta Hegoaldearen artean estreina nazional bat izatea, eta ez da posible izan; Hegoaldean estreinatutako direnak guk ezin izan ditugu erakutsi, eta komunikazio aldetik arazoak sortu dizkigu. Bagenituen Josu Martinezen *Anti* filmarekin emanaldi batzuk ere, baina ezeztatu dira. Batzuek berriz programatu dute, baina filma desagertu da; nire lankidea berriz egon da mugitzen, baina etsi du, eta erabaki dugu *online* eskaintzea. Bederen jendearen esku utzi nahi genuen. Horrekin eta *Nire eguneroko maitea*-rekin ari gara.

Gure publikoa Euskal Herrikoa da, baina baita kanpokoa ere, festibaletan egiten dena. Horiek desagertu dira aurtan, eta galdu da aukera trukatzeko publikoarekin, baina baita profesionalekin ere. Bestela inola kontaktatu ezin duzun telebista kate hori hor aurkitzen duzu. Proiektuetan eragin zuzena du horrek. Urtarrilean, Miarritzeko FipaDoc-en ere industriaren topaketak Interneten bidez egingo dira. Bada beste galera bat: zinemak Iparraldean orain irekitzen dira [abenduaren 15ean ireki ziren berriz], eta bada film mendi bat metatuta, azken hilabeteetan atera behar ziren guztiena. Hor azkenak izango gara sartzen. Borrokatzen ari gara zaleak sortzeko, baina horretarako behar duzu presentzia minimo bat urtean, eta ez dakigu noiz izango garen berriz presente. Hasi gara lan egiten eskolekin ere, irudi sorkuntza bat euskaraz ere izateko, eta hori erortzeko arriskuan da, ez dakigulako eskolek ukanen duten baimena zinemara joateko. Filmak erakusteko beste manera batzuk pentsatzen hasiak ginen, elkarteetan, gatzetxeetan, baina ez dituzu baliabide berberak.

Castillo, erronda ixteko. Idazleena inongo egituratzetik urrunen dagoen alorra izango da ziur asko.

Suarez: Oso idazle profesional gutxi dagoelako, hasteko. Gehienek badute beste lan bat, askok administrazioan; idazten dugu nahi dugulako, eta ez dugu behar bizitzeko. Hala ere, liburu bat idaztetik, egile eskubideetatik gurean inor ez da bizi. Solasaldiak, epaimahaietako lanak, gidoiak, ikas-

«Liburu bat idaztetik, egile eskubideetatik gurean inor ez da bizi. Denetariko enkarguak egin behar dira idazletzatik soldata osatzeko. Eta lan horietako asko galdu egin dituzte aurten, noski»

Castillo Suarez

tetxeetara bisitak..., denetari-ko enkarguak egin behar dira idazletzatik soldata osatzeko. Eta lan horietako asko galdu egin dituzte aurten, noski. Kattik aipatzen zuen film mendia, eta uste dut gurean ez dela halakorik gertatu. Unean idazten ez den liburua ez da idazten gero, uste dut. Ez zait iruditzen ekarri duenik ustez irakurtzeko garairik onenean liburu gehiago egitea, baina gutxiago ere ez. Diru laguntzaren menpeko sistema bat da argitaratzearena; beraz, gutxi gorabehera mantendu egin da, bazeudelako hitzartuta.

Euskal liburugintzaren sektoreak mahai gainean kolpe bat baino gehiago eman du aurten, egoeraren larriaz ohartzaraz eta sektorearentzako laguntza urgenteak eskatuz.

Suarez: Batzuetan industria terminoetan hitz egiten da liburugintzaz: inbertsioak behar dira, kontsumoa sustatu behar da... Eta nik ez dakit industria bat daukagun. Iruditzen zait liburugintza ordezkatzan duten horien diskurtsoa ez datorrela bat errealitatearekin. Batzuetan gaindimentsionatu egiten dela. Egiazki, argialetxe bat kenduta, beste guztiak oso txikiak dira, eta agintarien aldetik ere ikuspegi ekonomistatik

hitz egiten da. EAEn, ze Nafarroan hori ere ez; zuzenean folkloreakin lotzen dute euskal kultura. Eta betiko problema: ekoizpena, liburuak egitea, hori al da gauza bakarra? Liburuak egin ditzakezu, liburu oso onak egiten ditugu, baina irakurketa da behar dena. Kontsumoa aipatzen da, eta ez irakurzaletasuna.

Eta gero Idazleen Elkartearen zer den. Ikastetxeetan egiten diren saioei esker sostengatzen den erakunde bat. Bitxia da: daukagun erakunde nagusiaren funtzio nagusia ez da gure interesak babestea. Idealen artean badago, baina egiazki bere jarduna ez da horrekin bat etortzen.

Azkarate: Arrazoi duzu. Alde batetik inportantea da hitz-potoloetan jartzea auzi hauek, *merkatua* eta abar, hitzek laguntzen gaituztelako existitzen. Baina egia da, bestalde, barrutik ikusten duzunean zer den euskarazko sortzaile izatea, konturatzen zarela ez garela hainbeste, ez dagoela hainbeste baliabide, ez dagoela oinarrizko plataforma bateraturik, eta ez kultura eta ez hizkuntza ez daudela zentralitate batean. Irakaskuntzan ere orain hasi gara konturatzen, agian, euskarra hutsean irakasteak ez duela zentzurik ez bada kulturaren eskutik, bestela ez daukalako praktikotasunik bizitza errealean. Inportantea da existiaraztea, bai, baina edozeinekin hitz egiten duzularik, esaten dizu: «Euskal zinema? Euskal zinemari lau gara eta. Ez dago merkaturik. Zenbat film ekoizten dira?». Eta hori guztiarekin.

OFF THE RECORD

Bat komunera altxatu, eta hankak luzatzeko eta deskantsu labur baterako baliatu dute denek tartea. Berokiak estu lotuta, zigarroak, gozo gauzaren bat, eskuak elkarren kontra igurtzen, eta grabagailua martxan, korroaren erdian.

Gantzarain: Ikaragarria da hori [Idazleak Ikastetxeetan] izateko Idazleen Elkartearen programa izarra eta bakarra.

Suarez: Lehen Galeusca egiten genuen hiru urtean behin, sikiera. Nik uste dut elkarte batek huts egiten duela kanpoko eskaera ez duenean aintzat hartzen. Gogoratzen naiz behin Nafarroako Gobernuak bazuela diru kopuru bat irakurzaletasuna bultzatzen gastatzeko; tartean aritu nintzen, eta elkartearen jarrera oso ezkorra izan zen.

Gantzarain: Folklore aipatu duzue lehen, eta atzo irakurri nuen Twitterren: Bilbon umeak baserriar jantzita, Euskararen Egunean. Ba, listo, ez dago besterik esplikatzeko.

Pochelu: Iparraldean ez ninduke harrituko halako irudi batek, ez baserriarrez ez dantzariz.

Gantzarain: Egoera hori da. Gu ari gara mahai-inguru batean gauzak normalak balira bezala, baina hau simulakro handi bat da askotan.

Pochelu: Iparraldean euskara eta euskal kultura gauza bera da askorentzat.

Elortza: Gu ere, Bertsozale Elkartetik, oraintxe ari gara hori aldatzen. Noski, euskara gure indargune bat da, baina bagara euskal iruditegi horren ikurregi ere. Gu Kultura Sailarekin azken bi urteetan ari gara horretan. 2018ko gogoeta estrategikoan erabaki genuelako hori lortu behar genuela, Hizkuntza Politikaren Sailean barik Kultura Sailean jesartzea, eta HPSk bideratu ditzala diruak euskararen estrategia soziolinguistikoetara. Aldundietan gehiago kostatu daiteke hori, eta kolore orotako udaletan ere euskararen mahaira joan behar izaten dugu normalean.

Azkarate: Nik esango dizut Araban. Egon naiz zoro moduan *Zaldi urdina* lotzeko Oionen. Sekulako lorpena izan da. Pentsatzen nuen, 20.000 euro gastatzen badituzte festetan orkestra bat ekartzeko Zaragozatik, izango zituztela euro batzuk guretzat. Gure helburua ere bada antzokirik ez dagoen lekuetara iristea, Euskal Herri osoan biratu ahal izateko. Hori dena azaltzen nien eta begiratzen zidaten alien bati bezala. Jarri nintzen harremanetan mundu guztiarekin, Arabar

Errioxako euskara teknikariarekin, eta esan zidan: «Esango dizut egia, Edurne, Arabar Errioxa osoko euskarako partida maneiatzen dut eta dira 3.000 euro. Zerbait antolatzen badut herri batean, urte osoan ezin dut beste ezer egin inon».

Elortza: Beste anekdota bat... 2005eko Txapelketa Nagusian. Nafarroan, lotu dugu saioa eta astebete falta dela, teknikariak deitzen du, galdezka: «*Y los troncos, ¿dónde los vamos a poner?*».

Eta barreak eta hasperenak barrurako bidean.

Elortza: Beno, zer, gai handia?

KOKAPENAREN ERTZAK

Dena bertan behera gelditzen hasi zenean, eta luzerako, are bistarago geratu zen zein estu bizi diren kulturgile gehienak, euren jarduna aupatzen duten diskurtsoen atzean. Horri lotuta aldarri bat entzunarazi zen: sortzaileak ere langileak direla. Nola daramazue hori? Sentitzen duzue erresistentziarik aitortza profesional horrekiko?

Elortza: Esango dudan gauza bat edo beste ez da oso popularra. Eta hau nire iritzia da, ez Elkartearena, baina uste dut guk ere kolaboratzen dugula gauzak nahaste horretan. Diskurtso berean sartzen ditugu plano diferenteetako gauzak, eta ganorazko estrategia bat lortuko badugu, eta behar dugu, irakurketa eta analisi zorrotz eta zintzo batetik abiatu behar dugu. Hiru plano bereizten ditut nik: soziala, profesionala eta politikoa. Soziala da herri bizitzarena, kolektibitatea, kultura nola bizi dugun jendartean. Profesionalean sartzen da azkenaldian hain bogan dauden kontsumoa, merkaturak eta abarrrak. Eta politikoa, deitu nazio edo deitu estatu proiektua.

Uste dut plano sozialean ez garela sortzaileak protagonistak. Ez dugu izan behar. Hori da kultura bizitzeko espazio bat herritar guztiekin konpartitzen duguna. Eta esango nuke euskarazko kulturak, oro har, funtzio soziala dezente galdu duela, apur bat urrunduko egin garela jendearengandik; edo ez

garela joan jendea joan den norabidean. Eta ematen du administrazioari ez zaiola bereziki ardura hori; egituratzen dena, hein handi batean, izaten dela denok izateko edo saltzaile edo erosle, eta antolatzen dituzten ia denak euren buruari eder egiteko gailuak-edo direla.

Hortik salto egingo genuke plano profesionalera. Badirudi EAEn gai honi heldu nahi diola administrazioak, eta ondo dago, artisten estatutuarekin eta abar. Edurnek esan du, helburu lorgarri gutxi batzuetan ipini gaitezen ados, eta uste dut hori badela epe laburrean gure aldetik ere ahalik eta batuen landu behar dugun gai bat, behar delako. Baina arlo horretan badago beste puntu bat: artistak ere jarri behar du bere

«Sorkuntzatik bizitzea ez da eskubide unibertsal bat. Egiturazko baldintzak dira jarri beharrekoak, bai sortzaileentzat eta bai egiturentzat; bestela erraza da norbaitek esatea neurri bereziak eskatzen ari garela»

Igor Elortza

buruaren dimentsioan, eta zaila da. Mattinek esaten omen zuen bertsolariak bere burua pagatu behar duela. Nik ez nuke hainbeste esango, baina badago hortik ere. Mikel Sotori irakurtzen nion *Berria*-n bera lotsatu egiten dela prekaritatea gora eta behera egun osoa entzuten etxea, kotxea, eta soldata bat duen jendeari. Norekin konparatzen gara? Euskaldunok oro har bizi maila nahiko altuko jendea gara, baina gure inguruan oso egoera larrietan

bizi dira batzuk. Egia da prekaritatea dagoela sortzaileen artean, baina hori objektibizatu egin behar da. Nik esango nuke azken 10-20 urteotan gehientsuen ibilitako dozena bat bertsolari hartzen baditugu, batez beste, EAEn eta Nafarroako gutxieneko soldata irabaziko zutela; langileen batez besteko soldatetik nahiko urrun, beraz. Eta hori bai, hori objektiboa da.

Hori esanda, esan behar da baita ere sorkuntzatik bizitzea ez dela eskubide unibertsal bat. Egiturazko baldintzak dira jarri beharrekoak, bai sortzaileentzat eta bai egiturentzat; bestela

erraza da norbaitek esatea neurri bereziak eskatzen ari garela. Eta benetako politikak aurrekontuetan ikusten dira, ez diskurtsoetan. Ikus dezagun edozein administrazioren pila osoaren zenbat doakion kulturari, herri bezala zer garen ikusteko.

Eta plano politikoan?

Elortza: Hor ardura denona da, noski, baina administrazioarena handia da. Eta garbi esan behar da euskara bere hizkuntza duen herrian, kulturaren egiturazko baldintzen barruan, euskarazkoak berarentzat pentsatutako politikak eta bere diruak beharko dituela. Horretan Juan Jose Ibarretxe eta Gorka Urbizu ados daude. Ibarretxe azkenengo urteetan ari da esaten kultura dela giltza, eta horren barruan euskara, eta Urbizu esaten ari da Berri Txarrak-en bereizgarri nagusia atzerrian hizkuntza izan dela. Nafarroako gaztetxeetan hasi eta mundu osoan jo duen rockero bat eta EAEko bi legegintzalditan lehendakari izan den laudiotar bat bat datoz. Ez da nolana hiko analisia.

Pochelu: Iparraldeko egoera ezin da konparatu Hegoaldekoarekin, estatutu bat badelako artistentzat frantses estatuan, bai artistentzat eta bai teknikarientzat, eta horrek egoera aise errazagoa egiten du. Ez dira profesional guztiak intermitente, ez dituztelako baldintzak betetzen, edo beste jarduera batzuk dituztelako. Horien artean sartzen dira idazleak edo arte plastikoetako artistak. Ikusgarrigintza edo ikus-entzunezkoari lotutako sektoreak dira intermitente izan daitezkeenak. Horiek izan dute lorpena urte hastapenean: luzatu zaizkie epeak urte batez, eta eman die sekulako lasaitasuna. Ikusgarriak gelditu dira, baina pertsonalki babestuak dira. Uste dut modelo bat dela. Ez da estatuak ematen duen dirua, da zuk kotizatu eta berreskuratzen duzuna.

Oinarrian, badago lanbidearen aitorpena.

Pochelu: Bai, aspalditik datorrena eta zenbait politikarik ez dutena hain begi onez ikusten. Baina kentzen baldin badute intermitentzia, telebista desagertzen da, adibidez.

Azkarate: Konparaketa ona da ikusteko zein diren gure baldintzak Iparraldearen aldean. Kulturatik bizitzea ez dela eskubide unibertsal bat esan du Igorrek, baina, aldi berean, zure herriaren kulturaren parte hartu ahal izatea bada, hori jasoa dago giza eskubideen kartan. Hor dago koxka, ez? Agian ekarri behar dugu gure lanbidea oinarriturago, eta ogibide soil bat dela onartu. Hala izatea nahi genuke, baina sistemak ez du ulertzen: «Ez badituzu egunean zortzi eta astean 40 ordu egiten lan, zeinek ordaindu behar dizu soldata bat? Nik ez». Hori esaten du sistemak. Emanaldi batean edo grabaketa batean hamalau ordu egingo dituzu lan, baina sistemak, sinpleki, ez du ulertzen. Enpresa bateko faseak bai, baina sortzaileonak ere ez daude sistematizatuta: ideiak mamitzea, idazketa, bilkurak, produkzioa, banaketa... Nik, adibidez, sekulako lana daukat antzerki banatzaile bat topatzeko gure belaunaldian. Nahi nuke, baina ez dago. 30 urte bueltako zein gaztek nahi du izan antzerki banatzaile Euskal Herrian?

Sortu nahi duzuna sortzeko hautuak dira: edo beste lanen bat bilatu, zeinak ematen dizun diru iturria, edo zure ogibideaz bizi –nahiko zilegia dena, ez? Norbaitek abokatu ikasketak egiten baditu, garbi dago abokatu izan nahi duela, eta, lanik ez badu ere, abokatua dela eta langabezia dagoela. Aktore batek, sortzaile batek, etengabe galdetuko dio bere buruari lanik ez duenean ea zer den; autodenominatze hori ez dago bermatuta, horrek dakarren duintasuna kanpotik ere bermatzen ez delako-. Baina honetaz bizi nahi baduzu, ezin da beti proiektu pertsonaletan ibili, eta merkatu batera sartu behar zara, non enkarguz egiten den lan. Eta hor gehiago sartzen zara sisteman eta bestelako proiektuetan, zeinak agian ez diren artea, baizik eta entretenimendua.

Lander Garrok hala esan zuen apirileko greba digitalaren atarian: «Kultura beti da espekulazio esparru bat, oso kolokan jartzen dena behin eta berriz: zer gara? Zerbitzu publikoa, zerbitzu soziala, ondarea, industria? Pittin bat sailkaezina da gure jarduna, eta, hala denez, geure gremioa

albo batera uzteko joera dago». Sumatzen duzue galdera horien marmarra?

Pochelu: Niri iruditzen zait galdera horiek egiten ditugula ez dugulako kulturarentzat helbururik finkatu. Galdera ez da nor garen, da zer ekartzen dugun guk eta nora goazen. Iparraldean haurrek zer dakite euskal kulturaz, ez bada euskarari lotua edo irakasleren batek zerbait esan dielako? Ez da plazerarekin lotutako zerbait, gainera, eskolarekin lotzen delarik. Transmisioa eragileen esku geratzen da, baina eragile horrek uzten badu egunetik biharamunera, zulo bat uzten du.

Iparraldean itxaroten dugu kultura politika idatzia izatea. Elkargoan proiektu bat idatzi zuten ez dena oraindik atera, eta ez dakigu euskal kulturarentzat egingo den egiazko politika boluntaristarik. Iruditzen zait euskararentzat lortu direla hainbat gauza, egituratuago izan delako orain arte euskalgintza eta presio soziala ere izan delako, eta lortu dira behintzat zenbait hizkuntza politika. Baina euskal kulturen ez da deus planifikaturik ondoko urteentzat; bakoitzak egiten du bere aktibitatea, eta nehork ez du pentsatzen nora goazen. Hor sentitzen dut nik kristoren beharra. Gogoia ukaiteko antzerkia banatzeko, lehenik behar da antzerkia ezagutu, eta zenbatek ezagutzen dute? Horrek nau kezkatzen: nola presionatu ahal dugun denok maila politikoan zerbait egiteko. Ez da dena haien esku utzi behar, baina haiek dituzten fondoekin lagundu dezakete.

Suarez: Sartuko nuke beste aldagai bat eta da aitortza. Ez zait iruditzen idazle batek profesionala izateagatik estatus hobea daukanik. Horren azpian dago ez-profesionalizatzeko hori ere, eta dena amateurren jardun bat izatea. Uste dut horregatik ez dela egin gogoeta berezirik pandemiaren geroztik idazleek kasuan. Gehiago izan dira liburugintzari buruzkoak. Hala ere, ez dakit idazleek profesionalizatu nahi duten ere. Nobela bat idatz dezakegu eta zortzi orduko lan bat egin.

Hartzen duzue faltan kultura gremiotzat jotzearen kultura orokorrago bat?

Elortza: Lanaren kontsiderazioa zein jardueri lotzen zaien eta zeini ez, kultura sozialki ez dago hor onartua gure herrian. Hala ere, hasten garenean gremioa, kontsumoa..., kezka apur bat sortzen didaten diskurtsoetan sartzen gara. Frantzia dituzten kondizio batzuk lortuko bagenitu sortzailentzat aurrerapauso handia izango litzateke, noski. Baina egituren premiak ere hor daude, garrantzitsuagoa dena osotasunari begira. Egitura horiek guretik, herri ekimenetik, sortuak izatearen garrantziaz ari naiz, eta ez dakit duela hogeit urte baino ahulago ez gauden alde horretatik.

Plateruenaren itxierara salto eginda, adibidez, eredu baten amaiera aipatu da, baina eredu esatean hor ere ekonomiari begiratzen diogu, ostalaritza eta kultura bateratzen dituen horri. Eta jakin nahiko nuke Durangaldetik irten barik zenbat enpresari barkatu zaizkion Plateruenak duen zor erridikulua bider ez dakit zenbat, eta jardueraren eta gastuaren arteko erlazioan zenbat egitura publikok erakutsi dezaketen Plateruenak erakutsi dezakeena bere hamalau urteko ibilbidean. Baina eredu bat kudeaketa ekonomikoa baino gehiago da, lehengoarekin lotuz, eta euskal kulturaz azken mende erdian sortu ditugun gauzarik indartsuenak herri ekimenetik sortutako egitura enpresarialetan oinarritu dira. Eta horiek zer babes jasote gero instituzioetatik? Hor ikusten da proiektu eta egiturak ere sisteman egokitzen diren edo ez, ez bakarrik sortzaileak.

Euskaldunok hori ere badugu: autoantolaketa sena. Eta azken pare bat hamarkadetan kolpe handiak hartu ditu. Plateruenaren kasuan hori ere ikusten dut. Beldurra ematen dit diru-laguntzen menpekotasun total eta publikoaren ulerkera administratibo horrek. Esajerazio bat da, badakit, baina batzuetan ematen du ezin dela liburu bat idatzi bekarik gabe, ezin direla egitasmo kolektiboak bideratu diru-laguntza ziurtatu aurretik... Eta euskaldunok azken mende erdian egin ditugun gauzarik garrantzitsuenak ez dira kultura eta balio horiekin egin.

Pochelu: Ni horrek ere kezkatzen nau, autoantolaketaren ahultzeak. Zer bilakatuko garen hainbat egitura hasten badira desagertzen banan-banan. Dena geldituko da administrazioaren

esku. Kezkatzen nau nola egin segida horretan lotzeko, transmisioari lotuta. Kontsumora lerratzen ari gara; pasiboak baldin badira zale guztiak, aktiboak izan gabe, ez dakit zer eka-rriko dugun bihar.

Suarez: Beñatek [Gaztelurrutia] ere aipatzen zuen jarduera motaren aldaketa, norantz goazen egun. Eta uste dut pandemiak areagotu egingo duela hori. Lotuta dago behar diren azpiegiturekin, talde edo sortzaile bakoitzaren dimentsioarekin. Baina nik uste dut birdimentsionatuko direla gauzak, eta txikiagora joko dugula etorkizunean. Ez dut zentzu txarrean ikusten.

Gantzarain: Oso sakonera joatea da, baina nik uste dut funtsezko galdera dela: zer da eta zertarako nahi dugu kultura? Horregatik ez dago helbururik, konplikatu delako horri erantzun bat ematen saiatzea. Igorrek aipatzen zuenetik, ni Azpeititik nator, herri mugimendu batetik sortu den egitura enpresarial batekin, instituzioekin elkarlanean jardun nahi duena, kasu honetan Azpeitiko Udalarekin. Baina zenbat kostatzen den eredu horrentzat zirrikituak bi-

latzea, inertzietatik eta gauzak egiteko modu ezarrietatik beste batzuetara salto egitea. Batek esaten zuen oso erraza dela ideia berriak sartzea baina oso zaila ideia zaharrak kentzea, eta hori da pixka bat gertatzen dena. Niretzat pandemiak sortu duen kontu tristeenetako bat da banatu duela kultura sortzaile eta kontsumitzaileen artean. Kulturak zerbait aportatu behar badu hurrengo urteetan, hautsi beharra dago dikotomia hori. Pertsonalki askoz hurbilago nago eta gehiago gustatzen zait aspaldian sortzaile amateur batek zerbait egitea herriko bizitzan, sortzaile baten halako hedapen eta proiektzioa baino.

«Ni autoantolaketaren ahultzeak ere kezkatzen nau. Zer bilakatuko garen hainbat egitura hasten badira desagertzen banan-banan. Dena geldituko da administrazioaren esku»

Katti Pochelu

Eta ados nago: politika aurrekontuekin egiten da. Hor ikusten da zein diren helburuak eta lehentasunak. Beti entzuten dugu kultura diru-laguntzen menpe dagoela, eta industria nola dagoen gustura jakingo nuke. Aldi berean, ezin dugu egon erakunde publikoen zain, beste era batera eragin behar da. Baina ikusten duzunean 25 urteko inor ez dagoela antzerkia banatuko duena, baina ez dagoela beste ezertarako ere? Leku guztietan galdera bera agertzen da: nola berrituko dugu hau? Nola biziberrituko? Helburua hori bada, pentsatu dezagun estrategia bat horretarako.

Elortza: Notizia onak ere eman behar dira. Helburu zehatzekin eta gure baitatik antolatzen garenean eta forma ematen diegunean sortzaile/kontsumitzaile ez diren beste harreman batzuei, etortzen dira etekinak. Gure buruari lore gehiegi botatzen dizkiogu agian bertsolariok, baina, adibide moduan aipatzekoa da Elkartearen 2018ko gogoeta estrategikoan larunbat oso batez Baionan eta asteburu oso batez Barrian ehun eta piko pertsona egon ginela kontu hauetaz eztabaiatzen eta erabakitzen; ez zen izan festa bat, lanean jardun genuen oso ondo antolatutako gaitegi batekin, eta, tartean, gazte asko zegoen. Esan nahi dut: moduak badaude eta bateratasun handienak hortik etorriko dira, baita politika publikoak eskatzeko ere. Publikotasuna ez ulertuta goitik behera, eta administrazio eta alderdi politikoen logikatik bakarrik.

Azkarate: Diziplina askotatik begiratzen diogu Bertsozale Elkarteari, Euskal Herrian kultura mailan antolatuen dagoen diziplina delako. Dinamoarekin ere sentsazioa da plaza lortu dela, jendea badagoela ikusmira horretan eta dela eredu hibrido bat ez gaudena oso ohituta. Orain arte izan da edo administrazioa edo militantzia, eta nola nahastu hori sekulako gaia da.

Gantzarain: Benetan uste dut hori dela gaia: nola autoantolatu. Askotan saiatzen gara, eta uzten dugu. Konplikatu izaten da gauza horiei luze heltzea.

Elortza: Helburua bera konkretizatzeak laguntzen du egitratzen. Agian hasi behar da gauza lorgarrietatik, eta hortik

joan helburu anbiziotsuagoetara. Askotan premia bezalakorik ez dago zezenari adarretatik heltzeko. Bertsozale Elkartearen genesia, funtsean, 1980ko hamarkadan bertsozaletasuna mundu ruralean hiltzeko zegoen beldurretik dator, eta Euskaltzaindiarekin txapelketa bat antolatzeko orduan izan zen desadostasunean dago. Txapelketa hura egin eta bi aukera zeuden mahai gainean. Bata aukera enpresariala zen, eta bidea izango zen, gutxi gorabehera, pilotariak egin dutena –greba pozgarri bat bizi izan duena oraintsu, eta gauza askori buruz hitz egiten, tartean, pilota eskolen lekuaz-. Eta bestea hartu zen: bertsozaletasuna ardatz duen proiektu baten baitan biltzea, bertsolariak eta bertsozaleak, bide hori elkarrekin egiteko. Nik pandemiarekin bai sumatzen dut beste diziplina batzuetan ere inertzia batzuk apurtu direla, edo apurtu nahia, astindu zoritxarreko honek egiturazko baldintza ahulak hainbeste bistaratu dituelako.

Greba digitalera itzulita, mila lagunetik gora batu zituen, eta askok goraiatu zuten kulturgintzak inoiz gutxitan emandako irudi bateratu hori.

Azkarate: Poztu ginen baginelako batzuk, baina ez gara bildu. Orain dela gutxi ospatu da Zurrunbilo, Gasteizen. Periferia, euskara, arte garaikidea. Parte hartu genuenon artean liburu bat aurkeztu dugu, hain zuzen, etorkizunari buruz, eta *pandemia* hitza aipatu gabe. Gu saiatu gara biltzen, antzerki mundua saretzen. Pentsatu genuen EHAZE erabili genezakeela, eta helduenek esaten ziguten agian eurak apartatu behar zirela, orain arte ez dutelako asmatu. Haiek bazekiten egin behar dela, guk ere badakigu, baina ez dugu asmatzen. Azaltzen ziguten orain arte oso polarizatua egon dela euskal antzerkiaren mundua, dela, bestalde, teatroaren *off-aren off-a*, eta ez direla adostasun batera iritsi azken 50 urteetan. Guk hartzen dugu alde batetik zama eta bestetik beraiek egindako lana, zer egin behar ez den jakiteko bada ere; ze hori ja egindako lan bat da, eta berriro beraiek egindako galderara itzultzen gara: orain zer? Zein da plana? Nola saretzen gara?

Gantzarain: Nire inpresioa da denbora guztian ari garela eztabaidan, eta ondorioak ateratzen badira ere, ez direla aplikatzen, ez baitaukagu eskumenik. Zeini eman behar zaizkio ondorio horiek aplikatu ditzan bere kultur politikan? Erreleboaren zailtasuna, ikusgarritasun falta, itun baten beharra... Diagnostiko konpartitu bat dagoenean ere, gero ez dago hori eramango duen ezer edo inor. Hor gabiltza bueltaka.

Elortza: Erantzunak egon badaude, eta hitza feminismotik dator baina euskaldunok *ahaldundu* garenean egin ditugu gauzarik emankorrenak. *Zaldi urdina*-ren atzean dagoen egi-

turatzea erantzun bat da, Gasetibeltza erantzun bat da, Bertsozale Elkartearen erantzun bat da, Dinamoaren erantzun bat da... Kontua hori da: neu lehenengo gogoetatu eta *txapa* sartzen, baina egin egin behar da. Opinatzeko, gainera, denok dakigu oso ondo, aurretik eta ondoren. Baina egiten duen jendea interesatzen zait niri, ze askotan ematen du beste denek hobeto egingo zuketela.

Gantzarain: Bai, ados. Gero beste gauza bat da egiten duen horri bidea pixka bat erraztea.

«Denbora guztian ari gara eztabaidan, eta ondorioak ateratzen badira ere, ez dira aplikatzen, ez baitaukagu eskumenik. Diagnostiko konpartitu bat dagoenean ere, gero ez dago hori eramango duen ezer edo inor»
Xabier Gantzarain

Pochelu: Alde horretatik berri on bat aurkeztu dute asteon: Udalbiltzaren *Geuretik Sortuak* proiektua, esperimentazio bat egingo duena herriz herri. Bada transmisio lana, zaletasuna sortu ahal da profesional eta herritarren artean... Ikusiko dugu zer ateratzen den, baina abiapuntua interesgarria ikusten dut. *Zukugailua* izena duen egitura berria ere sortu dugu aurten Ipar Euskal Herrian, zinema eta ikus-entzunezko sorkuntzaren bultzatzeko tresna. Hemen biltzen dira sail horretan diharduten eragileak: Kanaldude telebista, ekoizleak, zinema

gelak, teknikariak eta sortzaileak. Helburuak: sortzaile berrien laguntzea, ekoizpen mintegia sortuz ekoizpeneko garapen fasea azkartzea eta profesionalak formatzea, eta irudi heziketa eskaintzea gazteei, eskolatik kanpo, tailerren bidez, gaurko zaileak eta biharko sortzaile berriak sortzeko. Ez da dena ilun ere.

ORAIN(GOZ) DATORREN KULTURGINTZA

Egin egin behar dela, bai, baina egin ezinak bereizi du aurtengo urtea. Durangoko Azoka ere, dimentsio handieneko kultur hitzordua, komunitatearen igurtzirako hain garrantzitsu eta herritar askorentzat euskal kultura bertatik bertara bizitzeko data eta leku ia bakar dena, ezin izan da *normal* antolatu. Larritzen zaituzte halakoen behin-behineko itzaltzeak?

Suarez: Durangoren kasuan, nik ez dakit zer den okerragoa, zerbait urtebetez galtzea edo egon den obsesioa egin behar horrekin. Pasatzen da zerbait urte batez ez egiteagatik? Oso jarrera pertsonala da, baina nik nahiago dut akaso ez egitea. Liburuak eta diskoak erosteko aukera zorionez badaukagunean orain, ez?

Gantzarain: Niretzat oso interesantea da Iñigo Astizek esaten zuena, bi metafora erabili direla batez ere Durangoko Azoka definitzeko: oasia eta erreserba. Berak planteatzen du ea eman diezaiokegun beste metafora bat honi. Eta aurtengoa oso metafora ona da: azoka bat, besterik gabe. Erosi eta etxera iritsiko zaizu. Etorkizuna uste dut oraindik asmatu ez dugun hirugarren metafora horrekin lotuta dagoela. Kuriosoa egin zait: Sarrik bidaltzen du bideo bat, *islatik*, bere atzean jardun zoragarri bat daukala, eta esaten du: «Ni pribilegiatu bat sentitzen naiz komunitate batentzat idazten dudalako». Eta diozu, ene... Baina egia da, berdin da non zauden; euskaraz idazten duzu, irakurleak dituzu, iristen zaizu *feedback*-a, eta horientzat idazten duzulako da zure jarduna zerbait inportantea.

Bestela? Antzeko zerbait gertatzen da Durangorekin. Nik uste dut sinbolikoa izan dela aurtengoa, heldu egin behar zitzaion.

Elortza: Niri iruditzen zait halako ikusgarritasuna daukaten ekimenei eskatzen zaiela den-dena. Hiperkritikoak ere bagarenez, eta alde ez hain positiboak gehiago azpimarratzen ditugunez positiboak baino. Gutako inor Berlinera joan eta antzeko zerbaitekin topo egingo balu, etxera itzuleran bere amak aguantatu beharko luke! Aurten egia da Landako saltoki handi bat bihurtuko dela, eta Durangoko eta inguruko jendeak joan ahalko dugula zuzenekoetara; baina saiakera bat egon da ahal den neurrian hori beste herri batzuetara ere eramateko, kontzertuen bidez, eta badakit Durango espazio eta denboran zabaltzeko nahia lehendik datorrela. Lehen esan duguna da: premiak ekarri du azkenean.

Bertso Txapelketa Nagusia da dimentsio handiko beste hiztordu nabarmenena. 2021ean zen egitekoa, berez. Atzeratu beharrak sortu du kezkarik?

Elortza: Gure irakurketa garbia da: orain plazak eskatzen du herri mailako antolakuntzei adi egotea, hori zaindu eta bertso eskolak egiteari ez uzteko nagusiki jende horri eman behar zaizkio baliabideak. Alde horretatik, uste dut hemen-dik bost-sei urtera anekdota bat izango dela txapelketen zikloa atzeratu izana. Salbuespen batekin: belaunaldi gazteak, jauzi berri baten atarian daudenek, atarian baino gehiago esango nuke, gainera, denbora gehitxoago itxaron beharko dute, eta horiek bertso gintzari ekarri diotena kanonizatzea atzeratu egingo da apur bat.

Xilabari eustea erabaki zen hasieran, Katti, argudiatuta hura dela Ipar Euskal Herrian euskaldunek duten elkar-gune bakarrenetako bat. Erori zen, baita herri kulturari oinarritutako kabalkadak, pastorala... Zer ekarri du horrek?

Pochelu: Bai, dena desagertu da. Elkartu direnak lagun artean elkartu dira, baina euskal komunitatea elkartzeko hainbat gune

desagertu da aurten: Xilaba, Nafarroaren Eguna, Herri Urrats, EHZ, Zinegin, Euskaraldian antolatuko ziren ekitaldiak... Herriarrek sortu ekitaldiek ekarpen handia egiten dute, herria biziarazi eta erakargarri bilakaraziz: elkargune bilakatzen da, plazara gogoeta ekartzen da, eta memento berean transmisio lana ere egiten da, zaletasun eta gaitasun berriak sortuz. Bestak ere herrietako ekitaldi garrantzitsua dira, ez bakarrik ospakizun bezala, antolaketa bera herriko gazte talde batek egiten duelako: dinamika sortzen da horien artean, gogoeta, eta elkarlana eta kudeaketa ikasten. Hori ere ezeztatu da. Oro har, ekosistema guzia da hunkia izan, eta eragina aski zabala da.

Errotzen hasiak ziren egiteko modu batzuk ere jarri ditu kolokan krisiak, publiko ahalik eta puztuena lortzera bideratutakoena, tartean. Irudi lezake horrek panorama orekatuago bat ekar lezakeela, gehiagok izan dezaketelako kabida. Euskal kulturagintzak, ordea, zein puntutara arte gal ditzake hitzordu handiak? Lantzean behingo 10.000 laguneko irudiak?

Elortza: Nik ez daukat zalantzarik euskal kulturak behar dituela halakoak; BECeko irudi eta 10.000 laguneko kontzertu gehiago. Jendeari orokorrean iristen zaion apurra hori da. Kausa ugarien oreka ondo dago, baina nik beste kausa batzuk ehun urtera errazago ikusten ditut bizirik, euskal kulturaren kausa baino.

Gantzarain: Negargarria dena da Zumetari Euskararen Egunean egitea omenaldia, San Telmon. Euskararen Egunean. Zergatik? Pintore bat da. Pintatu egiten du. Uste dut gure mehatxu handiena, eta aspalditik, folklorizazioa dela. Segur aski, Iparraldean garbien ikusten den hori.

Azkarate: Ni bat nator. Txikira jotzeko joera dugu, eta behar ditugu ebento potoloak. Ados gaude pandemiak irakurtzen gaituela produktu eta kontsumitzaile bezala, eta ez da aski. Baina ebento handiak oso beharrezko ditugu: euskaldunak beti ukatu dio bere buruari esperientzia estetiko sublimateak izatea.

Suarez: Bai, eta autoestimurako ere oso inportanteak dira.

Gantzarain: Hori da. Baina ebento handiak ez dira jende asko biltzen dituztenak bakarrik. Ebento handia da *Francoren bilobari gutuna* edo *Hondar ahoak*. Zuzendariak esaten di-

«Idea onak badaude, baina gero behar dugu horretan sinistuko eta lanean jarriko den jendea. Norantza zehazki asmatzen ez baduzu ere, bidea egiten duzu, eta norantza zein den eztabaidatzen ari zaren bitartean, ez zoaz»

Igor Elortza

zu: *Patria*-ko kapitulu bat kostatzen den erdiarekin guk lau kapitulu grabatu ditugu. Eta, euskaldun bezala, pixka bat harrotzeko motiboa bada hori, *Hondar ahoak* –eta ez Euskaraldia–. Esperientzia estetikoaren aldetik ere bai. Oso atzera joatea da, baina nik nire kuadrillarekin ez dakit zenbat gauza konpartitu ditudan euskal kulturakoak. Gutxi. Hertzainak guretzat zen jeniala, eta niretzat hori da kontua: euskaldun izatea merezi izateko motiboak ematea.

Pochelu: Ekitaldi ttikiak ere ematen ahal dute hori, euskaldun gisa gozatzea eta partekatzea. Baina ekitaldi handietatik iruditzen zait indarberrituak ateratzen garela. Beti fatalismo horretan gara, hiltorian... Eta BECen zara eta uste dut anitzek emozio hori bizi izan dugula: uau, hemen gara, bizi gara eta gauzak egiten ahal dira. Iruditzen zait energia ematen ahal dutela eta itxaropenari lotuak direla, eta beharrezkoak ditugula.

Azkarate: Aldatzen du euskaldun gisa existitzeko modua. Herriko elkarte batekin poesia irakurraldi bat antolatzeak elikatzen gaituen bezala, baina horrelako erreferentziak eta posible dela ikusteak denok elikatzen gaitu.

Elortza: Idea onak badaude, baina gero behar dugu horretan sinistuko duen jendea, lanean jarriko dena, ideia aldiro dudana ipiniko ez duena, ze beharbada norantza zehazki asmatzen

ez baduzu ere, pixka bat erratuta ere, bidea egiten duzu, eta norantza zein den eztabaidatzen ari zaren bitartean, ez zoaz. Esperientzia estetikoarena-eta, bat nator, baina uste dut ikusgarritasunarena ez dugula ahaztu behar. Terriblea da Bernardo Atxagari entzutea *Argia*-n euskal literaturak 5.000 irakurle behar dituela. Nahiz eta Durangoko Azokaren ekintza sozial hori aurten oso modu murriztuan eman, betikook ez garen jendearengana iritsiko da, eta horrek bakarrik ahalbidetu dezake jende gehiagok bizitzea esperientzia estetiko hori.

Gantzarain: Esperientzia estetikoarekin esan nahi nuen jende askok konpartitzen dituenak. Hertzainak horregatik esan dut. Zenbat euskaldun hasi da eta hezi da baita sentimentalki ere Hertzainak-i esker? Zerbait konpartitua izateak bihurtzen du inportante. Askoren artean konpartitua izateak egiten du komunitatea indartzea, hor sentitzen zara euskaldun, azkenean *komunio* bat delako, hitza ez zaidan arren asko gustatzen.

Elortza: Deituiozu *erritu*, hatxegaz politago, Hertzainak bezala [barreak].

Epe motzean badirudi, ordea, ez dela aukera handirik egongo jende asko bilduko duten hitzorduetarako. Datozen hiletako aurreikuspenak kontrako norantzan datoz: zero kilometroaren kulturgintza ei dator.

Gantzarain: Argi dagoena da zero kilometroko hori ez badago, bestea, esperientzia estetiko konpartitu zabalagoena, ez dela egongo.

Azkarate: Uste dut tokiko kultur jarduera txikiek ekarriko dutela gauza on pila bat. Sekulako lorpena izan daiteke jendeak ezin badu herritik mugitu, herrian bertan egiten denean parte hartzera deitua sentitzea. Hor ere sortzen da beste komunitate mota bat.

Elortza: Zero kilometroaren filosofia ere datorren mundutik dator, agroekologiatik. Dena hiriak jaten duen gizarte bat eraiki dugu, eta herrietan ere egon behar da bizitza, den-da txikiena, kulturarena, eta abar. Abiapuntua eta helburua

bat-bat eskala da. Baina ebento *handiena* ere hortik dator! Berri Txarrak-ek 10.000 lagun batzea ezin da ulertu gazte-txerik gabe, adibidez, eta ezta gaurko gaztetxeak ere 30-40 urteko bilakabiderik gabe ere, Hertzainak eta beste hainbatekin hasten dena. Bertso finala ulertu ezin den moduan bertso eskolarik gabe eta urte osoko plaza mordo hori gabe. Askotan gure pentsamendua lineala da, eta desioz behetik gorakoa, baina zirkularra da gehiago hau dena. Denok gara ezinbestekoak esan duzu lehen, Gantza, baina gauza batzuk ezinbestekoagoak dira, eta hor sartzen da herrietako jarduna. Kopuruz ere, bertso final batean 15.000 lagun batzen badira, lau urte horietan plazaz plaza jende gehiago doa bertso saioetara. Kontzertuetan ez dakit, ni oso zalea naiz, eta rockean behintzat azken urteetan igartzen da beherakada.

Murrizketen mamua dabil orain, eustea tokatuko den sumoa. *Sisiforen paperak* antzezlana estreinatu da berriki, eta Harkaitz Cano gidoilariak hala deitu du euskaldungoarengan ikusten duen malefizioa izendatzeko, zenbait eztabaida gaindituta zeudela zirudienean, harria erori eta atzera hutsetik hasi beharrarena, behin eta berriro. Bi alde ditu horrek: nekea bai, baina baita erresistentzia ere. Bukatzeko, nola sumatzen duzue balantza?

Suarez: Nik aipatuko nuke murrizketak jada heldu direla. Objektiboki zerga bilketa txikiagoa da, erakunde publikoek diru gutxiago izango dute; beraz, inoiz baino beharrezkoagoa izango da aipatu den herri ekimen hori. 2021a ea nola doan, baina 2022an aurrekontuak askoz txikiagoak izango dira. Diru-laguntzen menpekotasunetik ateratzeko beharra aipatu da, baina uste dut gure espektatibak jaitsi egingo direla.

Gantzarain: Ematen du euskaldunentzat idatzitako liburua dela Sisiforena. Baina nik adanismoa ere aldarrikatu nahi dut. Oso izen txarra dauka, eta behin adin bat daukagunok beti hasten gara «hori guk egin genuen duela ez dakit zenbat denbora». Ni adanismoaren alde nago, eta zuk 20 urte

daukazunean zuk kontatu behar duzu mundua, inporta ga-be 45 urte lehenago zeinek zer esan duen. Hori da benetan zerbait berrituko duena, etorriko dena bere lekua egitera, bere ikuspegiarekin. Esperantza badaukat harria altxatuko dugula berriz.

Azkarate: Nire galdera da: harria bera da? Edo harri ezberdinak eraman ditugu?

Gantzarain: Mitoaren arabera harria beti bera da, baina, aldi berean, ez da sekula harri bera, jada pasatu duzulako denbora bat, higadura bat dagoelako...

Pochelu: Batzuetan esperientziarekin igotzen duzu errazago, bestetan energia gutxiagorekin...

Azkarate: Guk, hain justu, Formol laborategia galdera horiei erantzuteko sortu dugu. Beti da: «Eta orain zer?». Badago presio bat: beti da etorkizuna zerbait egiteko esaten dizuna, eta, aldi berean, esaten dizuna «baina hori egin zen». Balle, ba orduan zer? Beti galdera bera da. Lehen esan dugu: ekintzara pasatu behar gara, baina arlo artistikoan gertatzen bagara, erreala da galdera? Gure belaunaldiak sufritu duen paradigma aldaketa guri tokatzen zaigu kontatzea, beste batzuek egin duten bezala. Harri hori guk ere herentzian jaso dugula pentsatzen dugu, ze hausnarketetako bat da eta orain zer egin euskal kulturarekin, zein den gure erantzukizuna. Badugu sentsazioa beste batzuek utzitako lekutik beharrean, harria abiapuntuko kasillatik hartu behar dugula. Belaunaldi bezala hori guretzat bada nahikoa gai obra bat eta konpainia bat abiatzeko. Hain justu, delako gai bat belaunaldi bezala eta euskaldun

«Hausnarketetako bat da eta orain zer egin euskal kulturarekin, zein den gure erantzukizuna. Belaunaldi eta euskaldun bezala zeharkatzen gaituen gai bat da. Gu hori gara: eta orain zer konstante bat»

Edurne Azkarate

bezala zeharkatzen gaituena. Gu hori gara: eta orain zer konstante bat. Ekintzara pasatu behar gara eta egin behar dugu. Ah! [Arnasa hartzeko hasperen bat erdi barrez]. Ez gara gu lehenengoak esango dugunak zeinen nekeza den euskaldun izatea. Zenbat bertsolarik, poetak, musikaririk bota duen hori aurretik.

Elortza: Edurnek esan du dena. Bakarrik gehituko nuke gogorra dela, baina ederra. 🍷

LIBURUAK

97 Euskal liburugintza 2018
Xabier Eizagirre Gesalaga

Euskal liburugintza 2018

Xabier Eizagirre Gesalaga

Filosofian lizentziaduna eta JAKINEKO erredakzio burua

J oan Mari Torrealdaik 1976tik 2017 arte, urtero-urtero etenik gabe, liburugintzaren ikerketa soziologiko sistematikoa osatu eta JAKIN aldizkarian argitaratu zuen, hain zuzen Parisko Institut d'Études Sociales-en soziologia lizentziaturarako tesinari heldu zionez geroztik. Robert Escarpit soziologoaren eredu metodologikoa aplikatu izan zion euskarazko liburuaren munduari, hau da, datu estatistikoak bildu eta aztertuz eta horien gainean ikerketa kualitatiboa eginez. Lan honek bi emaitza sendo ekarri ditu: batetik, euskarazko liburugintzaren katalogoa osatu du Jakinek; eta, bestetik, liburugintza kultura oso baten osasunaren adierazletzat hartuta, sei hamarkadetako sistematizazioa ahalbidetu du, indarguneak eta ahulguneak modu propositiboan identifikatuz.

2018ko liburugintzaren ikerketa duzu ondorengoa, Torrealdaik, zendu aurretik, Jakineko lankideoi erakutsi eta erreleboa pasatu ondoren egindakoa. Aurrerantzean ere ikerketa lerro honi segida emango dio Jakinek, Torrealdaik berak antolatuta eta ebatzita utzi moduan.

Ohar metodologikoak

Liburugintzaren azterketa honi ekiteko, Torrealdaik urte eta hamarkadatan zehar taxutu eta findutako metodologiari jarraituko diogu, bi urrats nagusitan: informazioaren bilketa eta azterketa bera.

Informazioaren bilketa

Lehen urratsa liburuen katalogoa osatzea izaten da. Eta, horretarako, liburuak berak biltzen saiatzen gara. Baina ematen duena baino nekezagoa da liburuen informazioa inguratzea. Guk informazioaren gune zuzenera jotzen dugu lehenik, argitaletxeetara, eta gero sare pelagikoak botatzen ditugu hemen eta han. Gezurra badirudi ere, ez dugu lortzen euskal argitaletxe guztiek informazioa eskura diezaguten; esan beharrik ez dago kanpoko argitaletxeekin areagotu egiten dela bilketaren zailtasuna. Eta, hala ere, katalogoa osatzea lortzen dugu.

Gure informazio iturriak, aurten, hauek izan dira:

- Argitaletxe eta argitaratzaileak zuzenean: %37,6.
- Liburutegiak, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Donostiako Udal Liburutegi Nagusia: %22,2.
- ISBN (*International Standard Book Number*), ELSN (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala) eta EIPS (Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea) arakatuz lortua: %38,8.
- Bestelako bideak (Internet, Biblioteca Nacional espainiarra...): %1,4.

Informazio bilketa horrek helburu bikoitza du: batetik, urteko liburuen katalogoa osatzea; eta, bestetik, azterketa egin ahal izateko informazioa biltzea.

Azterketak eta alderaketak egiteko, ISBNdun tituluak bakarrik erabiltzen ditugu, inolako salbuespenik gabe. Liburuen katalogoa osatzeko, aldiz, eskuzabalago jokatu ohi dugu, ISBN gabeko batzuk ere sartuz, interes orokorra baldin badute. ISBN delakoa sistema numeriko nazioartekoa da, helburu komertzialak eta bibliografikoak dituena. Bere alderdi bibliografikoa interesatzen zaigu guri, berari esker egin baitaitezke gainerako kulturetako bibliografiarekin alderaketak.

Informazioa ahalik eta zehatzen bildu eta gero, liburu bakoitzaren fitxa bibliografikoa osatzeari ekiten diogu, dozena bat inguru datu edo ezaugarriren inguruan: titulua, autoreak, itzultzailea, elebitasuna, argitalpen maila, moldatzailea, argitaratzailea, koedizioa, herria, neurriak, orrialde kopurua, gaia.

Gaia aipatu dugu. Izan ere, liburua fitxatzeko orduan, sailkapen tematikoak garrantzi berezia du. Espainiako ISBN agentziaren ildotik abiatu genuen bidea. Urte luzetan, CDU edo Sailkapen Hamartar Unibertsalaren arabera sailkatu ditugu liburuak.

Jasotzen dugun eta bilatzen dugun informazioari esker fitxa bibliografikoak osatu ondoren, urteko katalogo osoa gure webgunean jartzen dugu kontsultagai. Esan bezala, azterketarako erabili ditugun tituluak baino gehiago daude webguneko zerrendan. Izan ere, eduki aldetik interesgarriak izan eta arrazoiren batengatik ISBN gabe argitaratu diren batzuk ere eransten dizkiogu zerrendari.

Azterketa hiru ataletan

Informazioa bildu ondoren, prest gaude azterketarako. Hiru ataletan banatzen dugu azterketa hori: ekoizleak eta ekoizpena, eskaintza editoriala eta ekoizpen tematikoa.

1. Lehen atal nagusia argitaratzaileei eta horien jardunari eskaintzen diegu. Informazio kuantitatibo ugari eskaini ohi da hemen: iturri desberdinen arabeko titulu kopuru desorekatua, ekoizle kopurua, hamar argitaletxe nagusien ekoizpena, argitaratzaileen tipologia eta tipologiaren arabeko produkzioa. Eta, testuinguru honetan, hezkuntzako curriculumaren funtsezko auzia azaleratzen zaigu: irakaskuntza liburua non sortu eta lantzen da? Urtea joan eta urtea etorri, errealitate berarekin egiten dugu topo, alegia, irakaskuntza tituluetan gehienek curriculum espainola daukatela muinean. Torrealdairen urteroko azterketak eta salaketak ez dira, tamalez, erabakigune nagusietara iritsi.

2. Bigarren atalean, eskaintza editorialaren datu absolutu eta kuantitatiboak aztertzen dira: tituluak zenbat diren, horien artean zenbat diren nobedade eta zenbat berrargitalpen, zenbat diren jatorrizko eta zenbat itzulpen. Deskribapen kuantitatibo horri, mende berriarekin, eboluzioaren bi osagai erantsi zizkion Torrealdaik: eboluzioaren lerroaren eta eboluzioaren

2018ko ISBNdun
titululuen kopurua 2.138
da, horietako %86,8
bertsio analogikoan eta
%13,2 digitalean. Iaztik
hona 156 titulu gutxiago
argitaratu da

indizearen grafikoak. Lehenak, eboluzioaren lerroak, 2000ko emaitza erreferentziatzat hartu eta harrezkeroko balioak neurten ditu urtez urte. Bigarrenak, eboluzioaren indizeak, aurreko urteko erreferentzia laburra hartzen du kontuan, urte batetik besterako aldaketa zein izan den adieraziz.

Eboluzioaren ikuspegia, egia esan, betidanik hartu da kontuan azterketa hauetan. Analisi guztietan nagusitzen da ikuspegi historikoa. Izan ere, testuinguru kronologikoak ematen dio datu absolutu isolatuari ez bakarrik kokapena, baizik eta baita balioa eta esangura ere.

3. Hirugarren atalean, ekoizpen tematikoaren azterketak eskaintza editorialarena osatzen du. Horrexek ematen dio zentzua, gure iritziz, liburugintzari buruzko gure azterketari. Azpimarra dezagun Torrealdairen lana ez dela izan sekular lan estatistiko hutsa: estatistika, liburuaren soziologiaren ikuspegian, euskarria da, edukiak agerian jarri, batetik, eta sakondu ahal izateko heldulekua, bestetik.

Horrenbestez, datu soiletatik harago kokatzen gara ekoizpen tematikoan. Urteko ekoizpena –aurtengo 2.138 tituluak, adibidez– nola banatzen dira gai eremutan? Horri erantzuteko, sei gai eremu nagusi bereizten ditugu: hezkuntza eta irakas-kuntza liburua, haur eta gazteentzako liburua, giza eta gizarte zientzietako liburua, helduen literatura, zientzia eta teknika alorreko liburua eta aisia liburua. Gai eremu bakoitza zehatz arakatu ohi dugu: datu absolutuak, ehunekoak, eboluzioa, edizio maila, itzulpen maila...

Aurtengo azterketaren atarian

2013. urteaz geroztik, bitan banatuta eman ohi dugu azterketa hau. Batetik, eskuetan duzu paperezko bertsioa: laburragoa

izanagatik, azterketaren zati mamitsuena hementxe azaltzen dugu. Baina, bestetik, hori osatzeko, webgunean aurkituko duzun bertsio digitalera jo behar da (artikulu honen amaieran erantsi dugu QR kodea). Informazio osagarriak, zehatzagoak, luze-zabalagoak, han daude. Webgunean, dago, orobat, urteko katalogoa, hau da, 2018ko titulu guztien fitxa bibliografikoa, ISBN duten tituluena (2.138) zein ISBN gabeko hainbatena (174). 2018ko katalogoak 2.312 titulu biltzen ditu guztira.

Hona hemen 2018ko datu kuantitatibo esanguratsuenak:

- Argitaratzaileei dagokienez, ekoizleen kopurua ez da urtetik urtera modu esanguratsuan aldatzen: 300 inguru dabil aspaldi. Jakina, ekoizle ugari horien artean denetarik dago: argitaletxeak eta argitaratzaileak, txikiak eta handiak, profesionalak eta amateurrak, bertakoak zein kanpokoak, publikoak eta pribatuak, izaera askotarikoak.
- Eskaintza editorialari dagokionez, 2018ko ISBNdun tituluaren kopurua 2.138 da, horietako %86,8 bertsio analogikoan eta %13,2 digitalean.

Iaztik hona 156 titulu gutxiago argitaratu da. Digitalean izan da galera osoa (220 titulu); aitzitik, liburu analogikoak 67 titulu egin du gora.

Nobedadeak %72,4 dira, 1.547 titulu, iaz baino 193 gutxiago. Berrargitalpenen kopuruak, 591 titulu, 37 unitate irabazi ditu iaztik, eta %27,6 dira aurten.

- Gaiei dagokienez, haur eta gazteentzako liburua lehen tokira igo da, 2010 eta 2013an bezala, 742 titularekin (ekoizpen osoaren %34,7, iaz baino 4,4 puntu gehiago).

Hezkuntzako liburua bigarren tokira erori da, 626 titularekin (%29,3, iaz baino 3,1 puntu gutxiago).

Hirugarren tokia helduen literaturak irabazi du, 2013tik lehen aldiz, 315 titularekin (%14,7).

Giza eta gizarte zientzietako liburua laugarrenera jaitsi da (278 titulu, %13).

Bosgarren tokia aisia liburuari dagokio (93 titulu, %4,4), eta seigarrena zientzia eta teknikari buruzko liburuari (62 titulu, %2,9).

Ekoizleak eta ekoizpena

Iturri estatistikoak

Azterketa honen lehen atala, beraz, argitaratzaileei eta horien ekoizpenari eskainiko diegu.

2.138 titulu bildu ditugu Jakinen, azterketarako aintzat hartu beharreko bi ezaugarriak dituztenak: 2018ko lege gordailua eta ISBN identifikazio-marka izatea. Aspalditik aritu da Torreal dai Jakinen lortutako datuak erreferenteak diren beste batzuekin konparatzen. Birekin, zehatzago esanda: Espainiako Gobernuako Kultura ministerioak argitaratzen duen *Panorámica de la Edición Española de Libros* (PEEL) delakoarekin, eta lehen Precisa eta orain Conecta azterketa etxeak Euskadiko Editoreen Elkartearentzat eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioarentzat urtero plazaratzen duen txostenarekin.

<i>Urtea / Iturria</i>	<i>PEEL</i>	<i>Precisa / Conecta</i>	<i>Jakin</i>
2014	1.126	1.969	2.221
2015	1.222	1.798	2.604
2016	1.644	1.790	2.251
2017	1.430	1.958	2.294
2018	1.116	1.842	2.138

2016ra arte, 2000. urtean abiatu rik ikusi ohi genuen iturri estatistiko desberdinon ekoizpen maila. Baina aski da aurreko taulan erakusten den azken bost urteotako lagin hori ondorio berera iristeko, hau da, zein den handia batzuen eta besteen emaitzen arteko desberdintasuna, eta, batez ere, beste bien eta gurearen arteko aldea.

Begien bistakoa da, urtea joan eta urtea etorri, hiru zuta-beok ez datozela bat zifretan. Esan beharra dago, gainera, horien arteko desberdintasunak ez direla hutsaren pareko, nabarmenak baizik.

Azken buruan, datuen fidagarritasunaren arazoa dago jokoan. Diferentziak ez dira kopuru orokorretara mugatzen, gainera. Sakonago joz, beste hainbeste gertatzen da

nobedadeak eta berrargitalpenak bereiztean, edota gaien sailkapenean.

Gure ustetan, diferentzia sortzen duten aldagaiak bi motatakoak dira: informazioaren iturburuari dagozkionak eta metodologikoak. Conectak eta PEELeK editorearen eskutik jasotzen dute informazioa, eskusiboki edo ia. Editoreak ematen du kopurua, eta horrekin batera gainerako ezaugarriak. Esaterako, editore bakoitzak sailkatzen du liburuaren gaia. PEELen datuen oinarrian, editoreak Espainiako ISBNra bidaltzen duen informazioa dago; Conectak ere informazio iturri bera du, eta, gainera, ez du kontrolatzen tituluaren fitxa bibliografikoa. Bietan editorea da informatzailea.

Gure informazio iturria eta gure metodologia bestelakoak dira. Hasteko eta behin, gaia geuk ematen diogu liburuari. Eta, noski, editoreen informazioaz baliatzen gara, baina ez horretaz bakarrik. Sarrera metodologikoan azaldu dugunez, liburutegiak, ISBN, ELSN eta Internet arakatzen ditugu, eta informazioa gurutzatu eta kontrastatu.

Ekoizle ugari

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	201
2-4	70
5-9	29
10-19	14
20-29	6
30-39	1
40-49	1
50-59	2
60-69	4
70-79	1
90-99	2
100-150	1
150etik gora	2
<i>Guztira</i>	334

Guztira, 334 dira 2018an libururen bat plazaratu duten ekoizleak. Asko dira, gehiegi, nahi bada. Baina kontuan izan

behar da horietako askok titulu bat eta bakarra kaleratu dute. Eta, beraz, ezin daitezkeela editorialtzat hartu, ezta gutxia-
go ere. %60,3k titulu bakarra atera dute, erdia pasa dira. Area-
go: %81,2 dira lau titulu baino gutxiago ekoitzi dituztenak.

Antzaenez, urteko 20 tituluk markatuko luke editoreen arteko ekoizpenaren langa garrantzitsua. Hala, 20 titulutik gora editoreen %6ek bakarrik ekoitzi dute, 20 editorek. Beste guztiek -314 argitaratzailek, %94- 20 titulu baino gutxiago atera dute 2018an. Urtero seinatu izan du Torrealdaiaren gure produkzioaren ahulezia dela atomizazioa.

Ahuldade horren goi aldean dago ehun titulutik gorako editorialen multzoa. Hori ere murriztuz joan da azken urteotan, eta 2018an hiru bakarrik dira ehun liburuko langa gaitu dutenak. Hiru horiek ekoizpen osoaren %25,8 bildu dute.

Eta bi mutur horien tartean, 20 titulutik behera atera duten 314 horien eta 100 titulutik gora atera duten hiru bakar horien tarteko erdiko mailako 17 editoreen presentzia eskasa da, eskasegia. Atomizazioarekin batera, desoreka hori ere azpimarratu beharrekoa da.

Ekoizleen panorama hori ezagututa, beharrezkoa da tipologiaren araberako bereizketa egitea. Ez baita berdina, ez produkzio mailan, ez tematikan, argialetxe peto-petoa izan, edo izan udal edo kirol elkarte, adibidez.

Argialetxe nagusien ekoizpena: 1.062 titulu

<i>Argialetxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrargitalpenak</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkar	87	167	254	11,9
Edelvives-Ibaizabal	178	16	194	9,1
Susaeta	41	61	102	4,8
Ikaslar	25	74	99	4,6
Erein	49	43	92	4,3
Santillana-Zubia	78	0	78	3,6
Ttartalo	57	11	68	3,2
Edebé-Giltza	51	11	62	2,9
Anaya-Haritz	3	58	61	2,9
Ikasmina	47	5	52	2,4
<i>Guztira</i>	616	446	1.062	49,7

Gogoan hartu behar da taula honetarako argitaletxe pribatu komertzialak soilik hartu ditugula aintzat, eta ez, adibidez, edizio publikoa.

Hamar nagusi horiek ekoizpen osoaren %49,7 ekoitzi dute, iaz baino gutxiago: hiru puntu eta erdi osoarekiko proportzioan, eta guztira 144 titulu gutxiago.

Hamar nagusiak izan arren, zazpi ez dira ehun titulura iristen, eta lau ezta 70era ere. Bestela esan, indartsuenak ere ez dira horren handi.

Azken urteotan egonkortzen ari da multzo horretako kideen osaera, bertako eta kanpoko arteko proportzioaz ari garela. Ekoizpen osoan bat edo beste gehitzea ez da garrantzizkoa berez, baina lehen ekoizle nagusien artean euskal jatorrizko eta erdal jatorrizkoen proportzioa zein den gutxienez esanguratsua da. Aurten hamarretik lau dira Euskal Herrikoak: Elkar, Ikaselkar, Erein eta Ttartalo; beste seiak Espainiako Estatuan dute etxe nagusia: Edelvives-Ibaizabal, Susaeta, Santillana-Zubia, Edebé-Giltza, Anaya-Haritza eta Ikasmina.

Bertako eta kanpoko editorialek gaien arabera duten jorkamolde desberdindua gero ikusiko dugu zehatzago. Hamar horien ekoizpen orokorrari dagokionez, 1.062 tituluetatik 513 ekoitzi dituzte bertakoek (%48,3), eta 549 kanpokoek (%51,7); iaztik hona 8,3 puntutan hazi da kanpokoen proportzioa, hamar argitaletxe pribatu horien artean, beti ere.

Bertako eta kanpoko artean alderik handiena, aurten ere, berrargitalpen politikan dago. Eskuratu ahal izan dugun informazioa fidagarria bada, bertako argitaletxeek %66,4ko indarra dute berrargitalpenaren baitan, eta, kanpokoek, titulu gehiago ekoitzi arren, %33,6koa bakarrik. Datuak egiazkoak balira (egia izan ote daiteke, adibidez, Santillana-Zubiak batere berrargitalpenik ez

314 argitaratzailek (%94) 20 titulu baino gutxiago atera dute 2018an. Urtero seinatu izan du Torrealdai gure produkzioaren ahulezia dela atomizazioa

duela, edo Ikasminak bost bakarrik?), guztiz esanguratsua litzateke diferentzia hori, berrargitalpenak ekoizpen osoari ematen dion egonkortasun eta ibilbidea kontuan hartzen badugu.

Argitaratzaileen tipologia

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertako argitaldari pribatu komertziala	85	931	43,5
Kanpoko argitaldaria	71	748	35,0
Irakaskuntza + unibertsitatea	19	109	5,1
Elkartea, taldea, fundazioa, erlijio-etxea...	90	150	7,0
Argitaldari publikoa	33	109	5,1
Besterik	37	91	4,3
<i>Guztira</i>	<i>335</i>	<i>2.138</i>	<i>100,0</i>

Argitaratzaileen tipologia heterogeneoa da: kanpokoak zein bertakoak; argitaratzaile komertzialak eta ez komertzialak; pribatuak zein publikoak; handiak eta txikiak; irakaskuntzakoak; talde, elkarte edo fundazio izaera daukatenak... Ekoizleen unibertso hori bost multzotako sailkapenean ordenatu ohi dugu.

Bertakoak eta kanpokoak testuliburuaren merkatuan

Atal honetan, bertakoen eta kanpokoen jokamoldean jarriko dugu arreta. Torrealdaik behin eta berriro azpimarratzen zuen bezala, bertako/kanpoko bereizketak ez du, noski, kutsu xenofobikorik. Azalean, bereizketa geografikoa da; baina editorialaren erabakigunearen kokagune geografikoak du garrantzia: erabakiak non hartzen diren, bereziki hezkuntza curriculumean. Zentzu horretan du garrantzia bereizketak, horren arabera aldatzen baitira batzuek eta besteek gure ekosistema editorial eta kulturean duten inplikazioa, hezkuntza curriculumean duten eragina edota euskal argitalgintzaren industrian duten indarra.

Lehenik, horrenbestez, testuliburuaren merkatu kautiboan kokatuko gara, eta hor esku hartzen duten aktoreak soilik aztertuko ditugu, betiere pribatuak eta komertzialak.

Batzuek eta besteek ekoizpenean duten eragina aldakorra den arren, argi ikusten da bertakoen ekoizpena laurdenaren eta herenaren artean ibili ohi dela, ez gehiago; 2018an, ia hiru puntu jaitسي da proportzioa. Hona azken bost urteotako emaitzak:

Urtea	<i>Ekoizle nagusien pisua irakaskuntzan</i>		
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>
2014	27,2	67,7	5,1
2015	17,9	78,6	3,5
2016	22,5	74,4	3,1
2017	34,6	59,1	6,3
2018	31,8	63,1	5,1

Elkarrekin lotuta doazen hiru taula erabiliz adieraziko dugu bi edizio mota horiek, alegia, kanpoko eta bertako argitaletxeek, argitalgintzan duten portaera. Bertako eta kanpoko diogunean, errepika dezagun, ez gara ari hango edo hemen-go guztiez, baizik eta argitaletxe profesional, komertzial eta pribatuez. Horietaz gain bada ekoizle gehiago, ikusi dugunez, hala nola elkarteak, erakunde publikoak eta beste; gainerakoen sailean biltzen ditugu horiek guztiak.

Lehen taulan zifra absolutuak agertzen dira, eta horiei esker ikus daiteke zein den edizio mota bakoitzaren pisua.

Bigarren taulak alderaketaren ikuspegia proposatzen du. Ezker-eskuin, etzanean irakurri behar da taula hori, gai eremuka kanpokoen eta barrukoen indarra zein den neurtzeko.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Balio absolutuak</i>			
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	931	750	457	2.138
HG	408	301	33	742
HI	199	395	32	626
HL	222	17	76	315
GG	59	7	212	278
AL	33	13	47	93
ZT	4	14	44	62
Besterik	6	3	13	22

Hirugarren taula, azkenik, zutikakoa edo bertikala da, zutabe bakoitza goitik behera irakurtzekoa. Editorial mota bakoitzaren baitan ekoizpena non mamitzen den adierazteko balio

du, hau da, edizio mota bakoitzaren indargune eta ahulguneak non dauden erakusten du.

Oro har, ekoizpen osoan Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak dira nagusi, bai bertako editore komertzialek

Ekoizpen osoan bertako argitaletxeak dira nagusi kanpokoan aldean (%43,5 vs %35,1). Hezkuntza eta irakaskuntza liburuan, aldiz, alde handiz dira nagusi kanpokoak

argitara ematen dutena (931 titulu) eta bai elkarte, talde, fundazio, argitaldari publiko eta enparauek argitaratzen dutena (457 titulu); 1.388 titulu dira guztira (%64,9).

Gai eremuak banaka begiratuz ere, bertakoen zifrak altuagoak dira sailez sail, salbuespen nabarmen batekin: hezkuntza eta irakaskuntza liburuan oso goitik daude kan-

pokoak, 395 vs 199. Esan beharrik ez dago: gai garrantzitsu eta sentiberarik bada, horixe da nagusiki, euskal curriculumari dagokiona, hain zuzen ere.

Gaia/Ekoizlea	% horizontalak			
	Bertakoak	Kanpokoak	Gainerakoak	Guztira
Ekoizpen osoa	43,5	35,1	21,4	2.267
HG	55,0	40,6	4,4	742
HI	31,8	63,1	5,1	626
HL	70,5	5,4	24,1	315
GG	21,2	2,5	76,3	278
AL	35,5	14,0	50,5	93
ZT	6,4	22,6	71,0	62
Besterik	27,3	13,6	59,1	22

Ekoizpen osoan bertakoak dira nagusi kanpokoan aldean (%43,5 vs %35,1, zortzi puntu goitik). Hezkuntza eta irakaskuntza liburuaren lerro horizontalean, aldiz, alde handiz dira nagusi kanpokoak, bertakoekiko 30 puntutik gorako aldearekin. Alarma gorria pizten digu datu horrek.

Bien arteko lehian, gainerako gai eremuetan aurretik doa bertakoena oro har, proportzio handitan. Argi ikusten da, esate baterako, kanpokoek ia esku hartzerik ez dutela helduen

literaturaren eta giza eta gizarte zientzietako liburuen alorrean. Esan liteke kanpoko editorialak ez direla euskal liburugintzaren ekosisteman integratzen: haur eta gazteen eta eskola liburuen merkatu kautibora mugatzen dira, besterik gabe.

Gaia/Ekoizlea	% bertikalak	
	Bertakoak	Kanpokoak
Ekoizpen osoa	100,0	100,0
HG	43,8	40,1
HI	21,4	52,7
HL	23,9	2,3
GG	6,3	0,9
AL	3,5	1,7
ZT	0,4	1,9
Besterik	0,7	0,4

Irakurketa bertikalari lotutako taula egiazki esanguratsua da editorialen filosofia hautemateko: argitaldari espainiarren ekoizpena haur eta gazteentzako eta hezkuntza liburueta zentratzen da kuantitatiboki (%92,8); eta, bereziki, hezkuntzakoan (%52,7). Gainerako alorretan huskeria ekoizten dute.

Lau taula horiek argi uzten dute Hegoaldeko eskoletan curriculum espainiarra dela zabalduena. Eta hori euskarazko testuliburuei soilik begiratuta... Zer gertatuko ote da erdarazkoekin!

Izan ere, kanpoko argialetxeek hezkuntzaren muinari helzen diote, euskal curriculumari. Helburu nagusi eta bakarra horixe dute, Euskal Herriko eskoletan kanpoan sorturiko curriculum egokitua sartzea.

Torrealdairen aspaldiko kezka lur berria hartzen du, horrenbestez, aurtengo datuetan. JAKINEN iazko azken zenbakian argitaratutako 2017ko liburugintzaren azterketan adierazi zuen azkenekoz: barrutik husten ari gara. Hau da, Euskal Herritik Euskal Herrirako hezkuntza proiektuak ez dira jada nagusi, bertako editorialek lantzen duten curriculum proiektuak ez baitu gehiengoa hartzen. Aitzitik, bien bitartean, azken hiruzpalau hamarkadatan hedatu diren euskarazko testuliburu gehienak (areago erdarazkoak) kanpoan landutakoak izan dira.

Etorkizunean ere, funtsezko auzi horri gertuko jarraipena eskainiko diogu, noski, asko baitago jokoan.


Eskaintza editoriala

Azterketa honen bigarren atalean, argitaratzaileen emaitza material eta kuantitatiboez jardungo dugu. Hainbat ezaugarri arakatuko ditugu: titulu kopuru, liburuen egiletza kronologikoa eta linguistikoa. Eta hori guztia, ez soilik aurtengo datuekin, fokua 2000tik gaurdainoko bilakaerara irekiz baizik.

Eskaintzaren azterketari buruzko gure ekarpen nagusia, beharbada, emaitza bakoitza bere testuinguru kronologikoan ematea da; izan ere, urteko informazio soilak ez du, isolaturik, interpretaziorako biderik irekitzen.

Has gaitezen 2018ko eskaintza editorialaren datu nagusien laburpen txiki batekin. Titulu kopurua jaitsi egin da: 2.138 izan dira, horietako %86,8 bertsio analogikoan eta %13,2 digitalean. 1.547 titulu nobedade edo lehen edizio dira (%72,4), aurreko urtean baino gutxiago. Berrargitalpenen kopurua, berriz, hazi egin da, 591 titulu (%27,6). Euskaraz sorturikoak 1.300 dira (%60,8). Itzulpenak, hortaz, 805 titulu (%39,2).

2.138 titulu




Grafikoaren bidez mende berriko perspektiban ikus dezakegu urteko ekoizpena. Hurrengo taulan, aldiz, ekoizpen hori bitan banatua dator, analogikoa eta digitala, biak elkarren arteko alderaketan. Eta nabarmen geratzen da ekoizpen

digitalak hartzen duela bere bizkar urteko jaitiera, 2017tik ia erdira erori baita. Paperezkoak, aldiz, gora egin du, 67 titulu gehiagorekin. Digitalak papera irentsiko zuela iragartzen zutenen aurka datoz datuok.

Urtea / Liburu mota	Analogikoa	Digitala	Guztira
2006	1.992	8	2.000
2007	2.226	38	2.264
2008	2.583	108	2.691
2009	2.198	242	2.440
2010	2.012	258	2.270
2011	2.154	242	2.396
2012	2.039	174	2.213
2013	1.682	185	1.867
2014	1.695	526	2.221
2015	1.893	711	2.604
2016	1.773	478	2.251
2017	1.789	505	2.294
2018	1.856	282	2.138

Nobedadeak eta berrargitalpenak



Gorabehera txikiekin, azken urteetako proportzioei eusten die aurtengo ekoizpenak ere: nobedadeek hiru laurden hartzen dituzte, eta berrargitalpenek beste laurdena. Argi dago euskal liburugintzan nobedadeak sekulako indarra duela, eta berak definitzen duela ekoizpenaren ildoak. Berrargitalpenen ehunekoak pixka bat gora egin du aurtan, baina mende honetako hainbat urtetan baino beherago dabil hala

ere. Torrealdaik behin baino gehiago azpimarratzen zuen berrargitalpenak indar handiagoa beharko lukeela gurean, edizio frantsesean gertatzen denaren antzera-edo; berrargitalpenaren eskasiak ere diglosia islatzen du.

<i>Urtea</i>	<i>Nobedadea</i>	<i>Berrargitalpena</i>
2000	65,7	34,3
2001	71,7	28,3
2002	70,8	29,2
2003	71,1	28,9
2004	74,0	26,0
2005	71,3	28,7
2006	68,0	32,0
2007	69,8	30,2
2008	69,6	30,4
2009	69,8	30,2
2010	71,0	29,0
2011	72,0	28,0
2012	68,9	31,1
2013	68,6	31,4
2014	74,3	25,7
2015	81,4	18,6
2016	75,5	24,5
2017	75,9	24,1
2018	72,4	27,6
<i>Batez beste</i>	<i>71,7</i>	<i>28,3</i>

Ekoizpen tematikoa

Argialetxeen jarduna eta horien emaitza kuantitatiboa aztertu ondoren, hirugarren atal honetan ekoizpen tematikoari helduko dio. Horrenbestez, edizioaren muinean sartuko gara.

Izan ere, bibliografoaren ikuspegitik harago, ekoizpenaren zenbatekoa bera baino gehiago interesatu izan zaigu beti ikuspuntu soziologikoa: euskaraz zer argitaratzen da, eta argitaratzen den hori non eta nola txertatzen den euskal kulturaren. Izan ere, liburugintzaren azterketari heldzerakoan, hauxe izan da Torrealdairen funtsezko abiapuntu teorikoa: ekoizpena, azken batean, gure gizartearen ispilua da.

Urteroko ekoizpen hori, beraz, gaika sailkatu ohi dugu, nazioartean erabili ohi diren ereduaren arabera. Eta sailkaturiko

eremu bakoitzean ikuspegi ebolutiboa aplikatzen dugu, bost urteko erreferentzia bederen eduki dezagun.


Horrenbestez, argitaratutako tituluak zortzi sailetan banatzen ditugu: haur eta gazteentzako liburuak, hezkuntza eta irakaskuntzako liburuak, helduen literatura, giza eta gizarte zientzietako liburuak, zientzia eta teknika alorreko liburuak, aisia liburuak, orotarikoak eta erlijio liburuak. Zortzi arlo nagusiotatik, lehenengo seiak bakarrik aztertuko ditugu, horiek baitira hornituenak.

Ohikoak eta urterokoak dira gai sailkapenok. Aurten, ordea, berrikuntza pare batek hausten du urteroko joera: batetik, 2013tik lehen aldiz, haur eta gazteentzako liburua da lehena ekoizpenean, hezkuntza eta irakaskuntza liburuaren orde; eta, bestetik, helduen literaturak aurrea hartu dio giza eta gizarte zientziari.

Gai multzoen pisua aztertuz, nabarmena da haur eta gazteentzako zuzenduriko ekoizpenaren tamaina, %64, kontuan hartuz bai irakaskuntza eta bai haur eta gazteentzako liburua adin tarte berera zuzentzen dela. Bi multzo horiek alde batera utzita, gainerakoen itzala asko arintzen da, gehiegi: hurrengoak helduen literatura (%14,7) eta giza eta gizarte zientzietako liburua (%13) dira. Atzerago datoz aisia liburua (%4,3) eta zientzia eta teknika (%2,9).

Atalez ataleko datuak aurkeztu eta azertu aurretik, ikus ditzagun osotasunean. Hurrengo bi grafikoez eta taulak, bakoitzak bere modura, errealitate bera erakusten digute: urteko ekoizpen osoa balio absolututan eta erlatibotan. Taulan beste erreferente bat sartu ohi dugu, 2000. urtea, mende honetako lehen urtearekiko zertan gauden adieraztearren, zerk egin duen gora eta zerk behera.

Nabarmena da haur eta gazteentzako zuzenduriko ekoizpenaren tamaina, %64, kontuan hartuz bai irakaskuntza eta bai haur eta gazteentzako liburua adin tarte berera zuzentzen dela



Gai multzoa	Zenbaki absolutuak	%	2018/2000
Haur eta gazteentzako liburuak	742	34,7	+100,0
Hezkuntza/Irakaskuntza	626	29,3	+2,3
Helduen literatura	315	14,7	+10,5
Giza/Gizarte zientziak	278	13,0	-3,8
Aisia	93	4,4	-
Zientzia/Teknika	62	2,9	-36,7
Besterik	22	1,0	-

ekoizpen tematiko sailkatura igaro aurretik, ohar bat: gai sail bakoitzean informazioz betetako taula bat ageri da. Gaiari dagokion laburpen osoa biltzea du xede: azken bost urteotako eboluzioa kontzeptu guztietan, hala nola, tituluetan, ekoizpen osoarekiko ehunekoan, urtetik urterako eboluzio alderatuan, itzulpenaren eta berrargitalpenaren urte bakoitzeko pisuan, urteko orrialde kopuru orokorrean eta liburu bakoitzeko orrialde kopuruan.

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 742 titulu

	2014	2015	2016	2017	2018
Haur/Gazte	624	652	606	694	742
Ekoizpenaren %	28,1	25,0	26,9	30,3	34,7
Urtetik urtera %Δ	3,7	4,5	-7,1	14,5	6,9
Itzulpenen % (1. edizioan)	62,6	70,7	68,2	73,7	68,4
Berrargitalpenen %	30,6	28,8	37,8	32,7	35,2
Orrialde kopurua	42.813	36.758	37.935	52.106	48.274
Orrialde kopurua liburuko	68,6	56,4	62,6	75,1	65,1

Arestian aipatutakoari helduko diogu berriro: liburu mota honek, 2010ean eta 2013an bezala, bestalde, aurrea hartu dio eskuarki lehen postuan egon ohi den hezkuntza eta irakaskuntzako liburuari. Arrazoi nagusia beraren hazkuntza izan da: 48 titulu, eta 4,4 puntuko igoera ekoizpenaren ehuneko orokorrean. Kontua da bi urtetan %26,9tik %34,7ra pasatu dela: hazkunde etengabe eta esanguratsua, zalantzarik gabe.

Liburu mota honen indarra inoizko handiena da ekoizpenaren baitan. 2000. urteko titulu kopurua bikoiztera iritsi da.

Liburu mota honetan, itzulpenaren pisua beti izan da handia, arrazoi bat baino gehiago tarteko; 2018an ere halaxe da, %68,4. Berrargitalpenak ere garrantzi dezentea du (%35,2), iaz baino pittin bat handiagoa; eta, hala ere, seguruenik, produkzioan beharko lukeena baino apalagoa, liburuen izaera eta helmuga kontuan izanda.

Hezkuntza eta irakaskuntza: 626 titulu

	2014	2015	2016	2017	2018
<i>Hezkuntza/Irakaskuntza</i>	731	1.142	841	743	626
Ekoizpenaren %	32,9	43,9	37,4	32,4	29,3
Urtetik urtera %Δ	27,8	56,2	-26,4	-11,7	-15,7
Itzulpenen % (1. edizioan)	11,0	13,5	26,4	26,3	34,0
Berrargitalpenen %	38,9	18,7	26,0	29,3	35,6
Orrialde kopurua	65.040	113.424	102.074	58.634	51.622
Orrialde kopurua liburuko	89,0	99,3	121,4	78,9	82,5

2018ko ustekabe nagusia hauxe izan da: liburu mota honek hainbeste titulu galdu izana. 117 titulu gutxiago editatu dira. Ondorioz, urteko ekoizpenean, honen pisuak hiru puntu galdu ditu.

Ez dakigu argitaraldi zikloekin edo testu berrien merkaturatzearekin zerikusirik baduen, baina azpimarra dezagun 2010ean eta 2013an fenomeno bera gertatu zela.

Itzulpenaren pisua, bestalde, ikaragarri hazi da sail honetan, %34raino. Eta asko hazi den arren, ez zaigu guztiz fidagarria iruditzen; konbentziturik gaude askoz ere altuagoa dela testuaren egiazko itzulpena, ahalegin guztia egiten baita,

itzulitakoa edo birmoldaturikoa izan arren, guztiz berriaren itxura eman dezan.

Liburu mota honen berrargitalpen maila, %35,6, ez da duela urte batzuetakora iritsi, baina dezente igo da. Merkatuaren egonkortze eta hazkundeaz hitz egiten digu datu horrek.

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak. Hezkuntzaren antolakuntza..	8,1
Eskolaurrea. Haur eskola.....	15,8
Lehen Hezkuntza.....	44,1
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	27,5
Besterik.....	4,5
	%100,0

Barne sailkapenean argi ikusten denez, DBH eta LH dira sail hornituenak. Hurrengo taulan, bi horien balioak bost urteko perspektiban bildu ditugu.

<i>Urtea</i>	<i>LH</i>	<i>DBH</i>
2013	47,4	21,1
2014	51,6	23,4
2015	65,1	26,6
2016	29,0	53,0
2017	27,4	39,2
2018	44,1	27,5

Ikuspegi diakroniko horri esker, azken urteetako aldaketa nabari daiteke: 2016ra arte LHko balioak ziren nagusi, baina 2016an DBHkoak hasi ziren nagusitzen. Aurten, berriz, balioak trukatu dira. Azken bi urteetan saiatu gara esplikazio baten bila: batetik, eskola materialek bere egutegi propioa dute; eta, bestetik, politika editoriala dago. Ez dira, gure ustez, irakurlegoaren profilaren edo hezkuntza politikaren alorreko azalpenak bilatu behar.

Helduen literatura: 315 titulu

Helduen literaturak igoera esanguratsua izan du, kontuan hartzen badugu, batetik, azken hiru urteetan jaitsi edo doi-doi mantendu egin dela, eta, bestetik, urteko ekoizpen orokorra jaitsi denean gertatu dela igoera hori. Horrenbestez, ekoizpen orokorraren %14,7 hartzen du aurten, 2009tik honako

proporziorik altuena, hain zuzen. Azpimarragarria, benetan. Gainerako datuak, taulan ikus daitekeenez, azken urteetako datuekiko tamaina eta koherentzia berean mugitu dira.

	2014	2015	2016	2017	2018
<i>Helduen literatura</i>	306	297	277	284	315
ekoizpenaren %	13,8	11,4	12,3	12,4	14,7
Urtetik urtera %Δ	18,6	-2,9	-6,7	2,5	10,9
Itzulpenen % (1. edizioan)	29,5	28,1	23,4	22,4	26,8
Berrargitalpenen %	22,5	18,5	24,5	24,6	24,1
Orrialde kopurua	45.152	37.480	47.218	43.793	51.435
Orrialde kopurua liburuko	147,6	126,2	170,5	154,2	163,3

Generoka

Eleberria. Ipuina.....	55,8
Olerkia.....	19,7
Antzerkia.....	3,5
Herri-literatura. Bertsoa.....	1,0
Mizelanea. Kronika. Saioa.....	14,0
Literatur teoria eta kritika.....	6,0
	%100,0

Narratibaren urteroko nagusitasuna berresten dute datuek, ez dago horretan berrikuntzarik. Olerkiak ere azken urteetako mailari heltzen dio, 20 punturen bueltan.

Giza eta gizarte zientziak: 278 titulu

	2014	2015	2016	2017	2018
<i>Giza/Gizarte</i>	364	314	320	333	278
ekoizpenaren %	16,4	12,1	14,2	14,5	13,0
Urtetik urtera %Δ	49,2	-13,7	1,9	4,1	-16,5
Itzulpenen % (1. edizioan)	24,6	28,9	34,5	27,4	33,6
Berrargitalpenen %	4,9	6,4	8,4	7,8	7,9
Orrialde kopurua	57.807	57.077	57.421	62.336	50.371
Orrialde kopurua liburuko	158,8	181,8	179,4	187,2	181,2

Taulak garbi uzten du liburu mota honek aurten izan duen jaitsiera: 55 titulu gutxiago, eta puntu eta erdi behera ekoizpen orokorrean. Duela bospasei urteko maila kaskarrera itzuli da. Itzulpenen datuek gora egin dute, baina berrargitalpenek

ez, zoritxarrez, oso eskasa baita, beti bezala, azaleko sustraiak dituen seinale.

Torrealdak sarritan nabarmendu izan du liburu honen joera egonkorra. Egonkorra, zentzurik txarrean, kultura osasuntsu batek beharko lukeen maila eta kopuruetatik oso behera baitabil. Gure porrotaren sintoma edo islari buruz hitz egin izan du: euskal liburuaren gure kontsumoa guztiz diglosikoa da, desorekatua, sakontasun eskasekoa, alor batzuetara mugatua.

Barne sailkapena

Filosofia. Psikologia.....	2,1
Soziologia. Estatistika. Politika. Ekonomia.....	22,7
Zuzenbidea. Administrazioa.....	10,4
Etnologia. Etnografia.....	5,0
Artea. Hirigintza.....	24,5
Filologia. Hizkuntzalaritza.....	11,9
Geografia. Historia.....	23,4
	%100,0

Goiko zerrendak argi uzten du liburu mota honek bere baitan biltzen duen gaitegi zabala, filosofiatik hasi eta geografia edo historiarraino, zuzenbidea, soziologia, etnologia, artea edo hizkuntzalaritza barrena. Eta hori guztia elikatzeko, 278 titulu besterik ez. Ez dago askoz gehiago esan beharrik.

Gainerakoak

Zientzia eta teknika: 62 titulu

	2014	2015	2016	2017	2018
Zientzia/Teknika	92	103	106	133	62
ekoizpenaren %	4,1	4,0	4,7	5,8	2,9
Urtetik urtera %Δ	16,5	12,0	2,9	25,5	-53,4
Itzulpenen % (1. edizioan)	29,1	35,4	26,5	19,8	15,0
Berrargitalpenen %	6,5	6,8	3,8	5,3	3,2
Orrialde kopurua	13.161	8.782	8.937	10.986	6.517
Orrialde kopurua liburuko	143,1	85,3	84,3	82,6	105,1

Zientzia eta teknika alorreko liburuak jaitsiera katastrofikoak izan du aurtan: 62 titulu bakarrik argitaratu dira atal

honetan, XXI. mendeko daturik baxuena, orain arteko datu txarrenak eman zituen 2013ko kopurutik behera. Iaztik erdia baino gehiago jaitsi da, erraz esaten da. Azken lau urteetako joera hazkorrari amaiera larria eman dio aurtengoak, ekoizpen osoaren 2,9ra amilduz. Atal honetako liburuen edukiak diziplinarrak eta espezifikoak izanagatik, ziur gaude kultura osoago batean pisu duinagoa izan beharko luketela.

Zientzia zehatzak. Natur zientziak.....	32,3
Medikuntza.....	41,9
Ingeniaritza. Teknologia.....	14,5
Zientzia eta teknika aplikatuak. Industria.....	11,3
	%100,0

Kopuru absolututan izandako jaitziera dela-eta, ez du me-rezi atalez ataleko zifrak konparatzen hastea, horien banaketan eta ehunekoetan aldaketa nabarmenik egon ez bada ere.

Aisia liburuak: 93 titulu


Musika.....	14,0
Argazkia.....	17,2
Jolasa. Jokoa. Kirola.....	10,7
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	14,0
Kiosko literatura.....	44,1
	%100,0

Aisiako liburua iazko kopuruetan dabil, 93 titulurekin. Ekoizpen orokorrean pisu txikia duen arren, garrantzi handia du gizarte modernoan. Baina gurean ez, tamalez: zientzietako liburuekin gertatzen den bezala, aisialdiko liburuaren kontsumoak edo kontsumorik ezak gure diglosiaren sakona salatzen dute, erdaraz elikatzen baikara aisiako produktuetan. 🍷



2018ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	804	37,6
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Museoak	62	2,9
— Haur eta gazteentzako argitalpenak	742	34,7
1. FILOSOFIA	6	0,3
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	6	0,3
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	11	0,5
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak	11	0,5
3. GIZARTE ZIENTZIAK	736	34,5
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	110	5,1
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	626	29,4
5. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA ZIENTZIA NATURALAK	17	0,8
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	17	0,8
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	41	1,9
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	41	1,9
7. ARTEA. JOLASAK. KIROLAK	117	5,5
— Artea. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	98	4,6
— Jostaldia. Ikuskizunak. Jolas eta jokoak. Kirolak	19	0,9
8. FILOLOGIA. LITERATURA	341	15,9
— Hizkuntzalaritza. Filologia	26	1,2
— Literatura. Literatur generoak	315	14,7
9. BIOGRAFIA. HISTORIA. GEOGRAFIA	65	3,0
— Biografia	20	0,9
— Historia. Geografia	45	2,1
GUZTIRA	2.138	100,0



 euskadi
irratia
gertu

Sailaren arduraduna: Joxe Azurmendi

- 1 URIBARRI, Ibon: *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*
- 2 GALPARSORO, Jose Ignacio: *Betiereko itzulera Nietzscheren pentsaeran*
- 3 KANT / HEGEL: *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak*
- 4 DUCHET / MARQUARD: *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora*
- 5 LEIBNIZ, Gottfried Wilhelm: *Metafisikako diskurtsoa*
- 6 ADORNO, Theodor W.: *Musikaren filosofia*
- 7 MARX / ENGELS: *Alderdi Komunistaren Manifestua*
- 8 FOUCAULT, Michel: *Gizakiaren heriotzaz*
- 9 FREUD, Sigmund: *Ilusio baten etorkizuna*
- 10 LEYTE, Arturo: *Heidegger: Hermeneutika eta Funtsezko Ontologia*
- 11 PLATON: *Sokratesen Defentsa*
- 12 BACON, Roger: *Unibertitate eta Zientzia Erdi Aroan*
- 13 PORTALIS, J.E.M.: *Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*
- 14 BENGOTXEA, Juan Bautista: *Filosofia eta Zientzia. Vienako Zirkulua*
- 15 WITTGENSTEIN, Ludwig: *Etika, zientzia eta antropologia*
- 16 PLATON: *Ion*
- 17 URIBARRI, Ibon: *Kanten ezagutzaren teoria*
- 18 GARATE, Jenaro: *Gizakia maitagogo da (Nire aitorten filosofikoa)*
- 19 RILKE, Rainer Maria: *Poeta gazte bati idatziak*
- 20 BENTHAM, Jeremy: *Panoptikoa*
- 21 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Zertaz dihardu filosofiak?*
- 22 PLATON: *Sinposioa*
- 23 DOMAT, Jean: *Legeen Tratatua*
- 24 BENGOTXEA, Juan Bautista / EIZAGIRRE, Xabier: *Dogmak zientzian?*
- 25 ARREGI, Xabier: *Descartes*
- 26 NIETZSCHE / FREUD: *Nietzsche eta Freud, filosofian eragile*
- 27 ALVAREZ SANTA CRISTINA, Jose Luis: *Etikaren oinarrien bila*
- 28 GROTIUS, Hugo: *De iure belli ac pacis. Gerra eta bakearen zuzenbidea. Testuak*
- 29 AIESTARAN, Ignazio (arg.): *Kant eta modernitatearen iraultza*
- 30 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *W. von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*
- 31 ITURRIOTZ, Ander: *Giza abere heroikoa kultura homerikoan*
- 32 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak*
- 33 ZAPIAIN, Markos: *Ia guztiaren funtsaz. Kojève globalizatzaile*
- 34 ITURRIOTZ, Ander: *Lehen filosofia Heladen*
- 35 PUFENDORF, Samuel: *De officio hominis et civis juxta legem naturalem libri duo*
- 36 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Paideia eta hizkuntza: euskal hezkuntza*
- 37 AGUIRRE, Javier: *Aristotelesen Metafisikari sarrera*
- 38 INSAUSTI, Xabier / ARRIETA, Idoia: *Hic Hegel, hic saltus*
- 39 FOUCAULT / BENSÂÏD: *Historiaz mintzo*
- 40 JIMENEZ, Jon / OLARIAGA, Andoni: *Modernitatearen auziaz*
- 41 SUAREZ, Francisco, S. J.: *Tractatus De legibus ac Deo legislatore*
- 42 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Hizkuntzaren zientziak hizkuntzaren pedagogian*
- 43 AZURMENDI, Joxe (arg.): *Filosofia eta poesia*
- 44 INSAUSTI, Xabier / OLIDEN, Irati: *Konpromisorik gabeko filosofia. Alain Badiou*
- 45 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Arimak eta balioak*
- 46 ETXARTE, Hedoi: *Wagner auziaz. Wangermée, Clément, Žižek, Badiou*
- 47 AZURMENDI, Joxe: *Gizabere kooperatiboaz*
- 48 SARTRE, Jean-Paul: *Begirada*

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzue etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara **10 €**
- Jakinkide ez bazara **12 €**

DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**





Cultura.

Uhhh...
Izena?

Kultura.
K-gaz.

Zeraa...
Zer dio
Saiburuak?

Ez ei ditu
laguntzen
inprimakiak
ondo bete...

Jakin • eus
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

